

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LAN ETA ENPLEGU
SAILA

DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y EMPLEO

LAN-MERKATUAREN 2020KO ZENTSUA

Eskari-fasea

Emitza nagusiak

2022ko martxoaren 18a

Lan eta Enplegu Sailaren Estatistika Organo Espezifikoa

AURKEZPENA

Txosten honek 2020ko Lan Merkatuaren Zentsuaren emaitza nagusiak biltzen ditu, Eskari-fasean, (2020ko LMZ-Eskaria). Emaitza hauek estatistika-eragiketan kontuan hartutako alderdiei dagozkie; nagusiki, honako hauei:

- * Euskal Autonomia Erkidegoko sare ekonomikoaren ezaugarritze orokorra (EAE). Establezimenduak eta enpleguak.
- * Enpleguaren barne-egitura.
- * Lan-merkatuaren dinamika.
- * Establezimenduetan garatutako prestakuntza.
- * Modernizazioa, maila teknologikoa, berrikuntza eta nazioartekotzea.
- * Finantza- eta merkatu-egoera.

Estatistika-tratamendua EAeko 8.000 establezimenduko lagin batetik lortutako informazioa oinarri hartuta garatu da; establezimendu horien artean, lehen sektorekoak eta Administrazioak daude. Establezimendu horietan 410.224 enplegu daude; hau da LMZn kontuan hartzen diren adarrei (guztiak, etxeek kontratatutako etxe-zerbitzuei dagozkienak izan ezik) lotutako lanpostu guztien % 44,77.

LMZ-Eskariaren ustiapen espezifikoak, txosten honi dagokion zatian, EAeko ekonomian dauden sektore eta adar gehienak kontuan hartzen ditu. Hala ere, salbuetsita geratzen dira hiru adar hauek: lehen sektorea, etxeetan modu partikularrean kontratatutako etxe-zerbitzua eta Administrazio Publikoa (zentzu hertsian). Azken kasu horretan, hezkuntza, osasuna, gizarte-zerbitzuak edo enpresa publikoen sistema barruan hartzen ez dituen Administrazioaren zatia da. Zati hori Administrazio Publikoa, Defentsa eta Nahitaezko Gizarte Segurantzaren epigrafean sartzen da.

2020ko LMZ-Eskariari buruzko txostenean zehatz kontuan hartutako produkzio-sistemaren zatian 158.829 establezimendu daude guztira. 2020ko urrian, 858.756 ziren lantoki horiek sortutako enpleguak. Aurkakoa zehaztu ezean, aurkeztutako datuak establezimendu eta enpleguen kopuru horien oinarrian dauden produkzio-zentroei buruzkoak dira.

Txostenean aurkeztutako informazioan ez dira sartzen lehen sektorea eta Administrazio Publikoa, baina, adierazi bezala, 2020ko LMZ-Eskarian badaude datuak ekonomiaren zati horri dagozkion establezimenduen eta enpleguen kopuruari buruz. Hartara, Administrazio Publiko, Defentsa eta Nahitaezko Gizarte Segurantzaren adarrak 2020. urtean guztira 46.136 enplegu bildu ditu, eta beste 11.363 egotz dakizkio nekazaritzari, abeltzaintzari, basogintzari eta arrantzari.

Aintzat hartu ez den beste adarrean (etxe partikularrek kontratatutako etxe-zerbitzua), enpleguak, guztira, 27.651 dira, zenbatespenen arabera. 2020ko urrian, EAEko sistema ekonomikoak, beraz, 943.906 bat enplegu sortu ditu.

Aurreko urteetako gertakizunak askotan aipatuko badira ere, 2012-2020 aldia da azterketaren ardatza. Izan ere, lan-merkatuaren egungo egoera erabaki duten funtsezko aitzinatze-, krisi- eta suspertze-prozesu ekonomikoak biltzen dira aldi horretan.

Azterketa honetan, funtsezkoa da kontuan hartzea enplegua aipatzen denean enpresetako lanpostuari buruz dihardugula. Hala, azterketa-prozedura ohikoan, Barne Produktu Gordina eta hari lotutako aldagaiak aztertzean, LMZ-Eskarian ez da egokitzen enplegu-kopurua dedikazio osoko baliokidetzaren ikuspuntutik.

Azkenik, esan behar da aurkeztutako datuak estatistika-eragiketa bakoitza egin den azken hiruhilekoari dagozkiola. Bereziki, enplegu-datuak LMZ-Eskaria egiten den urte bakoitzeko urriaren 31ri dagozkio.

1. ENPLEGUAK EAE-N IZAN DUEN BILAKAERA

1.1. Establezimenduen kopurua nabarmen behera aritu bitartean, enplegua % 2,0 handitu da 2016 eta 2020 artean

2016ko urriaren eta 2020ko urriaren artean¹, % 1,9 igo zen guztira EAEko ekonomiaren sektoreetan, etxe-zerbitzua barne, sortutako enplegua. Lanpostuak 926.546 izan ziren 2016an, eta 943.906, berriz, 2020an.

Enpleguaren susperraldia antzekoa da LMZn zehazki aztertutako sektoreetan (guztiak, lehen sektorea, etxe-zerbitzua eta, zentzu hertsian, Administrazioa izan ezik). Sektore horietan, enplegu-kopuruak gora egin du 841.860etik, 2016an, 858.756ra, 2020an; hau da, % 2,0 handitu da.

Aztertutako EAEko ekonomiaren zatian, 2020ko enpleguak 2004ko 837.752 lanpostuko kopurua gailendu du berriz ere. 1996tik izandako bigarren enplegu-maila handiena izan arren, 2020ko kopurua urrun dago 2008ko 901.801 lanpostuko gehieneko kopurutik; % 4,8 azpitik.

1. taula

Establezimendu-kopuruaren eta enpleguaren bilakaera. 1996-2020
(Datu absolutuak eta lau urteko bilakaera ehunekotan)

Urtea	Datu absolutuak		Lau urteko bilakaera ehunekotan	
	Establezimenduak	Enpleguak	Establezimenduak	Enpleguak
1996	146.548	639.592		
2000	166.647	745.121	13,7	16,5
2004	174.471	837.752	4,7	12,4
2008	191.233	901.801	9,6	7,6
2012	176.426	814.455	-7,7	-9,7
2016	165.401	841.860	-6,2	3,4
2020	158.829	858.756	-4,0	2,0

Iturria: LMZ-Eskaria. 1996 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

Nabarmenezkoa da enpleguak 2016-2020 aldian izandako susperraldia bateragarria izan zela LMZn kontuan hartutako adarretako establezimenduen kopuruak gutxitzen jarraitzearekin. 2012-2016ko jaitsiera (% -6,2) 2016 eta 2020 artean ere gertatu da, beste murrizketa batekin (% -4,0).

¹ Datuak hartzeko erreferentziazko data LMZ-Eskaria egindako urteko urriaren 31 da.

Guztira, establezimenduen % 13,5 galdu ziren 2008 eta 2016 artean aztertutako produkzio-adarretan. 2020ko establezimenduen kopurua (158.829) EAEn 2000tik izandako txikiena izan da, eta 1996an izandakoa soilik gainditu zuen (146.548).

1.2. Susperraldiak indartutako jarduera-esparru nagusiak

1.2.1. Komunitateari laguntzeko zerbitzu handiek biltzen dute hedapen-adarretako enplegu-hazkundearen % 72,2

Ekonomiak 2016-2020 aldian izandako hobekuntzari esker, 31.976 enplegu garbi sortu dira enplegua handitzea ezaugarri duten adarretan.

Hedapen-adar horietan, gehikuntzaren % 72,2 komunitateari laguntzeko zerbitzu handiei lotuta dago (osasuna, hezkuntza eta gizarte-zerbitzuak), esparru horietan 23.082 enplegu gehiago sortu baitziren 2016 eta 2020 artean. Zerbitzu horiek ezaugarri dute hazteko ildoak: 112.146 enplegu 2004an, eta 180.287 enplegu 2020an; hau da, % 42,2ko gehikuntza 2008 eta 2020 artean. Zerbitzu horietan, 2012-2016koa da lau urteko igoera erlatibo handiena: % 16,3; 2004-2008 aldian, berriz, % 13,1; eta azken aldian, % 14,7.

2016 eta 2020 artean, industria energetikoan, metalikoan eta eraikuntzan enpleguaren hazkundearen % 27,8 metatu da, eta 8.894 enplegu garbi sortu dira.

Gehikuntzaren % 13,4 industria metalikoari dagokio. 2016. urtearen aldean, igoera erlatiboa % 3,6 izan zen adar horretan, eta enplegua % 17,7 murriztu zen 2008tik. 2016-2020 aldiko enpleguaren susperraldia haustura garrantzitsua da 2008-2012 aldiko jaitsieraren ikuspuntutik (-% 18,8).

Ekonomiaren hedapen-esparruetan, energiaren industriaren adarrak 2016-2020ko enplegu-hazkundearen % 9,3 biltzen du. Aurreko kasuan ez bezala, 2016-2020 aldiko hobekuntza erlatiboa 2008-2012koa baino askoz handiagoa da (% 16,3 eta % 3,4, hurrenez hurren). Enplegua etengabe hazten ari den testuinguru batean, 2008ko ehunekoarekin alderatuta, enplegua % 22,08 handiagoa izan da 2020an. Horratx balantze garbia.

Eraikuntza ere suspertu da; hala, 2016 eta 2020 artean, hedapen-adarretako enplegua % 5,1 hazi zen adar horretan. Krisiak gogor jo zuen 2008 eta 2012 artean, -% 24,5eko jaitsiera izan baitzuen enpleguan, baina ertaina izan zen 2016-2020ko susperraldia, % 3,3ko hazi baitzen lau urtean, 2008tik zegoen joera oso negatiboa hautsiz. Enplegua, hala, % 43 baxuagoa izan zen 2020. urtean 2008an baino. 2004-2020 aldiko enpleguaren suntsipen handiena duen adarra da.

2. taula

Enpleguaren bilakaera jarduera-sektoreka. 2008-2020
 Datu absolutuak, bertikalak (%) eta aldakuntza enpleguan (%)

Sektorea	2008		2012		2016		2020		2008-2012	2012-2016	2016-2020
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Aldakuntza %-a	Aldakuntza %-a	Aldakuntza %-a
Guztira	901.801	100	814.455	100	841.860	100	858.756	100	-9,7	3,4	2,0
Industria	221.728	24,6	185.863	22,8	183.897	21,8	187.034	21,8	-16,2	-1,1	1,7
Eraikuntza	89.305	9,9	67.468	8,3	49.575	5,9	51.207	6,0	-24,5	-26,5	3,3
Zerbitzuak	590.767	65,5	561.124	68,9	608.388	72,3	620.515	72,3	-5,0	8,4	2,0

Iturria: LMZ-Eskaria. 2008 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

Enpleguaren bilakaera, jarduera-adarraren arabera. 2008-2020
 Datu absolutuak, bertikalak (%) eta aldakuntza enpleguan (%)

Adarra	2008		2012		2016		2020		2008-2012	2012-2016	2016-2020
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Aldakuntza %-a	Aldakuntza %-a	Aldakuntza %-a
Guztira	901.801	100	814.455	100	841.860	100	858.756	100	-9,7	3,4	2,0
Energiaren ind. eta antzekoak	17.279	1,9	17.861	2,2	18.131	2,2	21.094	2,5	3,4	1,5	16,3
Ind. metalikoa	148.902	16,5	120.937	14,8	118.242	14,0	122.541	14,3	-18,8	-2,2	3,6
Manufaktura-ind.	55.548	6,2	47.065	5,8	47.523	5,6	43.398	5,1	-15,3	1,0	-8,7
Eraikuntza	89.305	9,9	67.468	8,3	49.575	5,9	51.207	6,0	-24,5	-26,5	3,3
Merkat., ostal. eta konponk.	207.742	23,0	186.987	23,0	197.455	23,5	195.885	22,8	-10,0	5,6	-0,8
Garraioak eta komunikazioak	53.840	6,0	51.204	6,3	50.318	6,0	48.628	5,7	-4,9	-1,7	-3,4
Merkataritza-zerbitzuak	154.519	17,1	146.173	17,9	158.266	18,8	152.702	17,8	-5,4	8,3	-3,5
Hezkuntza, Osasuna, Gizarte Zerb.	126.786	14,1	135.141	16,6	157.205	18,7	180.287	21,0	6,6	16,3	14,7
Beste zerbitzu batzuk	47.881	5,3	41.619	5,1	45.144	5,4	43.012	5,0	-13,1	8,5	-4,7

Iturria: LMZ-Eskaria. 2008 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

Manufaktura-industriaren eremuan, bestalde, 2016-2020 aldian enpleguan beheranzko joera egon da, eta, hala, egonkortu egin da erorketaren lerroa, 2012-2016 aldian apur bat igo zen arren (% 1,0). Adar honetan, 2012 eta 2016 arteko enpleguaren hazkundera oso txikia zen, baina argi eteten zuen 2008-2012 aldiko enplegu-beherakada handien dinamika, -% 15,3 murriztu baitzen aldi horretan.

Edonola ere, manufakturaren eta metalaren industria-adarretan, enpleguak ez du 2020an hurbilketarik izan 2008an zegoen horretara. Urte horrekin alderatuta, 2020ko lanpostuen bolumena -% 21,9koa da manufaktura-industrian eta -% 17,7koa industria metalikoan.

Enpleguaren krisiak indarrean jarraitzen du jarduera-adar batzuetan; manufaktura-industrian eta beste zerbitzu batzuetan bereziki

2016-2020 aldian deigarria da enplegua suspertu ez izana LMZ-Eskarian aztertutako ekonomiaren adar guztietan. Bestalde, adar erregresibo batzuetan lanpostuak galdu dira; hala, aldi horretan, erorketa -15.081 enplegukoa izan da.

Aipatu galeren % 36,9 merkataritza-zerbitzuen adarrari dagokio bete-betean, zeinetan -5.564 lanpostu desagertu baitira 2016 eta 2020 artean. 2012 eta 2016 artean enpleguak % 8,3 igo ostean, azken dinamikak egonkortasunerako joera finkatzen du, % 1 inguruan, 2008tik (gehieneko kopurua % 8,3koa izan zen, 2012 eta 2016 artean). 2008arekin alderatuta, 2020ko okupazioa baxuagoa da adar honetan; zehazki, 1.817 enplegu gutxiago daude.

2016 eta 2020 artean adar erregresiboetako % 27,4ko enplegu-jaitiera manufaktura-industriari dagokio (-% 8,7 eta -4.125 enplegu), % 14,1 beste zerbitzu batzuei (-% 4,7 eta -2.132 enplegu) eta % 11,2 garraioen eta komunikazioen adarrari (-% 3,4 eta 1.690 enplegu). Adar horretan, enpleguaren erorketa-lerroa luzatu egiten da 2008tik. 2020an, zehazki, enplegua -% 9,7 jaitsi zen, 2008ko datuekin alderatuta. Bestalde, merkataritza, ostalaritza eta konponketetan enpleguaren erorketa % 10,4koa izan da (-% 0,8 eta 1.570 enplegu), 2008ko datutik urrun.

Nolanahi ere, datuek adierazten dute enpleguaren dinamika polarizatuta dagoela jarduera-adarren arabera, eta ildo oso ona da 2020an 2008arekin alderatuta osasunean, hezkuntzan eta gizarte-zerbitzuetan, bai eta energiaren industrian ere, baina horren guztiz bestelakoa da industriaren gainerako adarretan eta eraikuntzan dagoen epe luzeko dinamika txar-txarra, ekonomiaren susperraldia gorabehera. Gainerako zerbitzuak tarteko posizio batean daude. Posizio hori negatiboa da garraioen eta komunikazioen adarretan eta beste zerbitzu batzuetan, eta positiboagoa merkataritza-zerbitzuetan eta merkataritza, ostalaritza eta konponketen adarretan.

1.2.2. Ekonomiaren sektore publikoa eta pribatua

Enpleguaren susperraldia, 2016 eta 2020 artean, ekonomiaren sektore publikoan ardatzu da. Sektore publikoan eta ekonomia sozialean enplegua (enpresa parekideak barne) igo egin da; zehazki, 133.053 lanpostu ziren 2016an eta 199.347 izan dira 2020an, hots, % 49,8ko igoera erlatibo ikusgarria egon da. Hobekuntza nabarmen hori serie historikoko aurreko datu guztiak baino askoz altuagoa da. Hala, konpentsatu egiten da sektore pribatuko enpleguan 2016 eta 2020 artean erregistratutako erorketa, eta, ondorioz, 2020an lanpostuen

kopurua, guztira, 2016ko 841.860 lanpostuen gainetik geratzen da. Lerro negatiboa hautsi da horrela, enplegua -% 22,2 jaitsi baita 2012 eta 2016 artean (170.960 enplegu 2012an eta 133.053 enplegu 2016an).

Sektore publikoan enpleguak, hala ere, ildo negatiboa du, enplegua -% 7 erori baita 2016 eta 2020 artean (708.808 enplegu 2016an eta 659.409 enplegu 2020an). 2008 eta 2012 artean antzemandako atzerakada handiaren ostean (-% 15,9), enplegu pribatuak suspertzeko joera izan zuen; 2012 eta 2016 artean, % 10,1koa eta 65.000 enplegukoa izan zen susperraldia. 2020ko datua, hala ere, 2012koa baino altuagoa da; zehazki, 15.000 enplegu gehiago.

3. taula

Enpleguaren bilakaera establezimendu-motaren arabera. 2008-2020

Datu absolutuak, bertikalak (%) eta aldakuntza enpleguan (%)

Establezimendu-mota	2008		2012		2016		2020		2008/ 2012	2012/ 2016	2016/ 2020
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Aldakuntza %-a	Aldakuntza %-a	Aldakuntza %-a
Guztira	901.801	100	814.455	100	841.860	100	858.756	100	-9,7	3,4	2,0
Pribatua	764.790	84,8	643.495	79,0	708.808	84,2	659.409	76,8	-15,9	10,1	-7,0
Publikoa/eko. soziala	137.011	15,2	170.960	21,0	133.053	15,8	199.347	23,2	24,8	-22,2	49,8

Iturria: LMZ-Eskaria. 2008 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

1.2.3.Zentro txikienetako enplegua erori egin da, eta establezimenduen batez besteko tamainaren igoera sustatu da

Establezimenduaren tamainak nabarmen baldintzatu du 2016 eta 2020 arteko enpleguaren dinamika, igoerak izan baitira 10 enplegutik gorako zentroetan, eta jaitsierak, berriz, 10 langile baino gutxiagokoetan (-14.662 enplegu garbi).

Enplegatutako 10 pertsonatik gorako zentroetan, 2016 eta 2020 artean, 31.558 lanpostu berri garbi sortu ziren. Igoera hori guztiz lotuta dago 100 langile edo gehiago dituzten zentroekin. Kasu horretan, 2016-2020 aldian, enplegua 211.012 lanpostutik 256.759 lanpostura handitu zen; hau da, % 21,7. Hartara, zentro horiek argi eta garbi gaitzitu dute 2008an enpleguan izan zuten pisua. Hala, 2020an lanpostu guztien % 29,9 biltzen dute, eta aurrera egiten dute 2008. urtearen (% 23,8) eta 2012. urtearen (% 24,1) aldean, eta igoera oso argia da 2016. urtearekin alderatuta (% 25,1).

Bestalde, 10-49 langileko zentroak dira 2008 eta 2012 artean krisiaren eragina gehien jasan zutenak, enpleguak -% 15,9 egin baitzuen behera. Azken aldian, galera % 5,3koa izan da. Ondorioz, 2020ko 221.663 enpleguak urrun daude 2008ko 249.229 enpleguetatik.

50 langile edo gehiago dituzten establezimenduetan, 1.800 enplegu garbi inguru galdu dira. Kasu horretan, 2016-2020an, enplegua -% 1,8 jaitsi da 50-99 enpleguko zentroetan; beraz, enplegatuta 10-49 pertsona zituzten establezimenduetan (% 11,6) baino dezente gutxiago.

2008 eta 2012 arteko krisiaren eragin txikiagoak (-% 2 eta -% 8,5eko erorketekin 50-99 enpleguko zentroetan eta 100 enplegu edo gehiagoko zentroetan) balantza positiboagoa izan du establezimendu hauetan 2008-2020

aldi osoan. Hartara, aldi horretan enplegua 90.514 lanpostutik 92.282ra handitu da 50-99 enpleguko zentroetan; hau da, % 1,9ko hazkunde erlatiboa izan da. Igoera askoz nabarmenagoa da (% 19,8) 100 enplegu baino gehiago dituzten establezimenduetan, 2008an 214.407 enplegu izatetik 2020an 256.759 izatera aldatu baitziren.

Izan ere, 50 langiletik gora dituzten zentroetan, enpleguaren pisu erlatiboa 2004 eta 2008 artean % 34,3tik % 33,8ra jaitsi ondoren, handitzen hasi zen azken urte horretatik aurrera. 2012an % 35era iritsi zen eta % 36,2ra, berriz, 2016an, % 40,6ra iristeko 2020an. Oso bestelakoa da enpleguaren pisua 10 langile baino gutxiago dituzten zentroetan. Beti izan da handiagoa tamaina handiagoko establezimenduetan baino (% 38,6, bateko, 2004an eta 2008an, eta % 39,3, besteko, 2012an), baina % 36ra jaitsi zen 2016an eta % 33,5era 2020an. Ondorioz, 2016an gertatu zen lehendabiziko aldiz 1996tik enplegu-kopurua handiagoa izatea 50 langiletik gorako zentroetan 10 langiletik beherako establezimenduetan baino.

Zentro txikienek ezaugarri dute, egia esan, 2016 eta 2020 artean, enpleguaren bilakaeran izandako kontrastea. Lanpostuen beheranzko lerroa 2012 eta 2016 artean nabarmenagoa bazen establezimendu handienetan (-% 2,5eko jaitsiera 3 enplegutik beherako zentroetan eta -% 8,6koa 3-9 enpleguko zentroetan), 2016 eta 2020 artean errealitatea oso bestelakoa da, -% 17,1eko jaitsiera nabarmena egon baita establezimendu txikienetan eta % 9,4ko igoera 3-9 enplegatuko zentroetan.

Bi kasuetan, enplegu-galerak, 2020. urtean, 2008ko egoeran gertatzen zirenen oso bestelakoak dira. Hala, 3 lanpostu baino gutxiago dituzten zentroetan, 2020ko 135.214 enpleguek erorketa nabarmena eragiten dute (-% 28,5), 2008ko 189.169 enpleguen aldean. Bestalde, 3-9 enplegatuko establezimenduetan, 2020ko 152.838 enpleguek -% 3,6ko murrizketa eragin dute 2008ko 158.482 enpleguen aldean.

4. taula

Enpleguaren bilakaera establezimenduen tamainaren arabera. 2008-2020

Datu absolutuak, bertikalak (%) eta aldakuntza enpleguan (%)

Tamaina	2008		2012		2016		2020		2008/ 2012	2012/ 2016	2016/ 2020
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Aldakuntza %-a	Aldakuntza %-a	Aldakuntza %-a
Guztira	901.801	100	814.455	100	841.860	100	858.756	100	-9,7	3,4	2,0
3 baino gutxiago	189.169	21,0	167.157	20,5	163.047	19,4	135.214	15,7	-11,6	-2,5	-17,1
3tik 9era bitartean	158.482	17,6	152.820	18,8	139.667	16,6	152.838	17,8	-3,6	-8,6	9,4
10etik 49ra bitartean	249.229	27,6	209.711	25,7	234.124	27,8	221.663	25,8	-15,9	11,6	-5,3
50-99	90.514	10,0	88.667	10,9	94.010	11,2	92.282	10,7	-2,0	6,0	-1,8
100 edo gehiago	214.407	23,8	196.099	24,1	211.012	25,1	256.759	29,9	-8,5	7,6	21,6

Iturria: LMZ-Eskaria. 2008 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

EAEn, establezimenduen batez besteko tamainak handitzen jarraitzen duela adierazten dute 5. taulako datuek. Hartara, 2004ko establezimenduko 4,8 enplegutatik 2012ko 4,6 enplegutara etengabe jaitsi ondoren, adierazlea 5,1era igo zen 2016an. 2020an, igoera hori 5,4 enplegu gehiagorainokoa izan zen.

5. taula

Establezimenduen batez besteko tamaina (enplegua/establezimendua) jarduera-sektoreka. 2008-2020

Sektorea	2008	2012	2016	2020
Guztira	4,7	4,6	5,1	5,4
Industria	14,9	12,8	14,2	16,5
Eraikuntza	3,3	2,9	2,8	2,8
Zerbitzuak	4,0	4,0	4,5	4,8

Iturria: LMZ-Eskaria. 2008 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

Lehenago, 2008-2012 aldiko dinamika paradoxikoa zen, lanpostu-kopuruaren beherakada enpresa txiki eta ertainetan nabarmen metatzea bateragarria zelako establezimenduen batez besteko tamaina aldi horretan txikitzen jarraitzearekin; izan ere, dinamika hori, orduan, 10-49 enpleguko zentroen krisi handiak azaltzen zuen. 2016 eta 2020 artean, bestalde, 10 enplegutik gorako zentroetan enplegua suspertu egin denez eta 10 langiletik beherako zentroetan beheranzko ildoak bere horretan jarraitu duenez, establezimenduen tamaina handiaren bultzada altuagoa izan da (% 0,47 gehiago, 2000-2004 aldiko % 0,33ren gainera, azken aldi horretan ere nabarmen igo zelarik zentroen batez besteko tamaina).

Batez besteko tamainan izandako handitze handiena industriari dagokio, establezimenduko 14,2 langiletik (2016an) 16,5era aldatu baitzen (2020an). Hala ere, suspertze hori 2004ko establezimenduko 15,9 langileko kopurutik gertatutako beheranzko ildo argi baten ondoren gertatu zen. Hala ere, 2000 eta 2004 arteko adierazlean izandako 1,88 puntuko gehikuntzak (14,03tik 15,91ra arte) 2016-2020ko 2,3koa (14,2tik 16,5era arte) gainditzen du, eta horrek laguntzen du azaltzen 2020ko batez besteko tamainak, oraingoz behintzat, aldaketa bat adierazten duela enplegua industrian metatzeko joeran. Alde horretatik, 1996-2020 aldiaren ikuspegitik, azken urte horretako establezimenduko langile-kopurua (16,5) 2004koa (15,9) eta 2008koa (14,9) baino altuagoa da, eta sektore horretan izandako gutxienekoa argi gainditzen du, 2012koa (12,8).

Establezimenduen batez besteko tamaina txikitzeko joerak, gainera, eraikuntzan iraun du. Sektore horretan, 2016 eta 2020ko establezimenduko 2,8 langileko kopurua txikiena izan zen 1996tik (3,60).

Azkenik, nabarmentzekoa da zerbitzuen sektorean zentroen batez besteko tamainaren igoerak izan duen dinamika. Kasu horretan, 2020ko establezimenduko 4,8 langileko kopurua handiena da 1996. urtetik. Gainera, 2016 eta 2020 artean antzemandako igoera (% 0,3) 1996tik erregistratutako altuena da, aurreko aldiaren erregistratutakoa salbu. Horrek, beraz, serie historikoaren hazkunde-ildoak finkatzen du.

1.2.4. Lan-eskalaren alde tekniko eta kualifikatua hobetu egin da, baina dinamika kezkagarria da kualifikazio gabeko langileen artean

Enpleguaren bilakaerak adierazten du 48.927 enplegu berriko sortze garbia gertatu zela 2016 eta 2020 artean lanbide-kategoria hedakorretan. Gehikuntza horren % 47,4 kualifikaziorik gabeko lanari lotutako kategoriei dagokie. 2008-2012 aldiaren kolektibo horretan egondako enpleguaren krisi gogorra (zeinak -% 20,2ko jaitsiera eduki baitu lanpostuen kopuruan) apur bat konpentsatu da hurrengo lau urteko aldietan. 2012 eta 2016 artean, enplegu hori % 2,3 baino ez zen handitu, eta, 2016an, landunak 295.555 izan ziren. Kopuru hori azken aldiaren

% 7,9 hazi da, 318.445 enplegura arte. Hala ere, urrun dago 2008ko 361.600 enpleguetatik, nahiz eta 2004ko 306.126 enpleguak baino % 4 altuagoa izan.

Lanbide kualifikatu teknikoek ere laguntzen dute susperraldian, lanbide-kategoria hedakorren gainerako % 52,6arekin. Halaber, 2016-2020 aldian guztira 25.737 enpleguko igoera eragin dute. 2004 eta 2008 artean % 19,1 igo ostean, 147.414 enplegutik 175.519 enplegura, 2008-2012 aldiko krisiak enplegu teknikoa 168.739 lanpostura eraman du 2012an, -% 3,9ko murrizketarekin. Murrizketa askoz ere biziagoa da (-9,3) 2012 eta 2016 artean, lanpostuen bolumena azken urte horretan 153.074 enplegukoa baita. Azken aldi horretan hazkundera % 16,8koa da, eta 178.811 enpleguek serie historikoko erregistrorik handiena osatzen dute.

Kualifikaziorik gabeko enpleguaren kasuan, enplegua murrizteko prozesu jarraitu baten ondoren (2004. urteko 111.256 enpleguetatik 2012ko 88.271 enpleguetara arte), suspertzea nabarmena izan zen 2016an, 120.175 enplegurekin. Hala ere, 2020an galera nabarmena gertatu zen, 20.000 enplegu baino gehiago galdu baitziren (-% 17,2). Oro har, 2020ko kualifikaziorik gabeko lan-kategoriako enpleguen kopurua 2008koaren oso antzekoa da.

Biztanleria administratiboak enplegua -% 9,3 galdu du azken aldian. Balio erlatiboetan, hautsi egin da 2012 eta 2016 arteko % 18ko enplegu-igoera, zeinak argi eta garbi konpentsatu egiten baitzuen 2008-2012ko -% 10,9ko erorketa. 2020ko 86.086 enpleguak % 7,1 gehiago dira 2012ko 80.377 lanpostuak baino, nahiz eta enplegu-mailarik txikiena diren gainerako urteen aldean.

Erdi-mailako kargudunen kategoriako langileen kolektiboa da bigarrena 2020an galera erlatibo handiagoa duena 2016an baino, kualifikaziorik gabeko langileen ostean. 2020ko 37.191 langileko kopurua, halaber, mailarik baxuena da 2004ko 35.850 langileko kopuruaz geroztik, % 3,7 handituta urte horren aldean.

Zuzendarien kopuruaren jaitsiera deigarria da 2016 eta 2020 artean, eta 2008tik izandako gorakada hausten du. Enplegu-galeraren ekarpena % 17,3koa da kategoria erregresiboetan. 2004 eta 2008 artean era honetako langileen artean antzemandako erorketa handia ez zen konpentsatu suspertze-prozesuan 2016ra arte. 2020ko 71.577 zuzendaritza-enpleguek -% 11,22ko erorketa izan dute 2004ko 80.625 enpleguen aldean.

Batera hartzen badira enplegu teknikoa eta zuzendariena, 2020ko 250.388 lanpostuek argi eta garbi gaintitzen dituzte aurreko erregistro guztiak, 2004ko 228.039ak barne. Ondorioz, 2012an lortu zen gehieneko kopuruaren (238.527 enplegu) gainetik dago.

2016 eta 2020 artean, deigarriena da pertsona bakar bat enplegatuta duten zentroetako pertsonen igoera. Kasu horretan, 2020an enplegu-mota hori % 15,5 suspertu zen 2016. urtearekin alderatuta. 2020ko 67.157 enpleguak, hala ere, 2008ko 73.481 enpleguak baino -% 8,6 gutxiago dira.

6. taula

Enpleguaren bilakaera, lanbide-kategoriaren arabera. 2008-2020

Datu absolutuak, bertikalak (%) eta aldakuntza enpleguan (%)

Langile-mota lanbide- kategoriaren arabera	2008		2012		2016		2020		2008/ 2012	2012/ 2016	2016/ 2020
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Aldakuntza %-a	Aldakuntza %-a	Aldakuntza %-a
GUZTIRA	901.801	100	814.455	100	841.860	100	858.756	100	-9,7	3,4	2,0

Enplegu bakarra	73.481	8,1	81.274	10,0	58.160	6,9	67.157	7,8	10,6	-28,4	15,5
Beste enplegu batzuk	828.320	91,9	733.181	90,0	783.700	93,1	791.598	92,2	-11,5	6,9	1,0
Zuzendaritza	62.344	6,9	69.788	8,6	78.658	9,3	71.577	8,3	11,9	12,7	-9,0
Teknikaria	175.519	19,5	168.739	20,7	153.074	18,2	178.811	20,8	-3,9	-9,3	16,8
Erdi-mailako karguduna	38.341	4,3	37.447	4,6	41.670	4,9	37.191	4,3	-2,3	11,3	-10,7
Administraria	90.248	10,0	80.377	9,9	94.868	11,3	86.086	10,0	-10,9	18,0	-9,3
Langile kalifikatua	361.600	40,1	288.559	35,4	295.255	35,1	318.445	37,1	-20,2	2,3	7,9
Lang. ez-kualifikatua	100.268	11,1	88.271	10,8	120.175	14,3	99.489	11,6	-12,0	36,1	-17,2

Iturria: LMZ-Eskaria. 2008 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

1.2.5. Kontratu mugagabea duen biztanleria igo egin da

2016-2020an, enplegu mugagabea duten edo soldatapekoak ez diren pertsonetan baino ez da oinarritzen enpleguaren suspertzea. 2020ko 716.107 enpleguek % 3,9ko susperraldia eragin dute, 2016ko 689.038 enpleguen aldean. Hartara, hautsi egin da 2008ko 750.377tik luzatzen zen joera negatiboa (-% 6,9koa 2008 eta 2012 artean). Hala ere, aztertutako enplegua baxuagoa da oraindik ere urte horretako datua baino.

Bestalde, aldi baterako enpleguak beheranzko ildoan jarraitzen du. 2008 eta 2012 artean aldi baterako enplegua -% 23,7 jaitsi ostean, era honetako enplegua % 32,3 igo zen 2012 eta 2016 artean, eta % 6,7 jaitsi zen azken aldian, 2012ko 115.514 enpleguen nabarmen gainetik geratuta soilik.

Erlatiboki, aldi baterako kontratazioaren pisua % 18,2tik % 16,6ra jaitsi da 2016 eta 2020 artean. Proportzioa 2012. urteko % 14,2 baino nabarmen altuagoa da, baina 2008ko % 16,8aren oso antzera jarraitzen du.

7. taula

Enpleguaren bilakaera, enpresarekiko kontratu-harremanaren arabera. 2008-2020

Datu absolutuak, bertikalak (%) eta aldakuntza enpleguan (%)

Harreman-mota	2008		2012		2016		2020		2008/ 2012	2012/ 2016	2016/ 2020
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Aldakuntza %-a	Aldakuntza %-a	Aldakuntza %-a
Guztira	901.801	100	814.455	100	841.860	100	858.756	100	-9,7	3,4	2,0
Mugagabea/ Soldatapekoak ez direnak	750.377	83,2	698.941	85,8	689.038	81,8	716.107	83,4	-6,9	-1,4	3,9
Mugatua	151.424	16,8	115.514	14,2	152.823	18,2	142.650	16,6	-23,7	32,3	-6,7

Iturria: LMZ-Eskaria. 2008 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

1.3. Enpleguaren susperraldia, batez ere Debagoienan eta Durangaldean. Enplegu-galera duten eskualdeetatik, Ezkerraldean eta Bilbon metatzen da jaitsierarik handiena

2016 eta 2020 artean, enplegua lurralde historiko guztietan suspertu da. Lurralde-ekarpena oso desberdina da: % 57,6 Gipuzkoari egoki dakioko; % 28,7, berriz, Bizkaiari; eta % 13,7, azkenik, Arabari. Erlatiboki, era berean, hazkundea ez da berdina: Gipuzkoan % 3,5koa da; Araban, % 1,7koa; eta Bizkaian, % 1,1koa. Aldakuntza

desberdin horien aldean, nabarmentzekoak dira 2012 eta 2016 artean egondako igoera handiagoak, aldi horretan enpleguak % 2,2 eta 6,5 artean igo direlarik.

2008ko enpleguarekin alderatuta, Arabak zuen 2020an bilakaerarik onena. Urte horretako enpleguak (139.548) 2008koak (142.072) baino % 1,8 gutxiago izan ziren. Bizkaian, 2020ko 429.597 enpleguek % 6,8ko jaitsiera nabarmena eragin dute, 2008ko 460.717 enpleguen aldean. Gipuzkoak tarteko jarrera dauka. 2020ko 289.612 enpleguek % 3,1eko galera eragin dute, 2008ko 299.012 enpleguen aldean.

8.a taula
Enpleguaren bilakaera, lurralde historikoaren arabera. 2008-2020
Datu absolutuak, bertikalak (%) eta aldakuntza enpleguan (%)

Lurralde historikoa	2008		2012		2016		2020		2008/ 2012	2012/ 2016	2016/ 2020
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Aldakuntza %-a	Aldakuntza %-a	Aldakuntza %-a
GUZTIRA	901.801	100	814.455	100	841.860	100	858.756	100	-9,7	3,4	2,0
Araba	142.072	15,8	128.801	15,8	137.232	16,3	139.548	16,3	-9,3	6,5	1,7
Bizkaia	460.717	51,1	415.647	51,0	424.756	50,5	429.597	50,0	-9,8	2,2	1,1
Gipuzkoa	299.012	33,2	270.007	33,2	279.872	33,2	289.612	33,7	-9,7	3,7	3,5

Iturria: LMZ-Eskaria. 2008 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

Eskualde-ikuspegiak enplegu-mailetan izandako aldaketei hurbilagotik erreparatzea ahalbidetzen du. Eskualde hedakorretan 21.278 enplegu garbi sortu ziren 2016 eta 2020 artean, eta enplegu horien % 63,4 Debagoiena, Durangaldea eta Eskuinaldea eskualdeetan metatu zen; proportzio hori % 75,4ra igotzen da Tolosa-Goierri ere kontuan hartuz gero.

Balio erlatiboetan, Debagoiena, Debabarrena eta Durangaldea dira 2016 eta 2020 artean enplegua gehien hazten ikusi duten eskualdeak; % 20,1, % 11,5 eta % 10,7, hurrenez hurren. Beste eskualde hedakor esanguratsuan, Tolosa-Goierri, enplegua % 6,2 handitu da.

2020ko enpleguko kopuruak 2008ko kopuruekin alderatzen badira, galera guztira 43.045 enplegukoa da. Eskuinaldea, Durangaldea eta Gasteizen soilik egon dira igoerak. Horietako lehena 2008-2012ko krisiarekiko erresistente egon zen, horrek eragin zituen onurekin; apenas -% 2,1eko erorketa aldi horretan lanpostuetan. Hartara, eskualde horretan 2020ko enpleguak % 4 gainditu du 2008koa, eta, gainera, antzemandako aldian gehieneko kopurua eragin du.

Hazkunde-garai gorenaren ikuspegian, eta nahiz eta gogor jasan zen 2008tik 2012rako enpleguaren erorketa (-% 5,5), Durangaldea da atzeraldiari ondoen eusten dion beste eskualdea EAEn. 2020ko enplegua % 3,7 altuagoa da 2008koa baino, eta, aurreko kasuan bezala, 2008-2020 aldiko gehieneko zenbatekoa osatzen du.

Gasteizen, zenbatekoak positiboak dira, baina ez dira hain onak, 2008-2012ko krisiaren eragina baino handiagoa izan zelako eta susperraldia motelagoa aurreko kasuetan baino. Ondorioz, 2020an -% 0,4ko galera egon zen enpleguan, 2008arekin alderatuta. Hala ere, 2016aren aldean maila positiboari eutsi zaio (+% 1,7, enplegu-mailan), eta, gainera, aztertutako aldiko zenbatekorik altuena egon da.

Aurreko eskualdeekin alderatuta, Bilbo eta Ezkerraldeko suspertze-gaitasun txikiagoak, 2008 eta 2012 artean -% 10etik gorako enplegu-erorketekin lotuta, enplegu-murrizketa gogorak eragin ditu 2008 eta 2020 aldian (-% 9,9 Bilbon eta -% 14,1 Ezkerraldean). 2016aren aldean, hala ere, aldeak ertainak dira (-% 1,7 eta -% 1,5, hurrenez hurren).

Bizkaia-Kosta, bestalde, tarteko posizioan dago, enplegua -% 4,4 jaitsi baita 2008aren aldean, baina % 2,2 igo 2016aren aldean.

8.b taula

Enpleguaren bilakaera eskualdearen arabera. 2008-2020
 Datu absolutuak, bertikalak (%) eta aldakuntza enpleguan (%)

Eskualdea	2008		2012		2016		2020		2008/ 2012	2012/ 2016	2016/ 2020
	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Abs.	% ber.	Aldakuntza %-a	Aldakuntza %-a	Aldakuntza %-a
GUZTIRA	901.801	100	814.455	100	841.860	100	858.756	100	-9,7	3,4	2,0
Gasteiz	122.007	13,5	111.241	13,7	120.512	14,3	122.550	14,3	-8,8	8,3	1,7
Aiara	20.064	2,2	17.560	2,2	16.720	2,0	16.998	2,0	-12,5	-4,8	1,7
Eskuinaldea	80.498	8,9	78.792	9,7	80.447	9,6	83.695	9,7	-2,1	2,1	4,0
Bilbo	161.895	18,0	143.886	17,7	148.410	17,6	145.835	17,0	-11,1	3,1	-1,7
Ezkerraldea	131.319	14,6	111.519	13,7	114.486	13,6	112.813	13,1	-15,1	2,7	-1,5
Bizkaiko kostaldea	36.223	4,0	33.439	4,1	33.879	4,0	34.612	4,0	-7,7	1,3	2,2
Durungaldea	50.782	5,6	48.011	5,9	47.535	5,6	52.642	6,1	-5,5	-1,0	10,7
Donostialdea	199.910	22,2	180.384	22,1	193.691	23,0	193.554	22,5	-9,8	7,4	-0,1
Tolosa-Goierrri	46.279	5,1	41.931	5,1	41.554	4,9	44.115	5,1	-9,4	-0,9	6,2
Debagoiena	31.095	3,4	28.468	3,5	25.556	3,0	30.683	3,6	-8,4	-10,2	20,1
Debarrena	21.728	2,4	19.224	2,4	19.072	2,3	21.258	2,5	-11,5	-0,8	11,5

Iturria: LMZ-Eskaria. 2008 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

Galdutako enplegu garbietan, 2016 eta 2020 arteko erorketa nagusia, % 58,7ekoa, Bilbon izan zen, % 38,2koa Ezkerraldean eta % 3,1ekoa Donostialdean. Erlatiboki, enplegu-galera, 2016 eta 2020 artean, oso txikia da Bilbon, enplegua - % 1,7 murriztu baitzen. Erorketa txikia da, era berean, Ezkerraldean, -% 1,5ekin, eta ia deuseza Donostialdean.

2008arekin alderatuta, Araia izan zen EAEko gainerako eskualdeak baino enplegu-galera biziagoa jasan zuena 2008 eta 2012 artean. Halaber, 2020an enplegua 2008an baino nabarmen baxuagoa izan da, -% 15,3ko erorketa nabarmena jasan baitu. Hala ere, 2016arekin alderatuta, enplegua % 1,7 altuagoa da 2020an baino. Tolosa-Goierrin, bestalde, 2020ko enplegua nabarmen altuagoa da 2012koa (% 5,2) eta 2016koa (% 6,2) baino.

2. ESTABLEZIMENDUEN NEGATIBOA 2020AN

ARABERAKO

ENPLEGU-DINAMIKA

2.1. Adar guztietan (osasunean, hezkuntzan eta gizarte-zerbitzuetan izan ezik) beheranzko enplegu-dinamika daukan produkzio-sistema

2020an, aurreko urteetako dinamika hau hautsi egin zen: gero eta handiagoa zen EAEko lan-merkatuan alta edo bajen dinamika. 1996an enplegu-dinamika zuen establezimenduen % 16,5ek, baina proportzio hori % 20,4 izan zen 2000. urtean eta % 21,5, berriz, 2004an. 2008an proportzioa antzekoa izan zen (% 21,2), baina 2012an funtsezko gehikuntza gertatu zen, % 24,3ra artekoa. Goranzko joera hori 2016an berretsi zen, eta % 26,6 izan zen azken urte horretan. Hala ere, 2020an % 22,1 jaitsi zen.

9. taula

Azken urtean enplegu-dinamika (alta edo bajak) izan duten establezimenduak, jarduera-sektoreka eta -adarka. 2008-2020

(establezimendu guztien gaineko ehunekoa)

Jarduera-sektorea eta -adarra	2008	2012	2016	2020
GUZTIRA	21,2	24,3	26,6	22,1
Jarduera-sektorea				
Industria	39,5	36,2	38,5	34,4
Eraikuntza	20,6	24,4	19,3	17,3
Zerbitzuak	19,4	23,0	26,4	21,7
Jarduera-adarra				
Energiaren ind. eta antzekoak	36,1	35,7	48,1	37,4
Ind. Metalikoa	46,1	45,0	43,3	41,4
Manufaktura-ind.	33,0	28,2	30,6	26,6
Eraikuntza	20,6	24,4	19,3	17,3
Merkat., ostal. eta konponk.	20,4	25,7	32,1	25,8
Garraioak eta komunikazioak	18,4	17,7	23,7	17,3
Merkataritza-zerbitzuak	14,6	19,4	19,7	16,3
Hezkuntza, Osasuna, Gizarte Zerb.	26,0	28,8	26,6	27,4
Beste zerbitzu batzuk	24,5	20,1	22,8	16,9

Iturria: LMZ-Eskaria. 2008 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

Adarren arabera azterketak adierazten du aipatutako irudia EAEko ekonomia-adar guztietara zabaltu daitekeela. Enplegu-dinamika negatiboa merkataritza, ostalaritza eta konponketetan ikusten da argi eta garbi, eta dinamika zuten establezimenduetan gehikuntza etengabea izan zen 2008 eta 2016 artean % 20,4tik % 32,1era artekoa. 2020an, hala ere, % 25,8 murriztu da. Industria energetikoan azken aldiko jaitsiera are handiagoa da –ia hamar puntu baino gehiago–, % 37,4ra arte; hala, hautsi egin da 2012-2016 aldiko igoera (% 36,1etik % 48,1era). Garraio eta komunikazioetan antzeko zerbait gertatzen da, eten egin baita 2012-2016 urteetako % 18,4tik % 23,7rako hazkundera; 2020an, ukitutako establezimenduen ehunekoa % 17,3ra erori da. Era berean, 2008-2016 aldiko merkataritza-zerbitzuetako % 14,6tik % 19,7rako igoera, 2012 eta 2016 artean ia-ia geldu egin dena, 2020an hautsi egin da, % 16,3raino jaitsiz.

Beste zerbitzu batzuen adarrak antzeko egoera dauka. Ia sei puntu jaitsi da 2016 eta 2020 artean (% 22,8tik % 16,9ra), eta, hala, aurreko aldiko susperraldia eten egin da. Manufaktura-industrian, joera berdina izan da, baina jaitsiera ez da hain nabarmena izan enplegu-dinamika duten establezimenduetan (% 30,6tik % 26,6ra).

2020 eta 2016 arteko enplegu-dinamikaren erorketa bera ikusten da eraikuntzan, baina, oraingo honetan, 2012-2016 aldiko jaitsierarekin lotuta. Hartara, kasu horretan, enplegu-dinamika duten establezimenduen proportzioa % 20,6tik % 24,4ra aldatu zen 2008 eta 2012 artean, % 19,3ra jaitsi zen 2016an eta % 17,3ra 2020an.

Metaltaren industrian, dinamismoa pixka bat baina etengabe jaitsi da 2004tik. Hala, 2004an enplegu-dinamika duten zentroen % 47,4 apurka-apurka murrizten doa, 2020an % 41,4an geratzeraino.

2012ko dinamismoa 2020koa baino handixeagoa izanda ere, adar guztien artean hazkunde-dinamika bakarra hezkuntzan, osasunean eta gizarte-zerbitzuetan antzematen da. Eta hala, dinamika zuten establezimenduen ehunekoa % 26tik % 28,8ra igo zen 2008 eta 2012 artean, % 26,6ra jaitsi zen 2016an eta % 27,4ra igo zen 2020an.

2.2. Bajen eragina argi eta garbi geroz eta baxuagoa izanik, nabarmen murriztu dira txandakatze-tasak

Bajek, dinamismo handiagoari lotuta, establezimenduetako enpleguaren kudeaketan gero eta pisu handiagoa izatea da 2008ko krisiaren osteko lan-merkatuaren ezaugarri deigarrietako bat, eta, pisu hori neurtzeko, kontuan hartzen da zein den urtean kontabilizatutako bajek urte bakoitzeko urrian dagoen enpleguan duten proportzioa. Adierazitako proportzioa % 25,2koa zen 2004an eta % 31,2ra igo zen 2008an. Motelago bada ere, igoerak 2008tik aurrera ere iraun zuen: 2012. urtean, % 33,4; 2016an, berriz, % 36,2. 2020an, hala ere, jaitsiera bat egon zen, % 18,9ra arte; hots, serie historikoko balio baxuenera arte.

Berriz ere erabakigarriak dira sektoreen eta adarren arabeko aldeak. Alde horretatik, ikusten da bajen eragina, 2008-2020 aldian, zerbitzu-adar batzuetan nabarmen jaitsi zela. Hala, bajek enpleguaren gainean izandako eragin erlatiboa murriztu egin da aldi horretan, ehuneko hiru edo gehiago, merkataritzan, ostalaritzan eta konponketetan (3,1 puntu, % 18,6tik % 15,5era 2008 eta 2020 artean), beste zerbitzu batzuetan (127,2 puntu, % 146,5tik % 19,3era), merkataritza-zerbitzuetan (5,7 puntu, % 22,6tik % 16,9ra) eta garraio eta komunikazioetan (34,5 puntu, % 13,9tik % 48,4ra). Merkataritzan, ostalaritzan eta konponketetan eta garraio eta komunikazioetan proportzioa etengabe handitu zen 2004 eta 2016 artean (nabarmenago, ordea, azken adar horietan 2012-2016 aldian), baina aztertutako proportziorako mailarik gorenak honako hauei dagozkie: 2008. urteari, beste zerbitzu batzuetan (% 146,5); eta 2012. urteari, merkataritza-zerbitzuetan (% 51,2).

Industria energetikoaren kasuan, igoera-lerroa 2008-2012 aldian metatzen da, zenbatekoak 2004-2008ko % 11-12tik 2012ko % 25,8ra igoz, ondoren 2016an % 17,3ra eta 2020an % 15,7ra jaisteko, hots, ehuneko 4,5 gorago 2008ko % 11,2a baino.

LMZn aztertutako gainerako adarretan, bajen pisua txikiagoa da 2020. urtean 2008koa baino.

Alde horiek nabarmenak dira, hainbat puntutan, industria metalikoan eta manufaktura-industrian (industria metalikoan 2020an % 9,5, 2008ko % 12,1aren aldean; manufaktura-industrian 2020an % 11,5, 2008ko % 17,2ren gainetik). Hala ere, beste adar batzuetan ehuneko 10era hurbiltzen dira edo ehuneko hori gainditzen dute. Adibidez, eraikuntzan 2020ko ehunekoa % 12,5, txikiagoa da 2008ko % 25a baino. Ildo beretik, hezkuntzan, osasunean eta gizarte-zerbitzuetan, 2020ko ehunekoa (% 34,6) 2008koa (% 61,4) baino baxuagoa da, eta serie historikoko balio baxuena ordezkatzen du.

10. taula

Azken urtean enpleguan izandako baja-kopuruaren pisua jarduera-sektoreka eta -adarka. 2008-2020
(Urte bakoitzeko urriaren 31n zegoen enpleguaren gaineko ehunekoa)

Jarduera-sektorea eta -adarra	2008	2012	2016	2020
GUZTIRA	31,2	33,4	36,2	18,9
Jarduera-sektorea				
Industria	13,3	15,8	14,1	10,7
Eraikuntza	25,0	28,9	15,3	12,5
Zerbitzuak	38,8	39,8	44,6	21,8
Jarduera-adarra				
Energiaren ind. eta antzekoak	11,2	25,8	17,3	15,7
Ind. Metalikoa	12,1	12,0	13,2	9,5
Manufaktura-ind.	17,2	21,9	15,1	11,5
Eraikuntza	25,0	28,9	15,3	12,5
Merkat., ostal. eta konponk.	18,6	31,6	33,1	15,5
Garraioak eta komunikazioak	14,5	21,3	48,4	17,8
Merkataritza-zerbitzuak	22,6	51,2	44,9	16,9
Hezkuntza, Osasuna, Gizarte Zerb.	61,4	44,3	52,2	34,6
Beste zerbitzu batzuk	146,5	44,8	63,6	19,3

Iturria: LMZ-Eskaria. 2008 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

Bajek establezimenduetako enpleguaren kudeaketan duten pisu gero eta handiagoarekin batera, eta hori garrantzitsua izanda ere, 2016 eta 2020 artean, alta-kopuruak apur bat behera egin du, lerro paraleloan, baina ez da oso garrantzitsua izan. Hartara, alta eta bajen arteko urteko saldo garbiak, saldo horrek urte bakoitzeko urriko enpleguan duen proportzioaren arabera neurtuta, bilakaera apur bat negatiboa erakusten du. 2012ko -% 3,2ko erorketaren ostean, saldo garbi positiboa % 6,5era igo da 2016an eta -% 0,3ra jaitsi da 2020an, hots, 2004ko % 1,6 eta 2008ko % 1,4 baino baxuago.

Kasu horretan, ia-ia orokorra da alta eta bajen arteko urteko saldoaren ildo negatiboa. 2008tik balio baxuena lortu du (-% 2,0) beste zerbitzu batzuetan, -% 1,4rekin industria metalikoan. Urteko saldo negatiboa -% 0,9 eta -% 0,2 artean dago manufaktura-industrian, merkataritzan, ostalaritzan eta konponketetan, eraikuntzan, eta garraioetan eta komunikazioetan. Hezkuntzaren, osasunaren eta gizarte-zerbitzuen adarrek balio positiboa (% 0,8) dute, bai eta merkataritza-zerbitzuen adarrak ere (% 0,4). Alten eta bajen arteko saldo garbi positibo hori garrantzitsuagoa da industria energetikoan, adar desberdinen balioa handiagoa izan baita (% 1,7).

Bilakaera oso heterogeneoa antzeman daiteke 2008 eta 2020 artean, enpleguaren urteko saldo garbiari erreparatuz gero, adar desberdinetan. 2008ko hezkuntzako, osasuneko eta gizarte-zerbitzuetako % 6ko saldoa askoz altuagoa da 2020an antzemandako kopuruak baino. Gainerako adarretan, aldakuntzak ez dira hain

nabarmenak. Horietako gehienak ehuneko bi ingurukoak dira. Alde positiboan, nabarmentzekoak dira beste zerbitzu batzuk (+% 2,4) eta alde negatiboan garraioak eta komunikazioak (-% 2,4) eta industria metalikoa (-% 2,4).

11.a taula

Azken urteko enplegu-saldo garbia (alta eta bajak), jarduera-sektoreka eta -adarra. 2008-2020
(Urte bakoitzeko urriaren 31n zegoen enpleguaren gaineko ehunekoa)

Jarduera-sektorea eta -adarra	2008	2012	2016	2020
GUZTIRA	1,4	-3,2	6,5	-0,3
Jarduera-sektorea				
Industria	0,4	-2,7	5,1	-0,8
Eraikuntza	-0,8	-9,9	6,3	-0,2
Zerbitzuak	2,2	-2,6	6,9	-0,2
Jarduera-adarra				
Energiaren ind. eta antzekoak	0,9	-5,8	-0,1	1,7
Ind. Metalikoa	1,0	-2,7	6,4	-1,4
Manufaktura-ind.	-1,4	-1,6	4,0	-0,2
Eraikuntza	-0,8	-9,9	6,3	-0,2
Merkat., ostal. eta konponk.	1,1	0,8	8,3	-0,9
Garraioak eta komunikazioak	1,7	-3,4	4,5	-0,7
Merkataritza-zerbitzuak	2,6	-12,3	4,9	0,4
Hezkuntza, Osasuna, Gizarte Zerb.	6,0	2,7	6,7	0,8
Beste zerbitzu batzuk	-4,4	-0,2	11,4	-2,0

Iturria: LMZ-Eskaria. 2008 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

Lanbide-kategoriaren arabera datuei jarraikiz, alten eta bajeen arteko saldoak onura txiki batzuk eragiten dizkie lan-eskalako erdiko parteko kolektiboari, 2020an.

2016. urtea baino lehen, lanbide-kategoria batzuetan ia ezezagunak ziren alta eta bajeen arteko saldo positibo handiak. 2020an, aurreko aldietako balio ertainak berreskuratu dira.

Hazkunde handiena langile teknikoei dagokie, 2020ko urriaren 31n zegoen enpleguaren % 0,8aren pareko saldo garbiarekin. Saldoa % 0,1ekoa da erdi-mailako kargudunen artean.

Saldoa negatiboa da zuzendaritzako langileen artean (-% 0,4) eta kualifikatutako lanak dituzten langileen artean (-% 0,3). Nabarmentzekoa da kualifikaziorik gabeko langileen -% 2,4a, 2012tik izandako balio txikiena baita.

11.b taula

Azken urteko enplegu-saldo garbia (alta eta bajak), lanbide-kategoriaren arabera. 2008-2020
(Urte bakoitzeko urriaren 31n zegoen enpleguaren gaineko ehunekoa)

Langile-mota lanbide-kategoriaren arabera	2008	2012	2016	2020
--	------	------	------	------

GUZTIRA	1,4	-3,2	6,5	-0,3
Zuzendaritza	0,3	-0,2	3,2	-0,4
Teknikaria	2,8	0,5	4,7	0,8
Erdi-mailako karguduna	1,7	-1,4	2,8	0,1
Administraria	2,9	-0,9	6,9	-0,1
Langile kalifikatua	0,6	-7,1	6,6	-0,3
Lang. ez-kalifikatua	2,3	-2,4	12,0	-2,4

Iturria: LMZ-Eskaria. 2008 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

Txandakatze-tasa (edo azken urteko alta-kopuruari dagozkion bajek urteko alta guztien gainean duten proportzioa) igotzea da 2016-2020ko aldiko beste alderdi negatibo bat. Txandakatze-tasa igotzeak, beraz, produkzio-sisteman alta-kopurua gutxiago finkatzea dakar.

Kontu horri dagokionez, 12.a taulak txandakatze-tasaren igoera handia erakusten du: 2008ko eta 2012ko % 65,9tik eta % 64,9tik 2016ko % 59,2ra eta 2020ko % 63,5era; proportzio hori, era berean, 2004koa (% 60,2) baino handiagoa da.

12.a taula

Txandakatze-tasa jarduera-sektorearen eta -adarraren arabera. 2008-2020
(Urteko alta-kopuruari dagokion baja-kopuruaren ehunekoa urteko alta-kopuruaren gainean)

Jarduera-sektorea eta -adarra	2008	2012	2016	2020
GUZTIRA	65,9	64,9	59,2	63,5
Jarduera-sektorea				
Industria	45,7	62,2	40,5	52,9
Eraikuntza	60,3	75,5	36,8	59,9
Zerbitzuak	69,0	64,5	62,1	65,1
Jarduera-adarra				
Energiaren ind. eta antzekoak	49,2	59,5	49,9	28,8
Ind. Metalikoa	38,9	53,2	35,0	52,1
Manufaktura-ind.	59,9	73,9	51,4	72,4
Eraikuntza	60,3	75,5	36,8	59,9
Merkat., ostal. eta konponk.	63,2	63,1	56,7	65,7
Garraioak eta komunikazioak	57,0	56,2	71,9	68,7
Merkataritza-zerbitzuak	45,5	67,0	62,8	60,4
Hezkuntza, Osasuna, Gizarte Zerb.	65,9	69,0	59,5	66,0
Beste zerbitzu batzuk	91,3	50,4	72,9	68,2

Iturria: LMZ-Eskaria. 2008 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

Kasu horretan, ordea, alde handiak daude jarduera-adarraren arabera. Alde batetik, 2004ari eta 2008ari dagokienez, txandakatze-tasak metalaren industrian, eraikuntzan eta adar hauetan baino ez dira jaisten: hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak. Energiaren industriaren kasuan eta antzekoetan, 2020ko txandakatze-tasa baxuena izan da 2008tik (% 28,8).

Manufaktura-industrian eta merkataritzan, ostalaritzan eta konponketetan, txandakatze-tasak gora egin du (% 72,4 eta % 65,7, hurrenez hurren), 2008arekin alderatuta. Beste zerbitzu batzuen tasak nabarmen egin zuen behera 2016 eta 2020 artean: hala ere, 2012ko gutxienekotik (% 50,4) 2020ko % 68,2ra pasatu zen.

Txandakatze-tasa ehuneko hiru inguru jaitsi zen garraio eta komunikazioen % 71,9ren aldean 2016an. Azken hori balio altuena zen, 2004 osteko aldian zehar. 2020ko % 68,7a askoz altuagoa da, bai 2008ko datuekin alderatuta, bai 2012ko datuekin alderatuta. Merkataritza-zerbitzuetan, aurreko urteko % 67tik % 62,8rako jaitsierak bere horretan jarraitzen du, hurrenez hurren, 2012 eta 2016 artean, % 60,4ra iritsirik 2016 eta 2020 artean. Energiaren industrian eta merkataritza-zerbitzuetan, ordea, jaitsiera izan zen 2016. urtean 2012an izandako gehieneko ehunekoekin alderatuta (% 59,5etik % 49,9ra eta % 67tik % 62,8ra hurrenez hurren, 2012 eta 2016 artean), baina 2016ko garraio eta komunikazioetako ehunekoa (% 71,9) handiena da 2004tik aurrerako aldian.

Lanbide-kategoriaren arabera txandakatze-tasak erakusten ditu 12.b taulak. Tasa horien igoera oso nabarmena ageri da zuzendarien eta teknikarien artean, aurreko urte guztiekin alderatuta. 2020an, zuzendaritzako langileen % 41,9k kategoria horretako baliorik altuena osatzen du 2008tik. Langile teknikoen artean, 2008an soilik dago erregistro altuagoa. 2012ko % 25,8tik urrun badago ere, 2020ko ehunekoa (% 39,9) erregistro altuena da 2008tik erdi-mailako kargudunen kasuan. 2016ko % 58,9tik gorakoa izan arren, kualifikaziorik gabeko lanak dituzten langileen arteko 2020ko ehunekoak (% 60,1), halaber, adierazten du jaitsiera nabarmena izan dela 2008ko % 80tik.

Era berean, lan kualifikatua duten langileen txandakatze-tasak handiagoak izaten jarraitu zuten 2020. urtean 2008an baino. Ildo positibo horretan, gainera, ia ez ziren aldatu 2012ko gehienekoekin alderatuta. Bestalde, administrazioa langileen arteko txandakatze-tasa 2016 eta 2020 artean % 56,4tik % 48,7ra jaitsi zen.

12.b taula

Txandakatze-tasa lanbide-kategoriaren arabera. 2008-2020

(Aldi horretako alta-kopuruari dagokion baja-kopuruaren ehunekoa aldi horretako alta-kopuruaren gainean)

Langile-mota lanbide-kategoriaren arabera	2008	2012	2016	2020
GUZTIRA	65,9	64,9	59,2	63,5
Zuzendaritza	17,4	19,6	10,1	41,9
Teknikaria	66,0	48,4	43,9	62,1
Erdi-mailako karguduna	25,8	36,6	34,4	39,9
Administraria	39,4	58,5	56,4	48,7
Langile kalifikatua	58,8	67,9	67,2	67,9
Lang. ez-kualifikatua	80,0	71,5	58,9	60,1

Iturria: LMZ-Eskaria. 2008 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

2.3. Aldi baterako kontratazioa nagusitzen da, eta apur igotzen da haren eragina,

bereziki eta indar biziz zuzendaritzako langileen artean

Aldi baterako kontratazioak erabakigarria izaten jarraitzen du, baina enplegu-dinamikari buruzko datuek adierazten dute nolabait egonkortu egin dela kontratazio-modu horretara masiboki jotzea. Bi alderdi garrantzitsutan ikus daiteke aldaketa hori.

Alde batetik, 2016 eta 2020 artean askoz eragin handiagoa izan zuen aldi baterako enpleguak mugagabe bihurtzeko prozesuak. Horren adierazgarri, 2020an handitze deigarria izan zuen azken urtean mugagabe bihurtutako aldi baterako enpleguen pisu erlatiboak. Enplegu mugagabe guztien gainean, aldi baterako enpleguak mugagabe bihurtzetik eratorrikoak 2012an % 2,4 izatetik 2016an % 8,1era pasatu dira eta 2020an % 7,6ra. Maila horrek argi eta garbi gaitzen du 2008ko % 3,4a eta 2004ko % 4,3a.

Bestalde, aldi baterako kontratazioak nabarmen nagusi izaten jarraitzen du, eta ikusten da 2016 eta 2020 artean kontratazio-mota hori apur bat igo dela establezimenduetako azken urteko alden dinamikan. Hartara, 2004ko % 87,6tik 2012ko % 91,3ra etengabe gehitu ondoren, proportzioa % 82ra jaitsi zen 2016an eta % 83,1ean egonkortu zen 2020an.

2016-2020 aldiko igoera gogorrenak zuzendaritzako langileen artean daude (% 6,8tik % 60,7ra). Ehuneko altuena da 2004tik, eta, gainera, erakusten dute kasu horietan kontratazio mugagabearen nagusitasuna oso argia dela. Igoerak egon dira, era berean, langile teknikoen eta kualifikatutako langileen artean.

Aldi baterako kontratazioa nagusi izan arren erdi-mailako kargudunak alde batera utzita, 2004. urtetik 2020an izan zen inoiz baino txikiagoa kontratazio-modu hori kategoriatan. Langile teknikoen edo langile kualifikatu/ez-kualifikatuen artean, aldi baterako kontratazioaren pisua % 82,4 eta % 85,8 artekoa izan zen 2020an. Administrazioa langileen artean, jaitsiera % 8,5ekoa da. Erdi-mailako kargudunen ostean, horixe da balio txikiena duena.

13. taula

Aldi baterako kontratazioak aztergai den aldi honetako alta-kopuruan duen pisua, lanbide-kategoriaren arabera (Ehunekotan)

Langile-mota lanbide-kategoriaren arabera	2004	2008	2012	2016	2020
GUZTIRA	87,6	88,1	91,3	82,0	83,1
Zuzendaritza	36,8	30,6	31,2	6,8	60,7
Teknikaria	91,4	86,2	85,9	81,1	82,4
Erdi-mailako karguduna	58,7	54,0	60,7	39,4	34,2
Administraria	79,8	81,3	86,2	76,7	68,2
Langile kalifikatua	86,4	84,7	92,9	84,0	85,8
Lang. ez-kualifikatua	89,7	95,0	94,5	86,1	83,8

Iturria: LMZ-Eskaria. 2008 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

3. EGITURAZKO JOERA GARRANTZITSU BATZUK

3.1. Handitu egin da 30 ordutik beherako enpleguaren pisu erlatiboa

Enplegu-modalitate espezifiko batzuei erreparatzeari, ikusten da lehen aldiz joera historiko batzuk jaitsi egin direla EAEko produkzio-sistemaren egiturazko osaeran. Eten den joeretako bat da denbora partzialeko enpleguaren garrantzi erlatiboa. LMZ-Eskariaren kasuan, enplegu hori da asteen 30 ordu edo gutxiago irauten duena (egoera zehatz batzuk kontuan hartu gabe; adibidez, enplegua erregulatzeko espedientea egotea).

2004. urtean enplegu guztien % 10,5 izan ondoren, denbora partzialeko lanaren pisua % 12,1era igo zen 2008an, % 14,3ra 2012an eta % 19,3ra 2016an. 2016-2020an, behera egin zuen lanaldi-mota horrek: % 18,1. 2016 eta 2020 artean ehunekoetan egon den jaitsiera 2000. urtetik antzemandako lehena da.

Hirugarren sektorean lan-modalitate honetan jaitsiera nabarmena egon da. Kasu honetan, 2008ko % 15,9tik 2012ko % 18,3ra eta 2016ko % 24,5era igo zen. Aitzitik, ia ehuneko bi jaitsi da 2016 eta 2020 artean, % 22,7ra.

2016-2020 aldi horretan, ehunekoen jaitsiera handiena, 6 puntu ingurukoa, hezkuntzaren, osasunaren, eta gizarte-zerbitzuen adarretan gertatu da, % 23,5era iritsi arte. Adar horietan denbora partzialeko lanaldia 2004ko % 17,9tik 2008ko % 19,3ra igo zen, baina zertxobait jaitsi 2012an, % 19ra arte. Hala ere, 2016an gehikuntza konparatiboki oso handia izan zuen % 29,4ra iritsi arte (urte horretako mailarik handiena, jarduera-adarren arabera).

Merkataritza, ostalaritza eta konponketen kasuan, 2004ko eta 2008ko % 15,9tik hasita, lanaldi-mota horren igoera etengabea izan da: 2012. urtean, % 20,3; 2016an, berriz, % 25,9. 2020an, bestalde, % 23,2ra murriztu da.

Beste zerbitzu batzuen adarrean, enplegu-mota honen proportzioa % 30,6koa da, hots, serie historikoko baliorik altuena. Merkataritza-zerbitzuetan ere gaitzen da 30 orduko edo ordu gutxiagoko enpleguaren % 20a, zehazki % 20,8rekin, 2016. urtean % 21,5 izan baitzen. Kasu honetan, goranzko ildo jarraitua finkatu da 2004ko 12,9tik, 2008ko % 14,8tik eta 2014ko % 17,7tik.

Garraio eta komunikazioen adarretan, lanaldi-mota honen gaineko eragina askoz handiagoa da. 2004an eta 2008an % 5,5-%6 artekoa izatetik, 2016an % 11,1ekoa izan da eta azken aldi honetan % 16,9koa.

30 orduko edo ordu gutxiagoko enpleguaren proportzioa apur bat igo da industria-adarretan eta eraikuntzan. 2020ko gutxienekoa, % 4,5, metalaren industriari egokitu zitzaion, eta energiaren industriaren eta manufaktura-industriaren ehunekoak 8,3 eta 8,7 izan ziren. Eraikuntzan proportzioa % 6 izan zen, baina, zerbitzuetatik kanpo, adar horretan handitu zen gehien denbora partziala 2008 eta 2020 artean (2008an, % 3,4). Izan ere, zerbitzuetatik kanpo, lanaldi hori 2004tik etengabe hedatu den esparru bakarra da. Industria-adarretan, hizpide dugun lanaldi murriztuaren pisuan gorabeherak izan dira, are, oraindik orain, igoerak ere. Hartara, 2016 eta 2020 artean, aztertutako lanaldiaren proportzioa % 7,4tik % 8,3ra jaitsi zen industria energetikoan, eta, are nabarmenago manufaktura-industrian: % 7,5etik % 8,7ra.

14. taula

Denbora partzialeko (<=30 ordu) enpleguaren pisua, jarduera-sektore eta -adarraren arabera
(Enplegu osoaren ehunekotan)

Jarduera-sektorea eta -adarra	2004	2008	2012	2016	2020
GUZTIRA	10,5	12,1	14,3	19,3	18,1
Jarduera-sektorea					
Industria	3,1	5,3	5,7	5,5	5,9
Eraikuntza	2,3	3,4	4,9	6,0	6,2
Zerbitzuak	15,3	15,9	18,3	24,5	22,7
Jarduera-adarra					
Energiaren ind. eta antzekoak	2,7	5,2	9,4	7,4	8,3
Ind. metalikoa	3,0	4,6	4,7	4,5	4,5
Manufaktura-ind.	3,5	7,2	6,9	7,5	8,7
Eraikuntza	2,3	3,4	4,9	6,0	6,2
Merkat., ostal. eta konponk.	15,9	15,9	20,3	25,9	23,2
Garraioak eta komunikazioak	5,5	6,0	7,3	11,1	16,9
Merkataritza-zerbitzuak	12,9	14,8	17,7	21,5	20,8
Hezkuntza, Osasuna, Gizarte Zerb.	17,9	19,3	19,0	29,4	23,5
Beste zerbitzu batzuk	24,6	21,9	23,2	26,8	30,6

Iturria: LMZ-Eskaria. 2008 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

Lanaldiaren murrizketa-prozesuez gain, LMZ-Eskariak lanaldia murrizten laguntzen duten beste elementu batzuk ere aztertzen ditu, eta bereziki aipatzen ditu enplegua erregulatzeko espedienteek lotutako murrizketa modalitateak, azterketa horretan sartuta aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak. Ekonomiaren susperraldiak, kasu honetan, itxuraz hobekuntza nabarmena ekarri du, eta eragindako enpleguen proportzioa 2012ko % 4,1etik 2016ko % 1,7ra eta 2020ko % 0,6ra jaitsi da. Hala ere, kontuan hartu behar da COVID-19ak euskal ekonomian duen eragina, aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente ugari egon baitira 2020an; % 6,7, hain zuzen ere.

Aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen eragin hori bereziki deigarria da industrian, adierazlea % 9,8ra iristen baita, hau da, eraikuntzako % 1,6a baino nabarmen altuago. Zerbitzuen kasuan, ehuneko hori batez bestekotik hurbil dago, % 6,2rekin.

Enplegu-erregulazioko espedienteetara mugatzen bagara, eragin hori deigarria da industrian ere. Sektore hori 2012ko % 10,2tik 2016ko % 3,3ra eta 2020ko % 1,4ra pasatu da. Bestalde, ez da esanguratsua eraikuntzan (2012an % 4,2 izatetik, 2016an % 0,8 eta 2020an % 0 izatera). Azkenik, zerbitzuetako murrizketa % 2,1ekoa da 2012an, % 1,3koa 2016an eta % 0,5ekoa 2020an.

Adarrei dagokienez, enplegu-erregulazioko espedienteen beheranzko joera nabarmen deigarria da industria metalikoan, % 3,9tik % 1,6ra jaitsi baita 2016 eta 2020 artean. Gainerako adarretan, erorketa ehuneko bat altuagoa da manufaktura-industrian, industria energetikoan eta, hezkuntzan, osasunean eta gizarte-zerbitzuetan.

Aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientei dagokienez, eragina % 10etik gorakoa da merkataritzan, ostalaritzan eta konponketetan (% 13,3), industria metalikoan (% 11,5), eta beste zerbitzu batzuetan (% 10). Aitzitik, eragina askoz txikiagoa da, puntu bat ingurukoa, eraikuntzan (% 1,6), eta hezkuntzaren, osasunaren eta gizarte-zerbitzuen adarrean (% 1,1).

3.2. Emakumeek enpleguan duten parte-hartzearen hazkundera eten egin da, baina ez modu orokortuan

2016 eta 2020 artean, emakumeek EAEko enplegu produktiboan betetzen duten rola finkatu egin da. Emakumeek betetako lanpostuen proportzioa % 32,8 zen 1996an, eta etengabe handitu zen 2020ko % 45era iritsi arte. 2008-2012 aldiaren ostean, non igoera apur bat moteldu baitzen (ehuneko 1,7, 2008ko % 40,7tik 2012ko % 42,4ra), 2012-2016 aldiak berriz abiarazi zuen prozesua, ehuneko 2,6ko igoera eraginik 2016ko eta 2020ko % 45era arte (emakumeen enpleguaren pisu erlatiboaren hazkunde handieneko bi aldietako –1996-2000 eta 2004-2008– ehuneko 2,9ko igoerak baino apur bat beherago soilik).

Zerbitzuetan jaitsiera arin bat antzeman da. Sektore horretan, emakumearen pisua enplegu sektorialean 2004tik nagusi izatea ekarri zuen aldaketa kualitatiboa sakondu zen 2016an. Hala ere, zerbitzuetan, emakumeen enpleguaren proportzioa % 54,9 izan zen 2020an; hots, 2016ko ehunekoa baino bi hamartar gutxiago, baina 1996ko % 45,4a baino ia hamar puntu gehiago.

Gainerako sektoreetan, 1996tik izandako gehikuntzek ez dute ahalbidetzen emakumeek enpleguan duten presentzia oraindik ere oso txikia gaintitzea (% 10,1 eraikuntzan eta % 21,6 industrian). Hala ere, deigarria da goranzko joerak eutsi diola industriaren sektorean, % 21,6raino, azken hori izanik baliorik altuena serie historikoan. Eraikuntzaren sektorean, bestalde, 2020ko erregistroek beheranzko joera argia islatzen dute 2016ko mailen aldean, urte horretako % 11,9tik.

15. taula

Emakumeen enpleguaren garrantzi erlatiboa jarduera-sektorearen arabera. 1996-2020

(Enplegu osoaren ehunekotan)

Sektorea	1996	2000	2004	2008	2012	2016	2020
GUZTIRA	32,8	35,7	37,8	40,7	42,4	45,0	45,0
Industria	14,9	17,3	18,6	19,9	20,5	20,5	21,6
Eraikuntza	6,0	7,7	8,4	11,6	12,0	11,9	10,1
Zerbitzuak	45,4	48,3	51,3	52,9	53,3	55,1	54,9

Iturria: LMZ-Eskaria. 1996 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

Era berean, jarduera-adarren arabera azterketak adierazten du ildo askotarikoa dela, 2012 eta 2016 artean antzemandakoaren aldean. Aldi horretan, enpleguaren banaketan izandako egiturazko ondorioen emaitza zen neurri handi batean emakumezkoen enpleguan aurreratze sektoriala zertzen ari zelako irudia. Hala, emakumeek jarduera-adarren arabera enpleguan duten pisuaren bilakaerari buruzko azterketak igoera nabarmenak islatzen zituen garraio eta komunikazioetan (+4,1 puntu) eta hezkuntzaren, osasunaren eta gizarte-zerbitzuen adarretan (+2,9 puntu).

2016 eta 2020 artean, emakumeen enpleguaren aurrerakadak hainbat jarduera-adarri eragin zien. Igoerarik handiena industria metalikoan dago, emakumeak adar honetan duen pisua % 2tik % 18,4ra igoz, eta, hala, 2012-2016 aldiko % 16,4ko erorketen osteko susperraldia berreskuratuz.

Emakumeen partaidetzaren igoera % 0,4koa da hezkuntzan, osasunean eta gizarte-zerbitzuetan, 2008 eta 2020 artean % 69,6tik % 72,9ra pasatuta. Gehikuntza 0,3 puntutik 0,9 puntura artekoa da manufaktura-industrian eta energiaren industrian. Emakumeen parte-hartzea 2020an handiena izan arren, ez da % 30,8tik eta % 21,2tik gorakoa kontuan izandako bi industria-motetan.

Merkataritza-zerbitzuetan, jaitziera txiki bat egon da: emakumeen parte-hartzea % 49,9tik % 49,6ra erori da 2016 eta 2020 artean. Jaitziera hori, ordea, kualitatiboki garrantzitsua da, enpleguaren banaketa zuzenetik urruntzea eragiten duelako.

Eraikuntza eta merkataritza, ostalaritza eta konponketen adarretan, emakumeen enpleguaren proportzioak nabarmen behera egin du. Azken adar horietan, 2020ko % 50,6ko proportzioa, nolana ere, enpleguan emakumeen pisu handiagoa finkatu arren, mailarik baxuena da 2008. urteaz geroztik. Berebat gertatzen da merkataritza-zerbitzuetan, 2020ko % 49,6ko proportzioa handiena baita 1996tik, 2016ko % 49,9koa salbuespena izanik.

Joerarik txarrena beste zerbitzu batzuei dagokie, etengabe behera egin baitzuten 2008ko % 61,4tik 2020ko % 56,2ra (are 2004ko % 59,1etik behera ere). Hala ere, adar horretan nagusi da argi eta garbi emakumeen enplegua, proportzioak askoz handiagoak direlako 1996ko eta 2000ko % 51,8ko eta % 52,7ko mailak baino.

16. taula

Emakumeen enpleguaren garrantzi erlatiboa jarduera-adarraren arabera. 1996-2020

(Enplegu osoaren ehunekotan)

Jarduera-adarra	1996	2000	2004	2008	2012	2016	2020
GUZTIRA	32,8	35,7	37,8	40,7	42,4	45,0	45,0
Energiaren ind. eta antzekoak	11,8	13,3	17,8	19,2	18,5	20,3	21,2
Ind. metalikoa	12,6	14,5	15,7	17,5	17,5	16,4	18,4
Manufaktura-ind.	21,1	25,3	25,4	26,6	29,1	30,5	30,8
Eraikuntza	6,0	7,7	8,4	11,6	12,0	11,9	10,1
Merkat., ostal. eta konponk.	39,4	45,0	50,8	50,4	51,6	51,4	50,6
Garraioak eta komunikazioak	28,0	15,8	20,7	24,2	22,4	26,5	20,7
Merkataritza-zerbitzuak	37,8	45,2	45,2	49,2	49,2	49,9	49,6
Hezkuntza, Osasuna, Gizarte Zerb.	66,2	68,1	69,7	70,4	69,6	72,5	72,9
Beste zerbitzu batzuk	51,8	52,7	59,1	61,4	60,9	60,5	56,2

Iturria: LMZ-Eskaria. 1996 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

Emakumeen enpleguaren pisu gero eta handiagoa oro har moteltzen bada ere 2016 eta 2020 artean, 16. taulan lanbide-kategoriaren arabera dinamika aztertzean, zenbait ñabardura egin behar dira.

17. taula

Emakumeen enpleguaren garrantzi erlatiboa lanbide-kategoriaren arabera. 1996-2020

(Enplegu osoaren ehunekotan)

Langile-mota lanbide-kategoriaren arabera	1996	2000	2004	2008	2012	2016	2020
GUZTIRA	32,8	35,7	37,8	40,7	42,4	45,0	45,0
Zuzendaritza	31,0	30,6	30,2	28,8	32,6	31,8	33,7
Teknikaria	40,7	47,4	47,8	49,4	50,0	51,9	54,2
Erdi-mailako karguduna	15,7	15,6	21,8	25,2	30,4	30,9	35,6
Administraria	63,8	68,1	71,5	76,5	72,4	71,5	71,9
Langile kalifikatua	24,0	26,4	30,8	33,2	33,4	38,1	37,9
Lang. ez-kalifikatua	30,5	34,9	34,8	42,1	48,1	47,9	47,0

Iturria: LMZ-Eskaria. 1996 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

Alde batetik, adierazitako aldian, oraindik ere ikusten da lanbide-kategoria kualifikatueta (teknikariak eta erdi-mailako kargudunak) emakumezkoen enpleguaren pisu erlatiboaren joera hedakorra. Kolektibo teknikoaren kasuan, 2020an izan zen nagusi argi eta garbi emakumeen pisua enpleguak sexuen arabera izandako banaketan. Hartara, 2012an eta 2016an % 50,0 eta % 51,9 artean egon ondoren, emakumeen proportzioa % 54,2ra iritsi zen kolektibo teknikoan 2020. urtean.

Erdi-mailako kargudunen kolektiboan, emakumeen kasuan, mailen aurrerapena 1996an, ozta-ozta zen % 15ekoa eta 2000an % 30,9koa, baina, ondoren, 2016an, igo egin zen, 2020ko % 35,6ko igoera handia izan arte. 2016-2020 artean, langile kualifikatuaren artean jaitsiera txiki bat egon da, 2016ko gehieneko baliotik (% 38,1) 2020ko % 37,9ra. Bi lanbide-kategoria horietan, zuzendaritzako kategoriarekin batera, oraindik ere nabarmena da emakumeen kalterako desoreka.

Guztiz bestela gertatzen da administrazio-arloko langileei dagokienez, emakumeak % 71,9 baitziren 2020an. Hala ere, emakumeek lanbide-kategoria honetan duten parte-hartzeak etengabe jaisteko zuen joera eten da, 2008an parte-hartze handiena (% 76,5) izan ondoren.

Kualifikatu gabeko langileen artean, 2020an jaitsi egin zen emakumezkoen pisua, % 47,0 izan baitzen, 2016an (% 47,9) baino bederatzi hamarren gutxiago. 2020ko ehunekoak orekatik hurbil jarraitzen du enpleguaren banaketan, baina, gainera, edozeinetara ere, 1996 eta 2004 artean zeuden % 35etik beherako mailetatik urrun dago.

Generoaren arabera desparekotasun-arazo handiena zuzendarien artean gertatzen da. Kasu honetan, ikusten ari zen emakumeak enpleguan zuen pisua pixka bat baina etengabe jaisten ari zela 1996 eta 2008 artean (1996. urtean, % 31; 2008an, berriz, % 28,8). Hala ere, 2008 eta 2012 artean, lehenengo aldiz egin zuen gora emakumeen pisuak zuzendarien artean (% 28,8tik % 32,6ra). Joera hori hautsi egin zen 2016an, % 31,8rekin, eta 2020an finkatu egin zen, % 33,7an. Balio hori serie historikoko altuena da. Lanbide-kategoria horretan baino ez dira emakumeak 2020an enplegatutako biztanleen herena soilik.

Bestalde, eta 2012 eta 2016 artean antzeman zen bezala, establezimenduaren arabera bilakaerak erakusten du kasu batzuetan egin zuela gora 2020an emakumeek enpleguan duten parte-hartzeak. Hazkunderik handiena ekonomia sozialeko establezimenduen esparruan ikusten da, bai eta hurbileko tipologietan ere. Kasu

horretan, emakumeen pisuaren etengabeko gehikuntzak ekarri du emakumeak nagusi izatea 2020an, enpleguaren % 54,8arekin. Lerro bera antzeman daiteke emakumeek sektore publikoan duten enpleguaren pisuan. 2008 eta 2012 artean txikitu ondoren, parte-hartzea % 72,5etik % 67ra erorita, esparru sektorial honetako emakumeen nagusitasuna berriz berretsi zen, nabarmen handituta % 72,4ra arte. Emakumeen parte-hartzeak 1996tik izandako proportzio handiena izan zen.

Bestalde, lehen aldiz eten da enpleguaren igoera osoa pertsona fisikoen establezimenduetan eta sozietate pribatuetan. 2020ko partaidetza-maila % 39,7ra jaitsi da, 2016ko % 42tik. Ondorioz, oreka lortzetik urrun dago.

18. taula

Emakumeen enpleguaren pisu erlatiboa establezimendu-motaren arabera. 1996-2020
(Enplegu osoaren ehunekotan)

Establezimendu-mota	1996	2000	2004	2008	2012	2016	2020
GUZTIRA	32,8	35,7	37,8	40,7	42,4	45,0	45,0
Sektore publikoko sozietateak eta administrazioa	65,1	70,0	71,6	72,5	67,0	71,6	72,4
Ekonomia soziala eta beste batzuk	45,4	39,8	42,8	42,7	51,9	52,1	54,8
Pertsona fisikoak/ Sozietate pribatuak	28,9	32,0	34,6	37,9	38,3	42,0	39,7

Iturria: LMZ-Eskaria. 1996 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

3.3. Gazteek enpleguan duten presentziak jaisten jarraitzen du

2008 eta 2012 arteko jaitsiera handiaren ondoren, eta 2012 eta 2016ko jaitsiera neurtuagoren ostean, gazteek produkzio-sisteman duten parte-hartzea murrizteko joera areagotu egin da. Immigrazioa gorabehera, dinamikak bere horretan jarraitzen du. Hartara, 35 urtetik beherakoek enplegu osoan duten presentzia 2004 eta 2008 artean % 34,2tik % 30,4ra eta 2016an % 22,5era arte jaitsi ondoren, beste gutxieneko batera murriztu zen 2020an, % 19,3ra.

Nolanahi ere, bilakaera hori bat dator adin horietako biztanle guztien kopurua etengabe gutxitzearekin; izan ere, jaiotza-kopurua guztiz jaitea da laurogeiko eta laurogeita hamarreko urteetako EAEko gizartearen ezaugarri bat.

2016 eta 2020 artean, aipatutako dinamika geratu da adar guztietan, antzeko ehunekoan. Jaitsierarik handiena merkataritzan, ostalaritzan eta konponketetan egon da. Bertan, 35 urtetik beherako pertsonen partaidetza 2016an % 26,0 izatetik 2020an % 21,9 izatera pasatu da.

19. taula

35 urtetik beherako pertsonen enpleguaren pisu erlatiboa, jarduera-sektorearen eta -adarraren arabera. 2000-2020
(Enplegu osoaren ehunekotan)

Jarduera-sektorea eta -adarra	2000	2004	2008	2012	2016	2020
GUZTIRA	36,4	34,2	30,4	23,2	22,5	19,3
Jarduera-sektorea						

Industria	36,8	35,1	30,1	22,0	20,7	17,4
Eraikuntza	35,7	33,7	28,0	18,9	16,9	14,0
Zerbitzuak	36,3	33,9	30,8	24,0	23,5	20,4

Jarduera-adarra

Energiaren ind. eta antzekoak	30,5	25,9	23,7	17,6	15,9	12,7
Ind. metalikoa	38,5	37,3	31,9	23,3	22,2	18,2
Manufaktura-ind.	36,5	33,2	27,3	20,2	18,7	17,6
Eraikuntza	35,7	33,7	28,0	18,9	16,9	14,0
Merkat., ostal. eta konponk.	37,6	35,9	33,0	26,7	26,0	21,9
Garraioak eta komunikazioak	28,8	27,5	25,9	16,0	14,7	12,4
Merkataritza-zerbitzuak	42,2	39,9	34,0	25,1	21,8	18,2
Hezkuntza, Osasuna, Gizarte Zerb.	31,0	24,5	23,9	20,5	23,3	21,6
Beste zerbitzu batzuk	40,9	39,5	35,0	29,7	28,6	24,6

Iturria: LMZ-Eskaria. 2000 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

2012ra arte, gazteenek enpleguan zuten pisu erlatiboaren jaitsiera zuzenean lotzen zen bost urte baino denbora gehiagoz betetako enpleguen proportzioak gora egitearekin, EAEn joera hori izan baitzen 2000. urteaz geroztik. Eta hala, % 57,7tik % 62,6ra igo ondoren 2000 eta 2008 artean, egoera horretan zeuden pertsonen betetako enpleguen proportzioa are gehiago handitu zen 2008-2012an, azken urte horretan % 68,9 izan arte.

2012 eta 2016 artean, ordea, EAEko produkzio-sisteman 35 urtetik beherakoen pisuak jaisten jarraitzea ez zen lotu aipatu faktorearekin, bost urteko antzinatasuna edo handiagoa zuten enpleguen pisua lehenengoz murriztu baitzen 2000. urteaz geroztik. Izan ere, proportzioa 2012ko % 68,9tik 2016ko % 66,9ra jaitsi zen. 2020an, hala ere, ehuneko hori berreskuratu egin zen, % 67,2ra iritsi arte. Igoera neurtu horrek ez zuen berekin ekarri murriztea EAEko enpleguan 35 urtetik beherakoek zuten pisua jaisteko dinamika. Gainera, paradoxikoki, gazteen enpleguaren pisan jaitsiera handiena izan duen jarduera-eremua (merkataritza, ostalaritza eta konponketena, -% 4,1) da 2016 eta 2020 artean bost urtetik gorako antzinatasuna duen enpleguaren pisan igoera handiena izan duena (+% 2,5).

20. taula

Enpresan bost urteko antzinatasuna edo handiagoa duten enpleguen pisua, jarduera-sektoreka eta -adarka.
2000-2020
 (Enplegu osoaren ehunekotan)

Jarduera-sektorea eta -adarra	2000	2004	2008	2012	2016	2020
GUZTIRA	57,7	60,3	62,6	68,9	66,6	67,2
Jarduera-sektorea						

Industria	57,9	63,7	66,6	74,1	73,0	72,4
Eraikuntza	49,3	53,6	60,1	74,4	69,8	66,7
Zerbitzuak	58,6	59,8	61,5	66,5	64,5	65,7
Jarduera-adarra						
Energiaren ind. eta antzekoak	57,6	70,8	73,1	79,1	80,8	71,3
Ind. metalikoa	56,7	61,9	65,0	72,6	70,9	73,2
Manufaktura-ind.	60,5	65,2	68,7	76,2	75,3	70,8
Eraikuntza	49,3	53,6	60,1	74,4	69,8	66,7
Merkat., ostal. eta konponk.	56,6	57,9	61,5	66,1	61,3	63,8
Garraioak eta komunikazioak	69,4	68,5	68,9	72,8	72,3	72,7
Merkataritza-zerbitzuak	53,0	58,2	58,9	66,2	65,0	66,3
Hezkuntza, Osasuna, Gizarte Zerb.	63,2	61,9	62,3	64,7	65,7	66,4
Beste zerbitzu batzuk	54,3	56,6	59,2	67,5	63,5	61,8

Iturria: LMZ-Eskaria. 2000 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

Adierazlean egondako erorketarik handienak, % 9,5eko jaitsierekin, energiaren industrian eta antzekoetan egon dira, bai eta manufaktura-industrian ere, % 4,5eko jaitsierarekin.

Bestalde, merkataritza, ostalaritza eta konponketen lan-esparruetan eta beste zerbitzu batzuetan soilik izan da bost urtetik gorako antzintasuneko enpleguen pisua % 65etik beherakoa.

4. ETORKIZUNeko AUKERAK

4.1. Nabarmen berreskuratzen ari da sistemak lanpostu garbi gehiago sortzeko duen gaitasuna

Enpleguak EAEn izan zezakeen etorkizunari dagokionez, ikusten da ezen, 5 enplegutik gorako establezimenduetan, 2000. urtetik lanpostu berriak sortzeko gaitasunari dagokionez zegoen beheranzko ildoaz luzatzen zela 2012. urtean; are indartzen ere. Hartara, lantokiak lantalde egokienera hurbiltzeko prozesuan, EAEko establezimenduek lanpostuak emendatzeko proposatutako ikusbidea, 1996. urteko 12.917 enpleguetatik 2000ko 18.862 enpleguetara handitu ondoren, 16.551ra murriztu zen 2004. urtean, 13.008ra 2008an eta 6.831ra besterik ez 2012an.

2016an, egoera aldatu zen, eta EAEn ziharduten establezimenduek beren lantaldeak gorantz doitzeko gaitasuna erakutsi zuten, 12.380 enpleguren sorrera potentzialarekin. Hala ere, 2020an berriz ere atzerakada bat egon da, 10.142 enplegura. Datu hori serieko bigarren erregistro txarrena da.

Plantillak murrizteko aukerari dagokionez, jokabidea alderantziz izan da. Arriskuan dauden enpleguak luzaroan murriztu ondoren –2008an 15.067, 2012an 6.782 eta 2016an 3.731–, igoera bat egon da antzemandako azken aldian, 2020ko 4.782ra arte. 1996tik erregistratu den bigarren kopururik txikiena da.

Bost enplegutik gorako EAEko produkzio-zentroen lantalde egokienaren eredura hurbiltzeko ikuspegiaren barruan, doitze potentzialaren azken saldoa litzateke 2020an 5.360 enpleguko gehikuntza garbia izatea. Hazkunde-ikuspegi horrek 2012ko egonkortze-ildoaz finkatu du, orduko saldo positiboa 49 enplegukoa baino ez baitzen, eta 2016ko saldo positiboa 8.648 enplegukoa. Hala ere, 2004ko 9.156 enpleguetatik eta 2000ko 14.164 enpleguetatik urrun dago.

Plantillen egokitzapen potentzialari lotutako ikuspegiaren eta horien saldo garbi potentzialaren azterketa egin daiteke, sektoreen eta adarren arabera, 2004-2020 aldian, 21. taulan. Datuek adierazten dute aukerarik onenak zerbitzu-sektoreari dagozkioa, establezimenduak beren lantalde egokienaren eredura hurbiltzearen saldo potentziala 3.839 enplegu berri garbikoa izanik 2020an. Adierazitako zenbatekoak 2008ko 3.299 enpleguak eta 2012ko 245 enpleguak gaitzen ditu.

Zerbitzuen sektorearen barruan, egoerarik onena hezkuntzari, osasunari eta konponketei dagokie, 2.678 enpleguko saldo positiboarekin; hau da, 2004. urteko 2.164 enpleguak baino gehiago. Saldo positiboko beste 859 enplegu ikusten dira merkataritza-zerbitzuetan. Zenbateko hori, hala ere, 2016 urteko datuaren erdia da.

21. taula
Enpleguaren bolumenaren aldaketa, langile-kopuru egokiena lortzeko, jarduera-sektorearen eta -adarraren arabera. 2004-2020
(5 enplegutik gorako establezimenduak)

	Langile-kopuru egokiena 2004			Langile-kopuru egokiena 2008			Langile-kopuru egokiena 2012			Langile-kopuru egokiena 2016			Langile-kopuru egokiena 2020		
	Langile-kopurua handitzea	Langile-kopurua jaistea	Saldoa	Langile-kopurua handitzea	Langile-kopurua jaistea	Saldoa	Langile-kopurua handitzea	Langile-kopurua jaistea	Saldoa	Langile-kopurua handitzea	Langile-kopurua jaistea	Saldoa	Langile-kopurua handitzea	Langile-kopurua jaistea	Saldoa
Jarduera-sektorea eta -adarra															
Guztira	16.551	7.395	9.156	13.008	15.067	-2.059	6.831	6.782	49	12.380	3.731	8.648	10.142	4.782	5.360
Jarduera-sektorea															
Industria	5.699	4.635	1.064	4.317	10.672	-6.354	2.418	2.970	-552	2.687	1.432	1.255	2.442	1.606	836
Eraikuntza	2.762	486	2.277	1.826	829	997	977	621	357	894	338	556	910	227	684
Zerbitzuak	8.089	2.274	5.815	6.865	3.566	3.299	3.437	3.192	245	8.799	1.961	6.837	6.789	2.950	3.839
Jarduera-adarra															
Energiaren ind. eta antzekoak	339	371	-33	188	403	-215	109	301	-192	108	287	-180	115	37	78
Ind. metalikoa	4.053	3.488	564	3.368	7.772	-4.404	1.866	1.873	-8	1.989	886	1.103	1731	1120	611
Manufaktura-ind.	1.308	775	533	761	2.497	-1.736	443	795	-352	590	258	332	596	449	147
Eraikuntza	2.762	486	2.277	1.826	829	997	977	621	357	894	338	556	910	227	684
Merkat., ostal. eta konponk.	1.793	703	1.090	2.152	1.874	278	1.275	1.555	-280	3.992	804	3.189	1280	1411	-132
Garraioak eta komunikazioak	530	370	160	237	280	-42	163	403	-240	394	177	217	184	210	-26
Merkataritza-zerbitzuak	1.991	616	1.375	2.315	1.117	1.198	967	596	372	2.235	495	1.740	1417	559	859
Hezkuntza, Osasuna, Gizarte Zerb.	2.488	324	2.164	1.725	197	1.528	717	512	205	1.816	279	1.537	3303	625	2678
Beste zerbitzu batzuk	1.287	261	1.026	436	99	337	313	125	188	362	208	154	606	145	461

Iturria: LMZ-Eskaria. 2004 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

Zerbitzuetan, murrizketa arina etorriko dela ikusten da garraioetan eta komunikazioetan, saldoa -26 enplegu garbikoa baino ez izaki, 2016an positiboa izan ostean, 2008ko eta 2012ko ildo negatiboaren ondoren. Datu hori nabarmenagoa da merkataritzan, ostalaritzan eta konponketetan, -132 enplegu garbirekin. Balio hori 2016ko 3.189 enpleguen oso bestelakoa da.

Saldoa positiboa izanda ere, 461 enplegukoa, aurreikuspen onena beste zerbitzu batzuei dagokie, saldorik altuena lorturik 2004ko 1.026etatik.

Zerbitzuen sektoretik kanpo, bilakaerarik onena metalaren industriari dagokio, lantaldeen egokitzapen posibleari lotutako 611 enpleguko saldo positiboarekin. 2012an antzemandako egonkortzearen eta 2016ko 1.103 enpleguen datu altuaren ondoren, zenbateko hori 2008ko -4.404 enpleguko saldo negatiboaren oso bestelakoa da oraindik ere. 2020ko zenbatekoak, hala ere, murrizketa handia dakar 2016aren aldean.

Joera oso antzekoa da, baina ez hain bestekoa, manufaktura-industrian. Kasu horretan, 2008ko eta 2012ko saldo negatiboaren ordean 2016ko 332 enplegu berriren sorrera garbi potentzialaren ildo ezartzen da, 2020an 147 enplegu garbira jaisteko.

Industrian, aurreikuspenak lehen aldiz dira positiboak energiaren industrian, 78 enpleguko saldo garbiarekin. Hala ere, industriako adar guztien artean balio baxuena duena da.

Eraikuntzaren adarra da ikuspegi hobeak dituen hirugarren eremua, 684 enpleguko saldo garbiarekin, 2012ko eta 2016ko datuen gainetik, baina aurreko urteetako datuen azpitik.

4.2. Enpresak finantzatzeko testuinguru ez hain positiboa

4.2.1. Euskal establezimenduen posizio finantzarioak okerrera egin du

2012an, enpleguaren % 7,1ek lotura zuen EAEn finantzaketa-arazo larriak zituzten establezimenduekin, eta proportzioa hori handiagoa zen, % 18,0koa, arazo larriak bezala ertainak ere kontuan hartuta.

Egoera, 2012an, bereziki zaila zen eraikuntzaren esparruan, enpleguaren % 13,7 finantzaketa-arazo larriak zituzten zentroei lotuta zegoelako; % 28,4, ordea, erdibideko arazoak ere kontuan hartuta. 2016an, ordea, eraikuntzaren finantza-posizioak hobera egin zuen. Hartara, finantzaketa-arazo larriek edo erdibidekoek eragindako eraikuntza-establezimenduetako enpleguen proportzioak behera egin zuen % 28,4tik % 15,2ra 2012 eta 2016 artean (% 13,7tik % 3,7ra larritzat jotako arazoak kontuan hartuz gero).

Hirugarren sektorearen egoerak ere hobera egin zuen, finantzaketa-arazo larriek edo erdibidekoek eragindako enpleguen proportzioa murriztu ahala (% 14,5etik % 11,2ra; % 5,8tik % 2,9ra, berriz, arazo

larriei erreparatuz gero). Murrizketa horren aurrean, nahiko neurtua bera, industrian hobekuntza handiagoa igarri zen. Sektore horretan finantzaketa-arazo larriak edo erdibidekoak zituzten zentroetako enpleguen proportzioak behera egin zuen 2012ko % 25,0tik 2016ko % 16,6ra (% 8,7tik % 4,8ra arazo larriei dagokienez). Hobekuntza antzekoa zen 5 enplegutik gorako zentroetan (% 25,6tik % 16,7ra arazo larri edo erdibidekoekin; % 8,6tik % 4,9era arazo larriekin).

22.a taula

Finantzaketa-arazoak dituzten establezimenduak, jarduera-sektorearen eta finantzaketa-arazoaren larritasunaren arabera. 2012-2020
(Establezimenduetako enpleguaren ehunekotan)

Jarduera-sektorea	Ertain-larriak (%)			Larriak (%)		
	2012	2016	2020	2012	2016	2020
GUZTIRA	18,0	12,6	14,0	7,1	3,3	3,9
Industria	25,0	16,6	14,1	8,7	4,8	4,0
Eraikuntza	28,4	15,2	13,3	13,7	3,7	2,6
Zerbitzuak	14,5	11,2	14,1	5,8	2,9	3,9

Iturria: LMZ-Eskaria. 2012 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

22.b taula

Finantzaketa-arazoak dituzten bost lanpostutik gorako establezimenduak, jarduera-sektorearen eta finantzaketa-arazoaren larritasunaren arabera. 2012-2020
(Establezimenduetako enpleguaren ehunekotan)

Jarduera-sektorea	Ertain-larriak (%)			Larriak (%)		
	2012	2016	2020	2012	2016	2020
GUZTIRA	19,4	12,5	13,5	7,2	3,1	3,5
Industria	25,6	16,7	14,1	8,6	4,9	3,9
Eraikuntza	35,4	17,3	12,6	17,5	5,1	3,1
Zerbitzuak	14,9	10,4	13,3	5,5	2,2	3,4

Iturria: LMZ-Eskaria. 2012 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

22.c taula

Finantzaketa-arazoak dituzten bost lanpostutik beherako establezimenduak, jarduera-sektorearen eta finantzaketa-arazoaren larritasunaren arabera. 2012-2020
(Establezimenduetako enpleguaren ehunekotan)

Jarduera-sektorea	Ertain-larriak (%)			Larriak (%)		
	2012	2016	2020	2012	2016	2020
GUZTIRA	15,1	13,1	15,7	7,0	4,0	4,9
Industria	19,4	16,5	14,2	9,7	4,5	5,1
Eraikuntza	20,8	12,3	14,2	9,6	1,7	2,0
Zerbitzuak	13,8	12,8	16,0	6,3	4,2	5,2

Iturria: LMZ-Eskaria. 2012 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

2020ko datuak ez hain positiboak eta bestelakoak dira sektore-eremu desberdinetan. Hartara, eta oro har, finantzaketa-arazo larriak zituzten establezimenduetako enpleguaren proportzioa, 2016an % 3,3ra jaitsi ondoren, % 3,9ra igo da azken aldi honetan. Arazo ertainak eta larriak kontuan hartuta, igoera antzekoa da, % 3,1etik % 3,5era pasatzen baita.

Joera orokorra da, baina finantzaketa-arazo larriei lotutako aldaketak daude: enpleguaren % 2,6 eraikuntzan, % 4,0 industrian eta % 3,9 zerbitzuetan. Jaitsiera funtsezkoa da aurreko urteen aldean, industrian eta eraikuntzan, eta urte honetan igoera egon da zerbitzuetan.

22.a taulan ikusten den bezala, arazo larriek eta erdibidekoek eragindako enplegua kontuan hartuta ere dago beheranzko joera hori, industrian eta eraikuntzan bereziki. Industrian, 2020ko % 14,1eko proportzioa argi eta garbi txikiagoa da 2016ko % 16,6koa eta 2012ko % 25,0koa baino. Ildo beretik, eraikuntzako 2020ko % 13,3a askoz txikiagoa da 2012ko % 28,4a baino.

Bestalde, zerbitzuen sektorearen % 14,1ak igoera dakar 2016ko %11,2ren aldean. 22.c taulak erakusten duen bezala, horrek batez ere bost enplegutik beherako establezimenduei eragiten die. Kasu horretan, enpleguen % 16k lotura du finantzaketa-arazo larriak edo erdibidekoak dituzten zentroekin, eta proportzioa handiagoa da 2012ko % 13,8 edo 2016ko % 12,8 baino. Ildo beretik, 2020an arazo larriei lotuta zeuden enpleguen % 5,2a 2016ko % 4,2 baino altuagoa da, baina 2012ko % 6,3 baino beherago dago.

Zentro txikiagoetan, okertze hori begi-bistakoa da gainerako sektoreetan ere, baina baita ere arazo larrien eraginari dagokionez. Bestalde, hobekuntza argia egon da bost enplegutik gorako establezimenduetan, batez ere arazo larri eta erdibidekoen eraginari dagokionez.

Aitzitik, zerbitzuen kasuan okertzea begi bistakoa da. Enpleguen % 16k dute egoera hori, 2020ko arazo larrien eraginari dagokionez, 2012ko % 13,8ren eta 2016ko % 12,8ren gainetik, argi eta garbi. Arazo larrien kasuan, eragina ere igo da, ehuneko bat.

Kreditua lortzeak kostua dauka eta ez da unibertsala, eta arazoek eragin handiagoa daukate industriaren sektorean.

Kreditua lortzea, ordea, ez da unibertsala, are finantzaketa-arazo larriak izanda ere lantokietan.

23. taulak, zalantzarik gabe, adierazten du kreditua errazago lortzen dela finantzaketa-arazo larriak dituzten establezimenduen kasuan. Hartara, erreferentziazat hartuta finantzaketa-arazo larriak dituzten establezimenduei dagokien enplegua, oro har ikusten da 2020an enplegu horren % 67,2ak lotura zuela banku-sistemari egindako kreditu-eskaerak onartu zitzaizkien zentroekin, ehuneko hori 2016koa, % 52,4, baino handiagoa izanik. Hala ere, egiazta daitekeen bezala, arazo larriak dituzten zentroen kasuan onarpen-tasa oso urrun dago oraindik ere % 100etik.

Egonkortasun handiena industrian antzematen da, kreditua lortzen duten zentroei lotutako enpleguaren % 45,6arekin, 2016ko % 46,7ren oso antzera. Jaitsiera begi-bistakoa da eraikuntzan: 2016an enpleguaren % 56,2tik 2020ko % 10,3ra. Hobekuntza argia da, era berean, zerbitzu-sektorean. Sektore

horretan kredituaren lortze erlatiboa handiagoa da oraindik ere finantza-egoera larrietan. Enpleguaren % 74,2 dago egoera horretan 2020an, baina % 56,8, berriz, 2016an.

23. taula

Finantzaketa-arazo larriak dituzten establezimenduak, jarduera-sektorearen eta banku-mailegua lortzeko aukeraren arabera. 2012-2020

Datuak establezimenduetako enpleguaren arabera
(Onartutako eskaeren ehunekoa egindakoekin alderatuta)

Jarduera-sektorea	2012	2016	2020
Guztira	40,3	52,4	67,2
Industria	29,7	46,7	45,6
Eraikuntza	38,6	56,2	10,3
Zerbitzuak	48,2	56,8	74,2

Iturria: LMZ-Eskaria. 2012 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik. Onartutako eskaeren ehunekoa kalkulatzeko, kontuan hartzen dira egin direlako berri jakin eta ebatzitako eskaera guztiak.

Finantzaketa lortzeak, gainera, bere kostua dauka. 2020an, kostu hori txikia zen oro har, eta enpleguaren % 85,3k lotura zuen finantza-gastuei aurre egiteko negozio-zifraren % 5 baino gutxiago erabiltzen zuten establezimenduekin. Enpleguaren % 9,6, hala ere, beren negozioen zenbatekoaren % 5 eta % 14 artean gastu horietara bideratzen duten zentroei lotzen zaie; bestalde, beste % 5,1ak % 15a baino gehiago bideratzen du (% 2,5 da gastuen % 15 eta % 24 artean bideratzen duena eta % 2,6, aldiz, gastuen % 25etik gora bideratzen duena).

Finantzaketaren kostuak eragin handiagoa dauka eraikuntzaren esparruan. Hartara, enplegu industrialaren % 18,2 negozio-zifraren % 5eko finantza-gastua edo handiagoa duten zentroei lotuta dago, eta proportzio hori handiagoa da eraikuntzako % 17,7a eta zerbitzuetako % 13,5a baino.

Nagusiki, ordea, arazo ertainak, erdibidekoak dira, eta enplegu industrialaren % 12,9 negozio-zifraren % 5 eta % 14 arteko finantza-gastua duten zentroei lotuta dago, ehuneko hura eraikuntzan % 12,3 eta zerbitzuetan % 8,3 izanik. % 15etik gorako finantza-gastuei dagokienez, eragindako enpleguaren pisua antzekoa da hiru sektoreetan: % 4,7 industrian; % 5,9 eraikuntzan; eta % 5,2 zerbitzuetan. Errealitate horrek adierazten du finantza-hobekuntza gertatu zela industria- eta eraikuntza-sektoreetan, 2012an, konparatiboki, zegokien eragina askoz handiagoa izan ondoren².

² 2016an, enpleguaren % 5,1 lotuta zegoen finantza-gastuetan gutxienez negozio-zifraren % 15 erabiltzen zuten edo finantzaketa-arazo larriak edo erdibidekoak (finantza-egoera larria edo erdibidekoa) zituzten zentroei; hau da, egungo % 5,1a halakoa. Proportzioa % 1,8 baino ez zen, zentroen finantza-gastua negozio-zifraren % 25 edo hortik gorakoa izanez gero, edo finantzaketa-arazo larriak (finantza-egoera larria) edukiz gero. % 1,8 hori, gainera, egungo adierazle baliokidearen % 2,6tik oso gorakoa da.

24. taula

Establezimenduak, jarduera-sektorearen arabera eta finantza-gastuek egungo negozio-zifrarekiko duten pisua kontuan hartuta. 2020

Datuak establezimenduetako enpleguaren arabera
(Horizontalen ehunekoa)

Jarduera-sektorea	<% 5	% 5-14	% 15-24	% 25-49	> 50%
2020 Guztira	85,3	9,6	2,5	1,8	0,8
Industria	82,3	12,9	2,0	2,3	0,4
Eraikuntza	81,8	12,3	1,6	1,7	2,6
Zerbitzuak	86,5	8,3	2,8	1,6	0,8

Iturria: LMZ-Eskaria. 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

Kontuan hartuta bost enplegutik gorako zentroetako lanpostuak, ikusten da 2016an oraindik zeuden finantza-arazo larrien sorburu nagusia lotuta zegoela gehienbat banku-finantzaketa lortzeko zailtasunei. Hala ere, arrazoi hori bigarren mailara pasatu da, Covid-19aren zioz eskaria erori ondoren, 2020an % 57,4ra iritsita. Bankuko finantzaketa lortzea % 18,8ra erori da. Jaitsiera sektore guztietan gertatzen da, eta balio nagusia industriari dagokio, % 27,7 baita, Covid-19aren ziozko eskari-erorketaren % 59,7ren azpitik, argi eta garbi.

Funts propioen eskasiak indarra galtzen du, 2020an finantzaketa-arazo larriei lotutako enpleguen % 9,5aren jatorrian egon baitzen; beraz, 2012ko % 13,3aren eta 2016ko % 28,7aren oso azpitik. Jaitsiera bereziki deigarria da industrian, 2020. urtean proportzioa % 9,9 izan baitzen, hots 2016ko % 40,2 baino askoz baxuagoa. Dinamikak ez dio eraikuntzari eragiten: 2020an % 30,5 eta 2016. urtean % 30,3. Zerbitzuetako proportzioa (% 8,0), ordea, 2016koaren (% 18,3) eta 2012koaren (% 17,7) oso azpitik dago.

Era berean, garrantzi handia galdu du erakunde publikoak ordainketetan atzeratzeak, % 3,2 soilik izanik, 2016an nagusiki faktore horri lotutako arazo larriak dituzten enpleguen % 21,2ren aldean. Kasu horretan, problematika etengabe handitu zen 2008ko % 7tik. Ez dauka inolako eraginik ez industrian, ez eraikuntzan. Jaitsiera oso deigarria da eraikuntzan (% 30,2 2016an), baina agerikoa da zerbitzuetan ere (2020. urtean % 4,9; 2016an, berriz, % 36,7). Kontu horrek faktore problematiko nagusia izateari uzten dio finantza-arazo larriak dituzten zerbitzu-establezimenduetan.

25. taula

Finantzaketa-arazo larriak dituzten bost lanpostutik gorako establezimenduak, jarduera-sektorearen eta arazoen iturri nagusiaren arabera. 2012-2020

Datuak establezimenduetako enpleguaren arabera

(Urte bakoitzerako horizontalen ehunekoa)

	2012					2016					2020					
	Kanpoko finantzaketarako sarbidea (bankuak)	Berezko funtsen eskasia	Ez-ordaintzeak	Arazoak erakunde publikoekin (ordainketak)	Zehaztu gabe edo beste bat	Kanpoko finantzaketarako sarbidea (bankuak)	Berezko funtsen eskasia	Ez-ordaintzeak	Arazoak erakunde publikoekin (ordainketak)	Zehaztu gabe edo beste bat	Kanpoko finantzaketarako sarbidea (bankuak)	Berezko funtsen eskasia	Ez-ordaintzeak	Arazoak erakunde publikoekin (ordainketak)	Eskariaren erorketa COVID	Zehaztu gabe edo beste bat
Guztira	62,9	13,3	11,5	10,3	2,0	37,0	28,7	13,1	21,2	0,0	18,8	9,5	5,0	3,2	57,4	6,2
Industria	82,9	8,4	7,0	0,9	0,7	42,7	40,2	15,2	1,9	0,0	27,7	9,9	2,8	0,0	59,7	0,0
Eraikuntza	64,9	11,0	22,1	2,0	0,0	39,5	30,3	0,0	30,2	0,0	13,9	30,5	45,8	0,0	9,7	0,0
Zerbitzuak	47,5	17,7	11,4	19,8	3,6	31,6	18,3	13,3	36,7	0,0	15,1	8,0	3,5	4,9	59,3	9,3

Iturria: LMZ-Eskaria. 2012 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

Bezere partikularren ez-ordainketen pisuak eragina dauka, faktore nagusi gisa, finantzaketa-arazo larriak dituen enpleguaren % 5,0ean. Zenbateko hori apur bat jaitsi egin da 2016ko % 13,1etik. Ez-ordainketa horiek eragin askoz handiagoa daukate eraikuntzan (% 45,8), industriaren (% 2,8) eta zerbitzuen (% 3,5) aldean.

4.2.2. Errotik igo da enplegua galtzeko arriskua finantzaketa-arazoengatik, eta arazoei kontratazioa mugatzen jarraitzen dute

Oro har, finantzaketa-arazoei garrantzia areagotu dute EAEko produkzio-sisteman. 26. taulak erakusten duen bezala, oso esanguratsua da enplegua galtzeko arriskua finantza-arazoei ditzuten zentroetan, eta zentro horiek, 2020an, EAEko enplegu osoaren % 8,1 zuten. Proportzioak gora egin du, argi eta garbi, 2016ko % 5,4ren aldean, nahiz eta 2012ko % 9,7ren azpitik egon.

Proportziorik handiena, % 8,5, hirugarren sektoreari dagokio, industriako proportzioaren gainetik, % 7,1 baitu, eta esparru horretan, gainera, arriskua igo egin da 2016ko % 5,8tik, 2012ko % 10,8 baino beherago egon arren (% 5,1 eta % 8,5, hurrenez hurren, zerbitzuetan). Proportziorik baxuena eraikuntzari dagokio; % 6,8. Hala, argi eta garbi jaitsi da 2016ko % 8,3tik eta 2012ko % 16,2tik.

26. taula

Finantzaketa-arazoen eragina, jarduera-sektorearen arabera. 2012-2020

Enplegua galtzeko arriskua

Datuak establezimenduetako enpleguaren arabera

(Datu absolutuak eta eragindako establezimenduetako enplegu osoaren gaineko ehunekoa)

	2012		2016		2020	
	Enpleguak		Enpleguak		Enpleguak	
	Gutizkoaren		Gutizkoaren		Gutizkoaren	
Jarduera-sektorea	Abs.	%-a	Abs.	%-a	Abs.	%-a
Gutira	78.992	9,7	45.597	5,4	69.260	8,1
Industria	20.095	10,8	10.751	5,8	13.201	7,1
Eraikuntza	10.946	16,2	4.113	8,3	3.494	6,8
Zerbitzuak	47.951	8,5	30.732	5,1	52.565	8,5

Iturria: LMZ-Eskaria. 2012 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

Oharra: Establezimendu autonomoetan, aldi baterako itxeko arriskuan dauden kasuak jaso dira.

Okertze-ildo hori argia da, kontuan hartzen bada zein zen finantza-arazoen ondorioz desagertzeko arriskuan zeuden enpleguen kopurua. Aipatutako enpleguak 40.248 ziren 2012an, eta 2016an, arriskuan zeuden enpleguen kopurua izugarri murriztu zen, 17.160 izan arte. Hala ere, 2020an 33.066 enplegura igo da.

27. taula

Finantzaketa-arazoen eragina, jarduera-sektorearen arabera. 2012-2020**Finantzaketa-arazoak dituzten establezimenduetan arriskuan dauden enpleguak**

(Datu absolutuak, bertikalen ehunekoa eta ukitutako establezimendu guztien nahiz establezimendu guztien gaineko ehunekoa)

Jarduera-sektorea	2012				2016				2020			
	Arriskua n dauden enplegu ak	Guztiz koaren %-a	Eraginpeko establezime nduetako enplegu- ehunekoa	Establezime nduetako guztizko enpleguaren ehunekoa	Arriskua n dauden enplegu ak	Guztizk oaren %-a	Eraginpeko establezime nduetako enplegu- ehunekoa	Establezime nduetako guztizko enpleguaren ehunekoa	Arriskua n dauden enplegu ak	Guztizk oaren %-a	Eraginpeko establezime nduetako enplegu- ehunekoa	Establezime nduetako guztizko enpleguaren ehunekoa
Guztira	40.248	100	51,0	4,9	17.160	100	37,6	2,0	33.066	100	47,8	3,9
Industria	7.952	19,7	39,6	4,3	3.669	21,2	34,1	2,0	4.432	35,2	33,6	2,4
Eraikuntza	6.588	16,3	60,2	9,8	1.684	9,8	40,9	3,4	2.139	18,0	61,2	4,2
Zerbitzuak	25.708	63,9	53,6	4,6	11.807	69,0	38,4	1,9	26.495	46,8	50,4	4,3

Iturria: LMZ-Eskaria. 2012 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

Oharra: Aldi batez ixteko arriskuan dauden establezimendu autonomoetako enpleguak barruan sartzen dira.

Finantzaketa-arazoak dituzten establezimenduetako enplegu osoan desagertzeko arriskuan dagoen enpleguari dagokion proportzioa 2016 eta 2020 artean ere igo da. Zentro horietan, eta 2012 eta 2016 artean % 51tik % 37,6ra arte murriztu ondoren, arriskuan zeuden enpleguen proportzioa % 47,8ra igo da 2020an.

Arriskuan zeuden enpleguek enplegu osoan zuten pisu erlatiboa % 3,9 da 2020an, argi eta garbi 2016ko % 2,0ren gainetik. Proportzioak gora egin du industrian, 2016ko % 2,0tik % 2,4ra, nahiz eta 2012ko % 4,3ren azpitik egon, argi eta garbi. Eraikuntzan eta zerbitzuetan, arazoaren eragina 2012 eta 2016 artean murriztu egin zen (% 9,8tik % 3,4ra lehen kasuan eta % 4,6tik % 1,9era bigarreanean).

Hala ere, finantza-arazoen kontratazio berriak egiteko aukeran zuten eragin kaltegarriak iraun egin zuen, 28. taulan ikus daitekeen bezala. Errealitate horrek eragindako zentroek, 2020an, EAEko enpleguaren % 14,0 biltzen zuten. 2012. urteko % 15,6arekiko beheranzko joera izan arren, 2016an % 14,7 izan baitzen, ez zen oso nabarmena izan hobetzeko joera hori.

Joera sektorialak, gainera, desberdinak dira. Hobekuntza begi-bistakoa da industrian eta eraikuntzan. Industrian, eragindako zentroak 2012an enpleguaren % 20,7 eta 2016. urtean % 17 izatetik 2020an % 11,8 izatera aldatu ziren. Eraikuntzan, 2008 eta 2012 artean % 23,8ra handitu ondoren, proportzioa % 15,5era jaitsi zen 2016an eta % 12,0ra 2020an. Hala ere, 2012 eta 2016an % 14an egon ondoren, proportzioa % 14,9ra handitu zen 2020an. Urte horretan, sektoreen arteko aldeak, horrenbestez, mugatu egin ziren, eta industriako gutxieneko % 11,8 horren eta zerbitzuetako % 14,9aren arteko aldaketak izan ziren.

28. taula

Finantzaketa-arazoaren eragina, jarduera-sektorearen arabera. 2012-2020**Kontratazio berriak izateko aurreikuspenen jaitziera****Datuak establezimenduetako enpleguaren arabera**

(Datu absolutuak eta eragindako establezimenduetako enplegu osoaren gaineko ehunekoa)

	2012		2016		2020	
	Enpleguak		Enpleguak		Enpleguak	
	Gutizkoaren		Gutizkoaren		Gutizkoaren	
Jarduera-sektorea	Abs.	%-a	Abs.	%-a	Abs.	%-a
Gutira	127.245	15,6	124.012	14,7	120.407	14,0
Industria	38.531	20,7	31.222	17,0	22.017	11,8
Eraikuntza	16.050	23,8	7.686	15,5	6.167	12,0
Zerbitzuak	72.664	12,9	85.104	14,0	92.223	14,9

Iturria: LMZ-Eskaria. 2012 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

Arriskuan dauden enpleguen banaketa

Zerbitzuak izan ziren 2020an establezimenduaren finantzaketa-arazoaren ondorioz arriskuan zeuden enpleguak biltzen ziren esparru nagusia. Horretan lagungarria izan zen zerbitzuen sektorea nagusi

izatea EAEko enpleguaren egituran, baina bai eta azken urteetan industriaren eta eraikuntzaren posizio erlatiboa hobetzea ere. Hartara, 2012. urtean eta 2016. urtean, finantzaketa-arazoak zituzten establezimenduetan arriskuan zeuden enpleguen % 36,1 eta % 36,4 industriari eta eraikuntzari zegokien, baina proportzioa % 22,7ra murriztu zen 2020an.

Hortaz, zerbitzuek bildu zuten 2020an arriskuan zeuden 25.704 enpleguen % 77,2. Kontuan hartutako enpleguen % 51 honako adar hauei baino ez dagokie: merkataritzari, ostalaritza eta konponketei, eta merkataritza-zerbitzuei. Hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuen adarrak, beste zerbitzu batzuekin batera, beste % 20,3ko ekarpena egiten dute. Proportzio hori, zerbitzuetatik kanpo, % 12,1ekoa da industria metalikoan.

Hala ere, zehaztu behar da enplegu osoaren gaineko eraginak funtsean igotzeko joera izan zuela 2020an, eta guztizko sektorialaren % 3a, eraikuntzan, garraioan eta komunikazioan ez ezik (% 3,1), beste zerbitzu batzuen adarrean (% 6,6) baino ez zela gairitu.

29. taula

Finantzaketa-arazoen eragina jarduera-adarraren arabera. 2012-2020
Finantzaketa-arazoak dituzten establezimenduetan arriskuan dauden enpleguak
(Datu absolutuak, bertikalen ehunekoa eta establezimendu guztietako enpleguaren gaineko ehunekoa)

Jarduera-sektorea	2012			2016			2020		
	Abs.	% ber.	Enplegu %	Abs.	% ber.	Enplegu %	Abs.	% ber.	Enplegu %
Guztira	40.248	100	4,9	12.869	100	1,5	25.704	100	3,0
Energiaren ind. eta antzekoak	853	2,1	4,8	186	1,4	1,0	39	0,2	0,2
Ind. metalikoa	3.636	9,0	3,0	2.170	16,9	1,8	3.119	12,1	2,5
Manufaktura-ind.	3.463	8,6	7,4	879	6,8	1,8	1.110	4,3	2,6
Eraikuntza	6.588	16,4	9,8	1.457	11,3	2,9	1.564	6,1	3,1
Merkat., ostal. eta konponk.	13.320	33,1	7,1	3.455	26,8	1,7	11.158	43,4	5,7
Garraioak eta komunikazioak	3.418	8,5	6,7	324	2,5	0,6	1.527	5,9	3,1
Merkataritza-zerbitzuak	5.740	14,3	3,9	2.394	18,6	1,5	1.966	7,6	1,3
Hezkuntza, Osasuna, Gizarte Zerb.	1.132	2,8	0,8	1.000	7,8	0,6	2.361	9,2	1,3
Beste zerbitzu batzuk	2.098	5,2	5,0	1.005	7,8	2,2	2.859	11,1	6,6

Iturria: LMZ-Eskaria. 2012 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

Oharra: Establezimendu autonomoetan, aldi baterako itxeko arriskuan dauden kasuak jaso dira.

2020an, enpleguaren murrizketa potentziala gertatzeko arriskuak zuzendari-lanetan edo arlo tekniko edo administratibokoetan ari ez ziren langileen artean metatuta jarraitzen zuen. Hartara, beste langile kualifikatu batzuei eta langile ez-kualifikatuei zegokien finantzaketa-arazoen ondorioz enplegua galtzeko arrisku-egoeren % 74,6a. Proportzio hori handiagoa da 2016ko % 65,7az geroztik.

30. taula

Finantzaketa-arazoen eragina, jarduera-sektoreka eta lanbide-kategoriaka (langile-mota). 2012-2020

Arriskuan dauden enpleguak, finantzaketa-arazoak dituzten establezimenduetan

(guztien ehunekoa)

Sektorea	2012					2016					2020				
	Zuzendaria k, teknikariak eta erdi- mailako karguduna k	Administrazio ko langileak	Lang. kualifi katua k	Kualif. gabek o lang.	GUZTIR A	Zuzendaria k, teknikariak eta erdi- mailako karguduna k	Administrazio ko langileak	Lang. kualifi katua k	Kualif. gabek o lang.	GUZTIR A	Zuzendaria k, teknikariak eta erdi- mailako karguduna k	Administrazio ko langileak	Lang. kualifi katua k	Kualif. gabek o lang.	GUZTIR A
Guztira	26,1	11,2	52,6	9,8	100	7,2	17,1	49,7	26,0	100	16,3	9,1	49,7	24,9	100
Industria	4,0	1,8	10,1	3,9	19,8	2,0	3,4	11,2	8,5	25,1	1,8	1,6	8,1	5,2	16,6
Eraikuntza	3,1	2,1	9,8	1,1	16,4	1,9	1,3	6,2	2,0	11,3	1,3	0,8	3,0	1,0	6,1
Zerbitzuak	19,0	7,3	32,7	4,8	63,9	3,3	12,4	32,3	15,5	63,5	13,2	6,8	38,7	18,7	77,3

Iturria: LMZ-Eskaria. 2012 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

Oharra: Establezimendu autonomoetan, aldi baterako ixteko arriskuan dauden kasuak jaso dira.

Kontuan hartutako biztanleen artean, nagusi da aztertutako langileen zati kualifikatua (% 49,7 langile ez-kualifikatuen % 24,9aren aldean).

Kategoria eta jarduera-sektorea kontuan hartuta, arrisku-egoera nagusiak zerbitzuen sektoreko langile kualifikatuei eta ez-kualifikatuei zegozkien 2020an: kasuen % 55,4. % 17,3 okupazio-profil horri dagokio, baina industriaren eta eraikuntzaren barruan. Zerbitzuen sektoreko zuzendariak eta arlo tekniko eta administratiboko langileak arriskuan dauden enpleguen % 20 dira, eta % 5,5 lanbide-kategoria horiei berei lotuta dago, baina industrian edo eraikuntzan.

Erdiko epean, batez ere nabarmentzen da, arriskuan dauden kolektiboen barruan, zerbitzuetako langile kualifikatuen eta ez-kualifikatuen pisu erlatiboa handitu izana. Guztizkoaren % 37,5 ziren 2012an, % 47,8, berriz, 2016an eta, egun, % 57,4 dira. Kopuru absolutuei erreparatuta, 2020an arriskuan zeuden 19.871 enpleguek argi utzi zuten nabarmen egin zela gora 2016tik (8.178), baina urrun daude 2012ko 25.708etatik.

4.3. Egungo testuingururen baldintzatzaile nagusi modura, lehiak handitzen jarraitzen du, eta enplegua salmentetara egokitzen da, zeinak okertu egin baitira establezimendu gehien-gehienetan

2020an, nolanahi ere, finantzaketa-arazoak oraindik ere ez dira lehia handitzeari eta eskariaren aldaketei lotutako faktoreak bezain erabakigarriak enpleguaren dinamikan. Alde horretatik, EAEko produkzio-establezimenduen jarduera mugatzen duten faktoreak zehaztean, enpleguaren % 20,6 baino ez da lotzen finantzaketa-arazoak aipatzen dituzten establezimenduekin. Hala ere, proportzio horrek, beheranzko joera adierazi arren 2016ko % 23,1arekin alderatuta, 2008ko % 18,9a gainditzen du oraindik.

Erabakigarriagoa da lehia handitzeari lotutako % 52,2a, bai eta eskaria murrizteari lotutako kontuak adierazten dituen % 58,7a ere. Bi kasuetan, aipatu ehunekoek 2008an aipatutakoak gainditzen dituzte, % 34,2 eta % 42,5 baitira hurrenez hurren, 2016aren aldean, eskariak garrantzia igo du (2016ko % 53,8tik 2020ko % 58,7ra), eta bidea kontrakoa da lehia handitzeari dagokionez. Kasu horretan, kontu hori aipatzen duten zentroein lotutako enpleguen proportzioa % 47,2 izan zen 2012an, % 64 izan zen 2016an eta % 52,2 2020an. 2016an ez bezala, lehiaren faktoreari lotutako elementua nagusi izan baitzen, eskariaren aldaketa erabakigarria izan zen jardueran 2020. urtean.

Aipatutako joera horiek sektore desberdinetan antzematen dira, industriaren sektorean bereziki, 2020an % 64,1eko zenbatekoa izanik eskariaren murrizketan, 2016ko % 52a baino nabarmen gorago.

31.a taula

Establezimenduak, jarduera-sektorearen eta jarduera mugatzen duten faktoreen arabera. 2012-2020
 (Establezimenduetako enplegu osoaren gaineko ehunekoa)

Urtea eta jarduera-sektorea		Lehia handiagoa izatea	Eskariak behera egitea	Langile espezializatu gutxi izatea	Produkzio-ahalmena behar bestekoa ez izatea	Finantzaketa-arazoak	Beste arazo batzuk
2020	Guztira	52,2	58,7	30,2	10,9	20,6	8,2
	Industria	61,8	64,1	29,6	11,4	17,9	6,3
	Eraikuntza	51,0	54,5	51,9	8,9	18,2	6,9
	Zerbitzuak	49,4	57,4	28,6	10,9	21,6	8,9
2016	Guztira	64,0	53,8	21,8	9,1	23,1	3,4
	Industria	68,3	52,0	30,0	15,5	27,1	2,3
	Eraikuntza	73,1	74,2	27,2	8,0	26,5	4,9
	Zerbitzuak	62,0	52,7	18,9	7,3	21,5	3,6
2012	Guztira	47,2	68,2	4,5	1,8	25,6	1,9
	Industria	56,7	77,8	8,7	4,1	31,0	1,9
	Eraikuntza	56,8	85,2	4,2	1,5	37,6	1,2
	Zerbitzuak	42,9	63,0	3,1	1,1	22,4	2,0

Iturria: LMZ-Eskaria. 2012 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

31.b taula

Establezimenduak, finantzaketa-arazoaren eta jarduera mugatzen duten faktoreen arabera. 2012-2020
 (Establezimenduetako enplegu osoaren gaineko ehunekoa)

Urtea eta jarduera-sektorea		Lehia handiagoa izatea	Eskariak behera egitea	Langile espezializatu gutxi izatea	Produkzio-ahalmena behar bestekoa ez izatea	Finantzaketa-arazoak	Beste arazo batzuk
2020	Guztira	52,2	58,7	30,2	10,9	20,6	8,2
	Larriak	55,6	83,6	25,2	16,9	68,1	16,9
	Ertainak	67,3	81,7	30,1	18,1	58,3	13,6
	Arinak edo arazorik gabeak	50,2	54,8	30,5	9,8	14,0	7,2
2016	Guztira	64,0	53,8	21,8	9,1	23,1	3,4
	Larriak	67,2	82,2	24,8	23,6	83,6	7,4
	Ertainak	73,8	72,0	34,9	22,0	71,8	5,6
	Arinak edo arazorik gabeak	62,9	50,8	20,3	7,2	15,6	3,0
2012	Guztira	47,2	68,2	4,5	1,8	25,6	1,9
	Larriak	52,6	82,8	4,7	4,5	86,1	4,8
	Ertainak	57,9	83,5	7,4	4,6	68,8	3,7
	Arinak edo arazorik gabeak	45,3	64,9	4,1	1,2	14,6	1,4

Iturria: LMZ-Eskaria. 2012 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

Finantzaketa-arazoekin batera, eskaria jaistea oraindik ere faktore erabakigarria da kasu guztietan, finantza-zailtasun handiak aipatzen dituzten establezimenduei dagokienez. Hartara, 2020an, finantza-arazo larriak zituzten zentroein lotutako enpleguen % 83,6k eskariaren jaitsiera aipatzen zuten, eta ia % 68,1ek finantzaketari lotutako arazoak: bi kasuetan, lehia handitzea aipatzen zuten % 55,6aren gainetik. Proportzioak % 81,7 eta % 58,3koak dira finantzaketa-arazo ertainak dituzten zentroen kasuan. Finantzaketa-arazorik ez badago, edo arazoak txikiak badira, lehia handitzea da faktore erabakigarria (% 50,2 eta % 54,8 eskarian gertatutako aldaketei lotuta, eta % 14 finantzaketa-arazoei lotuta).

Beste bi faktorek, ordea, garrantzi handiagoa hartu zuten 2020an. Alde batetik, enpleguen % 10,9 produkzio-ahalmen txikiegia zutela zioten zentroein lotuta zegoen, 2016ko % 9,1aren eta, batez ere, 2012ko % 1,8aren gainetik. Elementu horrek lotura handia du finantza-arazo larriak edo erdibidekoak dituzten zentroekin, eragindako enpleguaren % 15 baino gehiago izanik (% 16,9 eta % 18,1 hurrenez hurren), bai eta industriarekin eta zerbitzuekin ere.

Bestalde, garrantzitsua da berriz ere langile espezializatu gutxi izateari lotutako kontua. Faktore hori 2012ko enpleguaren % 4,5arekin lotzen zen eta 2016an % 21,8ra igotzen zen. 2020an, maila handienara iritsi da: % 30,2. Igoera nabarmena antzeman da eraikuntzan, ukitutako zentroekin lotutako enpleguen proportzioak % 51,9koak izanik.

2020ko LMZ-Eskariak erakusten duen atzeraldi ekonomikoan, lehiaren eta salmenten dinamikak, nolanahi ere, berekin ekarri zuten salmenta horiek joera negatiboa izatea azken urtean, 32. taulan ikus daitekeen bezala. Hartara, EAEko bost enplegutik gorako establezimenduetan, enpleguaren % 22,7k lotura zeukan 2020an eta salmentei dagokienez etorkizun ona zuten zentroekin; 2016an, berriz, ehuneko hori handiagoa zen, % 39,2. Proportzioa % 17,4 izan zen industrian, eta % 29,1 eraikuntzan, argi eta garbi 2016ko % 50,8tik eta % 40,9tik behera. Zerbitzuetan ere izan zen begi-bistakoa okertzea: % 34,5ekoa 2016an eta % 24,3koa 2020an.

Eraikuntzaren sektorean, nagusi da nolanahi ere egonkortzeko bidea, sektore horretako enpleguaren % 42,1ak ezaugarri hori baitu; industrian, berriz, proportzioa % 29,5 da, eta zerbitzuetan, % 35,7.

Eragin garrantzitsua izanda, eta 2016koa baino askoz altuagoa, azken urtean salmentetan ildo txarra izan zuten zentroein lotutako enpleguaren pisua oso garrantzitsua izan zen 2020an, enpleguaren % 43 egoera horri lotuta baitzegoen. Eragin handiena industriari dagokio, % 53,1, eraikuntzaren % 28,8aren gainetik eta zerbitzuen % 40ren gainetik.

32. taula

Bost enplegutik gorako establezimenduak, jarduera-sektoreka eta salmentek azken urtean izandako bilakaeraren arabera. 2016-2020

(horizontalen ehunekoa establezimenduetako enpleguaren arabera)

Sektorea	2016				2020			
	Ona edo gorakoa	Txarra edo beherakoa	Egonkorra	Guztira	Ona edo gorakoa	Txarra edo beherakoa	Egonkorra	Guztira
	Batura	Batura	Batura	Batura	Batura	Batura	Batura	Batura
Guztira	39,2	14,9	45,9	100	22,7	43,0	34,3	100
Industria	50,8	17,5	31,7	100	17,4	53,1	29,5	100
Eraikuntza	40,9	23,0	36,1	100	29,1	28,8	42,1	100
Zerbitzuak	34,5	13,2	52,3	100	24,3	40,0	35,7	100

Iturria: LMZ-Eskaria. 2016 - 2020 Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

Gehiago saltzeko aukerarik ez ikustea da establezimenduek kontratatzeke dituzten zailtasunak oraindik ere azaltzen dituen faktore nagusia. Autonomoak ez diren establezimenduetako enpleguei dagokienez, faktore horren pisua % 57,8tik % 50,4ra jaitsi zen 2016 eta 2020 artean, eta 2008ko % 52,2aren azpitik jarri zen.

Kualifikazio egokia duen lan-indarrik ez egotea arazo garrantzitsua da berriz ere. 2012 eta 2016 artean % 9,6tik % 42,4ra nabarmen igo ondoren, autonomia ez den enpleguaren % 43,6 biltzen duten zentroek aipatu zuten berriz 2020an.

Garrantzitsua da, halaber, marjina txikiei lotutako faktorea handitzea, salmenta-prezio txikiegiekin. Kasu horretan, elementu hori aipatzen zuten establezimenduak enplegu ez-autonomoaren % 12 ziren 2012an; % 43,3, berriz, 2016an; baina 2020an % 25,8ra jaitsi ziren. Antzeko ildoan, lanposturako egokitze- eta prestakuntza-kostuei buruzko aipamenek gora egin zuten 2012ko % 9,4tik 2016ko % 38,8ra, 2020an % 19,3ra jaisteko.

33. taula

Langileak kontratatzeke dauden arazo nagusiak. 2012-2020

(erantzunen ehunekoa establezimenduka, eta enplegua establezimendu ez-autonomoetan)

Zailtasunak	Establezimenduen ehunekoa			Enpleguen ehunekoa		
	2012	2016	2020	2012	2016	2020
Saltzeko aukerak	80,1	64,0	51,5	70,4	57,8	50,4
Muga produktiboak	5,1	12,3	0,0	3,9	14,8	.
Marjina urriak, prezio baxuegiak	8,8	43,4	25,9	12,0	43,3	25,8
Soldatakoak ez diren kostu altuak	17,7	34,1	0,0	18,4	29,3	.
Soldatako kostu altuak	16,2	45,5	0,0	20,8	47,6	.
Kaleratzearen kostua/zorroztasuna	5,3	41,9	15,0	12,2	45,2	19,6
Lan-indarra kualifikazio ez egokiarekin	6,1	29,3	33,7	9,6	42,4	43,6
Lanpostura egokitzearen kostuak/prestakuntza	6,1	29,7	12,7	9,4	38,8	19,3

Bestelakoak	9,3	0,0	14,6	11,6	0,3	11,2
-------------	-----	-----	------	------	-----	------

Iturria: LMZ-Eskaria. 2012 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

Ekonomiaren okertze orokorra ikus daiteke, era berean, inbertsioko aukeren galeran. Hartara, etorkizun hurbilean inbertsioak egingo dituzten establezimenduei lotutako enplegu-proportzioa 2016ko % 19,1era igo zen eta 2020an % 15,7ra jaitsi, 2008 eta 2012an izandako % 9ren gainetik. Bestetik, % 11,6ra igo da desinbertsio-prozesuei aurre egingo dieten zentroen enplegu-proportzioa, 2008ko % 26,7tik 2012ko % 18,4ra eta 2016ko % 6,9ra jaitsi ondoren.

34. taula

Bost lanpostutik gorako establezimenduak, jarduera-sektorearen eta inbertsioen bilakaerari buruzko aurreikuspenen arabera. 2012-2020

(Establezimenduetako enplegu osoaren gaineko ehunekoa)

Urtea eta jarduera-sektorea		Hazi egingo da	Bere horretan jarraituko du	Txikiagotu egingo da	Bestelako erantzunak	Guztira
2020	Guztira	15,7	47,0	11,6	25,7	100
	Industria	21,6	39,2	18,9	20,3	100
	Eraikuntza	10,7	48,3	7,5	33,5	100
	Zerbitzuak	13,7	50,0	9,0	27,3	100
2016	Guztira	19,1	60,0	6,9	14,0	100
	Industria	27,5	55,4	8,0	9,1	100
	Eraikuntza	9,1	61,4	12,0	17,6	100
	Zerbitzuak	16,4	61,7	6,1	15,7	100
2012	Guztira	9,6	43,2	18,4	28,9	100
	Industria	16,3	44,0	19,7	20,0	100
	Eraikuntza	2,2	31,0	29,0	37,8	100
	Zerbitzuak	7,1	44,0	16,7	32,2	100

Iturria: LMZ-Eskaria. 2012 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

Inbertsioan, industriari dagokio atzeraldirik handiena. Kasu horretan, inbertsio-perspektiba ona duten zentroei lotutako enplegua 2008ko % 8,2tik 2012ko % 16,3ra handitu zen, eta, gero, 2016ko % 27,5era. Hala ere, 2020an % 21,6 jaitsi zen. 2012an eta 2016an izandako jaitsieren ondoren, berriz heldu zitzaion ildo onari eraikuntzan, eta, 2020an, inbertsio-perspektibei lotutako enplegu-kopurua 2008koa baino handiagoa izan zen. Eraikuntzan, inbertsio-aukerak dituzten zentroek 2020an enpleguaren % 10,7 dute, 2008ko % 4,7aren gainetik. Bestalde, zerbitzuetan, erreferentziazko establezimenduek enpleguaren % 13,7 biltzen dute, 2016an % 16,4tik jaitsi ondoren. Datua, hala ere, 2008ko % 10,6a baino altuagoa da.

4.4. Kanpo-merkatuetan sartzea

Lehia handitzearekin eta eskariaren dinamikan izaten diren aldaketekin zerikusia duten zailtasunen testuinguruan, EAEko enpleguaren etorkizun hurbila baldintzatuko duten kontuetako batek lotura du nazioartekotze-prozesuarekin. Horri dagokionez, garrantzitsuak dira ondoren zehazten diren LMZ-Eskariaren emaitzak.

4.4.1. EAEren presentzia oraindik mugatua da barne-merkatuetatik kanpo, atzerriratzeko prozesuak moteltze-prozesu bat bizi baitu

2008 eta 2012 artean, hedapen deigarria izan zuen EAEko produkzio-zentroek jarduten duten lurralde-esparruak, baina prozesu horrek moteltzera jo zuen, are pixka bat kontrako bidea hartzera ere, 2012 eta 2020 artean kanpo-merkatu batzuetan. EAEn autonomoak ez diren establezimendu guztiei dagokienez, hori 35. taulan ikus daiteke.

EAEko merkatu orokorrari bagagozkio, enpresa-jardunaren hedadura egonkortu egin da. Hartara, EAEko merkatu osoan presentzia duten establezimenduen proportzioa 2008an eta 2012an % 26 baino handixeagoa izatetik 2016an eta 2020an % 32,9 izatera aldatu zen. Enpleguaren ikuspuntutik, 2008-2012 aldian jaitiera gertatu zen: 2008an, enpleguaren % 44,3 zegoen lotuta EAEko merkatuan presentzia zuten zentroei; 2012an, berriz, % 39,9. 2016an, inplikaturako zentroen kopurua handitzea enpleguan ere gertatu zen, eta % 45,5 zegoen inplikaturako jardun orokorrean EAEn, zenbatekoa % 46,3koa izanik 2020an.

Espainiako merkatuan, establezimenduen presentziak gora egin zuen 2008ko % 17,6tik 2012ko % 21,9ra eta 2016ko % 22,3ra eta 2020ko % 24,8ra. Era berean, inplikaturako zentroetako enpleguei erreparatuz gero, igoera bat egon da azken aldian, 2016ko % 40,1etik 2020ko % 42,7ra.

Ilhoa antzekoa da Europako merkatuari dagokionez, non Europako merkatuan presentzia duten zentroen proportzioan igoera handia mantentzen baita. Hartara, proportzio horrek gora egin zuen 2008ko % 5,5etik 2012ko % 6,3ra, 2016ko % 6,6ra eta 2020ko % 8,6ra. Enpleguari dagokionez, 2008 eta 2012 artean % 20,8tik % 23,1era igo ziren Europako merkatuan jarduteari lotutako enpleguak, baina 2016an kontrako bidea hartu zuten % 22,1era iritsi arte, 2020an % 25,7ra igotzeko.

Aurreko datuek adierazten dutenaren arabera, presentzia oraindik txikiagoa izan arren, EAEko produkzio-zentroek atzerrira gehiago irteteko duten joera finkatu egiten da EAEko, Espainiako eta are Europako esparrutik kanpoko merkatuetan. Merkatuak Europako Erkidegotik kanpoko³ esparruan hedatzea eremu geografiko guztien ezaugarri komuna izan arren 2008 eta 2020 artean, 2016-2020 aldian desberdintasun adierazgarri batzuk izan ziren.

Etengabeko handitze horrek munduko gainerako herrialdeetan iraun du, eta sartze gorenak 2020an izan dira. Merkatu horietan presentzia duten zentroei lotutako enpleguetan, inplikazioa % 8,9tik % 13,2ra igo da.

Kontrakoa gertatzen da Erdialdeko eta Hegoaldeko Amerikako merkatuen esparruan. Kasu horretan, establezimenduen ehunekoa % 2tik % 1,6ra aldatu zen 2016 eta 2020 artean, eta, ondoren, zentro

³ Txosten honetan, Erkidegotik kanpokotzat jotzen dira egungo Europar Batasuna osatzen duten estatuen erkidegotik kanpo dauden merkatuak.

horiei lotutako enplegu-kopuruaren ikuspegitik % 7,1etik % 9,1era igo ostean 2016ra arte, proportzioa % 7,7ra jaitsi zen 2020an. Txinaren kasua antzekoa da. Establezimenduen ehunekoa % 0,8an finkatu den arren, enpleguen ehunekoa % 4,8ra jaitsi da, aurreko aldiko % 6tik.

Ipar Amerikan, establezimenduen ehunekoa % 1,7tik % 1,8ra igo da azken aldian, baina % 10,1era murriztu da enpleguen kasuan.

2016 eta 2020 artean, merkatu horretan presentzia zuten zentroen ehunekoak gorantz jarraitu arren, sartze-ildoa ahuldu egin zen Asiako hego-ekialdean inplikaturako enpleguaren aldetik, % 5,3arekin, jaitsiera izan dela adierazten baitu 2008 eta 2012 artean % 3,9tik % 5,8ra igo ondoren.

Erresuma Batua EBtik irten ostean, 2020an lehen aldiz erregistratu da estatu horren datua. Establezimenduen ehunekoa % 1,5ekoa da eta enpleguena % 9,5ekoa.

35. taula

Merkatu jakin batzuetan presentzia duten establezimendu ez-autonomoak. 2012-2020 (presentziaren ehunekoa establezimenduka, eta enplegua establezimenduetan)						
	Establezimenduen ehunekoa			Enpleguen ehunekoa		
	2012	2016	2020	2012	2016	2020
Merkatua	%	%	%	%	%	%
EAE	26,3	32,9	32,9	39,9	45,5	46,3
Espainia	21,9	22,3	24,8	40,3	40,1	42,7
EB	6,3	6,6	8,6	23,1	22,1	25,7
Erresuma Batua	.	.	1,5	.	.	9,5
Asiaren hego-ekialdea	0,6	0,7	0,9	5,8	5,4	5,3
Txina	0,5	0,8	0,8	4,9	6,0	4,8
Ipar Amerika	1,3	1,7	1,8	9,0	10,4	10,1
Erdialdeko eta Hegoalde Amerika	1,5	2,0	1,6	9,5	9,1	7,7
Munduko gainerakoak	1,3	2,2	2,4	10,7	11,6	13,2

Iturria: LMZ-Eskaria. 2012 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

36. taulak bide ematen du jarduera-adarka aztertzeke EAEko enpresak atzerrira irteteari lotutako alderdiak. Euskal merkatutik kanpo presentzia duten zentroekin lotutako enpleguarekin zerikusia duten alderdietan oinarritzen bada azterketa, lehenik eta behin egiaztatu daiteke adar desberdin gehienetan Espainiako merkatuan jarduera duten zentroei lotutako enpleguen proportzioak gairitu egiten duela 2020ko ehunekoa. % 72tik gorako zenbatekoak daude industria metalikoan eta manufaktura-industrian. Energiaren industrian, jaitsiera handia egon da 2016aren aldean, 2020an % 56,1era iritsiz, oraindik ere 2012ko balioaren gainetik. Espainiako merkatura gehiago bideratutako zerbitzu-adarretan, proportzioa % 52,1era iritsi zen merkataritza-zerbitzuetan; hortaz, kasu horretan ere erditik gorakoa. Maila apalagoetan, oraindik ere % 32,7 eta % 35,2 artean zegoen eraikuntzaren eta merkataritza, ostalaritza eta konponketen adarretan. Proportziorik txikiak, % 16 eta % 19,4 artekoak, adar hauei dagozkie: hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak eta beste zerbitzu batzuk.

Espainiako merkatuari lotutako enpleguaren goranzko joerak, zeina oro har eta epe luzean ikusten baita EAEn, desberdintasun adierazgarriak erakusten ditu adarren arabera. Alde negatiboan, merkatu honetako presentziarik txikiena 2020an, 2012arekin alderatuta, garraio eta komunikazioekin lotzen da eskusiboki. Kasu honetan, 2016ko % 35,2ren oso gainera egon arren, 2020ko % 46,3a ez da iristen 2008ko eta 2012ko mailetara. Beste adar batzuetan, bestalde, barne-merkatuantz egon da hedapena, argi eta gabi, eraikuntzan 2012an % 23,5eko igoerak egonik eta merkataritza-zerbitzuetan 2012ko % 43,1etik 2020ko % 52,1era bitartekoak.

2020ko % 77,4a metalaren industrian 2008ko % 77,9aren antzekoa da. 2012ko % 75,5etik igoera egon da, baina 2016ko % 78,6a baino baxuago dago oraindik. Merkataritzan, ostalaritzan eta konponketetan, 2020ko datuak gairitu egiten du 2012ko % 34,4a, bai eta 2016ko % 30,7a ere, 2008ko % 30,5etik hurbil.

Gainerako jardura-adarretan, Espainiako merkaturaren presentzia handiagoa da 2020. urtean 2012an baino (% 72,6 eta % 71,5 manufaktura-industrian; % 56,1 eta % 53,5 energiaren industrian; % 18,5 eta % 16,4 beste zerbitzu batzuetan). Hezkuntzan, osasunean eta gizarte-zerbitzuetan igoera ia % 4koa da, 2012ko % 12,1etik 2020ko % 16ra arte.

Europako merkaturaren, merkatu horretan diharduten establezimenduei lotutako enplegu-proportzioa industria-adarretan baino ez da nagusi 2020an: % 57,5 inguru manufaktura-adarrean, eta % 70,7ko gehienekoa metalaren industrian. Energiaren industriaren kasuan ehuneko hori % 46,5 da. Zerbitzuetan, mailarik gorena garraioei eta komunikazioei dagokie: % 20,6. Enpleguaren % 17 eta % 18,9 artean Europako merkatuari lotuta dago merkataritza-zerbitzuetan eta merkataritzan, ostalaritzan eta konponketetan. Proportzioa % 10etik beherakoa da zerbitzuen sektoreko gainerako adarretan eta eraikuntzan.

36. taula

EAEtik kanpoko merkatuetan presentzia duten establezimendu ez-autonomoak, jarduera-adarraren arabera. 2012-2020
(presentziaren ehunekoa establezimenduka, eta enplegua establezimenduetan)

	Establezimenduen ehunekoa										Enpleguen ehunekoa								
	Espainia			EB			Erresuma Batua	Beste eremu batzuk			Espainia			EB			Beste eremu batzuk		
	2012	2016	2020	2012	2016	2020	2020	2012	2016	2020	2012	2016	2020	2012	2016	2020	2012	2016	2020
Merkatua	2012	2016	2020	2012	2016	2020	2020	2012	2016	2020	2012	2016	2020	2012	2016	2020	2012	2016	2020
Guztira	21,9	22,3	24,7	6,3	6,6	8,3	1,4	2,7	3,5	3,7	40,3	40,1	42,6	23,1	22,1	25,5	15,7	15,9	18,0
Energiaren industria eta antzekoak	36,2	53,5	41,9	13,7	29,2	22,2	3,7	9,0	20,0	15,2	53,5	69,2	56,1	49,1	54,1	46,5	39,6	40,5	31,7
Industria metalikoa	46,3	49,1	53,3	23,4	25,7	29,5	6,9	15,2	15,7	18,4	75,5	78,6	77,4	71,2	70,0	70,7	52,3	56,4	57,4
Manufaktura-industria	36,1	36,8	47,3	11,6	18,4	22,5	3,6	7,9	7,7	9,3	71,5	68,2	72,6	56,0	53,8	57,5	38,0	31,4	36,9
Eraikuntza	14,5	10,8	19,1	1,4	2,4	0,6	0,0	1,0	2,2	0,5	23,5	30,5	32,7	4,0	8,3	6,1	4,1	7,9	5,7
Merkat., ostal. eta konponk.	19,8	19,1	21,2	6,4	5,9	8,4	1,2	2,3	2,7	3,0	34,4	30,6	35,2	13,0	13,7	17,0	5,8	7,0	8,4
Garraioak eta komunikazioak	38,1	28,8	44,6	11,2	14,7	16,0	1,6	2,6	4,7	3,0	48,1	35,2	46,3	14,5	18,2	20,6	5,1	7,5	6,8
Merkataritza-zerbitzuak	26,6	32,7	31,2	5,5	4,9	6,0	1,0	1,7	2,8	3,0	43,1	51,3	52,1	13,3	12,0	18,9	9,4	10,6	13,3
Hezkuntza, Osasuna, Gizarte Zerb.	10,7	6,9	10,2	1,7	0,5	3,4	1,7	1,0	0,4	3,7	12,1	8,6	16,0	1,8	1,0	7,6	1,8	0,6	6,7
Beste zerbitzu batzuk	8,2	9,1	11,1	4,2	2,1	4,3	0,2	1,0	2,1	0,4	14,1	17,9	19,4	5,5	4,7	6,0	1,2	3,5	1,8

Iturria: LMZ-Eskaria. 2012 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

Europako merkatuan sartzeari dagokionez 2016 eta 2020 artean ikusten den goranzko joera metalaren industriari eta manufaktura-industriari lotzen zaie, hurrenez hurren % 70etik % 70,7ra eta % 53,8tik % 57,5era egin baitzuten gora aldi horretan. Enpleguaren % 10etik gorako kanpo-presentzia duten adarretan, igoera handia antzeman da, 2016ko % 12tik 2020ko % 18,9ra merkataritza-zerbitzuetan eta % 13,7tik % 17ra merkataritzan, ostalaritzan eta konponketetan. Adar horietan guztietan, Europar Batasunean izandako presentzia handiagoa izan zen 2020an 2012an baino. Hezkuntzan, osasunean eta gizarte-zerbitzuetan ehunekoa % 7,6ra iristen da, maila gorena 2008tik, eta beste zerbitzu batzuetan igoera ez da hain handia, % 6ra artekoa, 2012ko datua baino puntu erdi gehiago. Azkenik, merkataritzan, ostalaritzan eta konponketetan, 2020ko % 17a proportziorik handiena da 2008. urtetik.

Aipatu igoeren aldean, 2016 eta 2020 artean handitu egin zen energiaren industriaren presentzia Europan (% 54,1etik % 46,5era; 2012ko % 49,1 baino zertxobait gorago, ordea). Eraikuntzan ere behera egin du, % 8,3tik % 6,1era, kasu honetan 2012ko % 4aren gainetik oraindik ere.

Espainiako eta Europako merkatuetan ez bezala, Europar Batasunetik kanpoko merkatuetan metalaren industriak baino ez dauka adarreko enplegu gehienari (% 57,4) eragiten dion presentzia, eta proportzioa % 36,9 da manufaktura-industrian, eta % 31,7, berriz, industria energetikoan. Industria-esparrutik kanpo, merkataritza-zerbitzuek baino ez dute gainditzen inplikaturako enpleguaren % 10 (% 13,3). Adar horietako guztietan, erkidegotik kanpoko merkatuetan presentzia aldakorren joera ikusten da, energiaren industriako erorketa nabarmentzen delarik. Kasu horretan, kanpo-presentzia hori enpleguaren % 39,6tik % 40,5era handitu ondoren 2012 eta 2016 artean, proportzioa % 31,7ra jaitsi zen 2020an. Gainerako adarretan, aldakuntzak txikiagoak dira, hezkuntzan, osasunean eta gizarte-zerbitzuetan egondako sei puntutik gorako igoera nabarmentzen delarik.

37. taulak aukera ematen du zehatzago aztertzeko ekonomiaren sektore irekienaren kanpo-orientazioa, industria-sektorearena. Oro har, eta erreferentziazat hartuta esportazio-jarduera duten zentroei lotutako enplegua, ikusten da 2020an kanpo-merkatuetan sartzearen pisu erlatiboak ezaugarritzen duela enpleguaren % 73,9 Espainiako merkatuko jardunean eta % 65 Europar Batasunekoan. Bi kasu horietan, EAEko merkatuaren barruko jarduerari lotutako enpleguen % 53,7a gainditzen da.

Epe luzeko ikuspegitik, aipatu proportzioek adierazten dute EAEko industriak Espainiako esparruan duen presentzia zertxobait jaitsi dela, 2008ko eta 2012ko % 73tik eta % 72,4tik, hurrenez hurren, 2016ko % 75a arte. 2020an, hala ere, % 73,9ra arte jaitsi da. Igoeraren lerroa garbiena da merkatu europarrari dagokionez, 2016ko % 64,3tik egungo % 65era. Hala, ia ehuneko 6 puntu altuagoa da 2008ko % 59,2a baino, murrizketa antzeman den arren 2012ko % 65,4tik. Erresuma Batuen kasuan, ehunekoa % 30,3koa da. Zenbateko hori % 36,7ra iristen da industria metalikoari dagokionez.

Europatik kanpo kokaturako merkatuetan, sartze handienekoak Ipar Amerikakoak eta munduko gainerako herrialdeetakoak dira. Bi kasuetan, gainera, 2008. urtearekiko igoerak gertatu ziren 2016ra arte. Hartara, 2016ko Ipar Amerikako % 33,7ak adierazten zuen igoera etengabea izan zela 2008ko % 23,9tik. Hala ere, 2020an jaitsiera bi puntutik gorakoa da, % 31,4ra arte. 2016an munduko gainerako herrialdeetan

izandako % 36,5eko proportzioa ere handiena zen 2008tik (% 29,7), baina 2020ko datuak (% 36,4) egonkortze bat izan dela adierazten du.

Era berean, presentzia aipagarria da Erdialdeko eta Hegoaldeko Amerikakoa, enpleguaren % 23,5 baitzegoen 2020an merkatu horretan presentzia zuten zentroetan. Kasu horretan, ordea, 2008 eta 2012 artean igoera handia izan ondoren, % 20,9tik % 30era artekoa, merkatu-sartzean jaitsiera handia gertatu zen 2016an eta 2020an.

2020an, industrian kanpo-presentzia txikiagoa zen Asian, baina oraindik garrantzitsua, eta inplikaturako enplegua % 15,7 zen Txinaren kasuan, eta % 18,2, berriz, Asiako hego-ekialdeko gainerakoan. Azken kasu horretan adierazlea 2016 eta 2020 artean egonkortzeak, kanpo-jardunak Txinan atzera egitearekin alderatuta, Txinako merkatuak lehen aldiz Asiako eremuan orain pisu txikiagoa izatea azaltzen du.

Adarren araberrako datuek erakusten dute presentzia handiagoa dela EAETik kanpoko merkatuetan metalaren industrian. Enpleguari gagozkiola, bere presentzia % 70ekoa edo altuagoa da Espainia eta Europar Batasunean. % 40tik gorako presentzia dauka Ipar Amerikan eta munduko gainerako herrialdeetan (% 40,3 Ipar Amerikan eta % 40,5 munduko gainerako herrialdeetan). Joera, oro har, kanpoan gero eta gehiago sartzekoa da 2008arekin alderatuta, baina, 2016 eta 2020 artean, pixka bat murriztu zen presentzia Estatuko gainerako lekuetan (% 78,6tik % 77,4ra), Txinan (% 24,1etik % 21,3ra), eta Erdialdeko eta Hegoaldeko Amerikan (2016an % 33,8, eta 2020an, % 29,5).

Energiaren industrian, enpleguaren % 56,2 Espainiako merkatuan presentzia duten zentroei dago lotuta, eta proportzio hori % 46,8 da Europar Batasunean; beraz, jaitsiera garrantzitsua egon da aurreko aldiarekin alderatuta. Atzeraldi hori lurralde-eremu guztietan gertatu da.

Kasu honetan, epe luzeko bilakaera ez hain positiboa da erkidegotik kanpoko merkatuen ezaugarri, igoera etengabea egon delarik 2016ra arte, azken aldi horretan hausteko. Azalpen nagusia Erdialdeko eta Hegoaldeko Amerikako merkatuen dinamikari lotuta dago. Sartze-proportzioa enpleguaren % 23,5etik % 30era handitu ondoren 2012 eta 2016 artean, proportzioak hamahiru puntu egin zuen behera, % 17ra arte 2020an.

Energiaren industriaren bilakaera ez da oso ona barne-merkatuetan. Espainian, Espainiako merkatuan presentzia duten zentroei lotutako enpleguaren % 56,2a 2008ko % 72,2a baino nabarmen txikiagoa da, baina zertxobait egin du gora 2012ko % 53,5etik. Joera bera ikusten da Europan 2016 eta 2020 artean, lotutako enplegua % 54,1etik % 46,8ra jaitsi ondoren, baina 2012ko % 49,1eko mailaren parean.

EAETik kanpoko merkatuei lotutako enplegua, manufaktura-industrian, % 72,6ra iristen da Espainian eta % 57,5era Europar Batasunean. Sartzerik handiena, erkidegotik kanpoko merkatuetan, % 18,9ra iristen da Erresuma Batuan, eta % 30,3ra munduko gainerako herrialdeetan.

Adar industrial horren ezaugarri nabarmenena da atzera egiteko ageriko joera ikusten dela orokorrean kanpo-merkatuetarako sarbidean, eta kanpo-sarreran dauden proportzioak 2012koak baino txikiagoak dira. 2016-2020 aldiko erorketak oso garrantzitsuak dira Asiaren hego-ekialdeko merkatuetan (% 16,8tik

% 4,8ra) eta Ipar Amerikan (% 22,2tik % 13,8ra). Munduko gainerako herrialdeetan, hala ere, ehuneko bostetik gorako igoera egon da, 2020an % 30,3ra iritsi arte.

37. taula

Zenbait merkatutan presentzia duten industria-establezimendu ez-autonomoak, jarduera-adarraren arabera.
2012-2020

(Establezimenduetako enpleguaren ehunekotan)

	Energia eta antzekoak			Metala			Manufaktura-industria			INDUSTRIA		
	2012	2016	2020	2012	2016	2020	2012	2016	2020	2012	2016	2020
Merkatua	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%	%
EAE	33,3	52,1	43,4	49,3	57,9	54,7	65,1	60,0	56,1	51,6	57,8	53,7
Espainia	53,5	69,2	56,2	75,5	78,6	77,4	71,5	68,2	72,6	72,4	75,0	73,9
EB	49,1	54,1	46,8	71,2	70,0	70,7	56,0	53,8	57,5	65,4	64,3	65,0
Erresuma Batua	.	.	15,5	.	.	36,7	.	.	18,9	.	.	30,3
Asiaren hego-ekialdea	8,9	13,2	11,7	19,4	18,6	23,9	16,7	16,8	4,8	17,7	17,6	18,2
Txina	2,3	6,5	1,3	19,1	24,1	21,3	16,2	8,3	6,9	16,7	18,3	15,7
Ipar Amerika	23,5	23,7	14,7	33,1	39,7	40,3	21,3	22,2	13,8	29,3	33,7	31,4
Erdialdeko eta Hegoalde Amerika	23,5	30,0	17,0	33,9	33,8	29,5	22,1	8,8	9,5	30,0	27,0	23,5
Munduko gainerakoak	24,8	34,6	24,9	39,9	41,2	40,5	30,6	25,1	30,3	36,2	36,5	36,4

Iturria: LMZ-Eskaria. 2012 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

4.4.2. Hobekuntza kanpo-merkatuetako lehia-baldintzetan, teknologiaren esparruan

Ikusten da EAEko establezimenduak EAEtik kanpoko merkatuetan sartzeko prozesua moteldu egin zela 2016 eta 2020 artean, eta moteltze hori ez dator bat zentro horiek arlo teknologikoan izan duten nolabaiteko hobekuntzarekin lehiaren arloan, aurreko aldian ez bezala.

Hartara, merkatu horietan, 2008 eta 2012 artean % 21etik % 19,8ra jaitsi zen merkatu horietan lehia teknologikoan egoera abantailatsua nabarmentzen zuten bost enplegutik gorako establezimenduen proportzioa, eta ildo hori 2016ko % 14raino luzatu zen. Hala ere, 2020an ehuneko hori % 15,9ra arte igo da. Hala ere, 2012 eta 2016 artean % 21,9tik % 19,8ra igo ondoren egoera desabantailaren ikuspegitik hautematen zuten establezimenduen proportzioa, 2020an joera hori nabarmendu da, % 15,3ra iritsita. Nolanahi ere, abantailazko eta desabantailazko posizioen arteko balantzea 2008an 4,6 puntu positibo izatetik, 2012an -2,1, 2016an -5,9 eta 2020an 0,6 puntu izatera aldatu zen.

EAEko ekonomiaren lehia-posizioa hobe izan ohi da inplikaturako establezimenduetako enplegua kontuan hartzen denean. Alderdi horretan argia da, era berean, hobetzeko joera dagoela Europako Erkidegotik kanpoko merkatuetan sartzeari dagokionez. Hartara, posizio abantailatsuetan, alde onean kokaturako zentroetako enplegu-proportzioa 2012ko % 34,2tik 2016ko % 21,1era murriztu zen, baina 2008ko % 31aren azpitik. Hala ere, 2020an ehuneko hori % 22,4ra arte igo da. Desabantailazko posizioetan, ukitutako enplegu-ehunekoak ez zion hazteari utzi 2008ko % 14,4tik 2016ko % 18,8ra. 2020an, joera hori hautsi eta hiru puntu jaitsi da, % 15,8ra. Balantzean emaitza positiboa ageri da,

ehuneko 18 EAEko establezimenduen alde 2012an, 2008ko % 16,6aren gainetik. Hala ere, 2016an soilik 2,3 puntu positibora eta 2020an 6,6 puntura murriztu da.

38. taula

Lehiakideekin konkurrentzian aritzeko maila teknologikoan abantailaren edo desabantailaren bat dutela dioten bost enplegutik gorako establezimenduak. 2012-2020

(Establezimenduen ehunekotan)									
	Abantailarekin			Desabantailarekin			Aldea		
	2012	2016	2020	2012	2016	2020	2012	2016	2020
Merkatua	%	%	%	%	%	%	%	%	%
Estatuaren gainerakoa	29,6	23,6	26,5	8,7	7,4	7,9	20,9	16,2	18,6
EB	16,9	12,7	14,6	23,1	20,2	18,2	-6,3	-7,5	-3,6
Erresuma Batua	.	.	12,1	.	.	15,3	.	.	-3,2
Gainerako herrialdeak	19,8	14,0	15,9	21,9	19,8	15,3	-2,1	-5,9	0,6

(Establezimenduetako enpleguaren ehunekotan)									
	Abantailarekin			Desabantailarekin			Aldea		
	2012	2016	2020	2012	2016	2020	2012	2016	2020
Merkatua	%	%	%	%	%	%	%	%	%
Estatuaren gainerakoa	42,0	34,7	38,2	6,4	6,3	5,8	35,6	28,4	32,4
EB	23,7	17,4	21,7	19,3	18,7	16,7	4,4	-1,2	5,0
Gainerako herrialdeak	34,2	21,1	22,4	16,2	18,8	15,8	18,0	2,3	6,6

Iturria: LMZ-Eskaria. 2012 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

Posizio abantailatsua/desabantailatsua adierazten duten establezimenduen artean kalkulatzeko dira ehunekoak, ED/EDE alde batera utzita.

Europar Batasunean, 2008 eta 2012an antzematen den balantze negatiboa, -6,3 puntuko aldearekin lehiarako abantaila duten establezimenduen ehunekoaren eta lehiarako desabantaila duten zentroen ehunekoaren artean, 2016an -7,5 puntura igo zen eta 2020an -3,6ra jaitsi. 2016 eta 2020 artean ere murriztu zen desabantaila duten zentroen proportzioa (% 20,2tik % 18,2ra); arrazoi nagusia lehia-abantailako egoeran dauden zentroetan proportzioa igotzea da (% 12,7tik % 14,6ra; 2008ko % 13,1aren gainetik).

Bilakaera hori argiagoa da Europako merkatuan presentzia duten zentroein lotutako enpleguaren ikuspegitik. Abantaila duten zentroetako enpleguaren % 21,7ak adierazten du jaitziera garrantzitsua izan dela 2016ko % 17,4arekin alderatuta, eta, era berean, 2008ko % 18aren gainetik dago. 2016 eta 2020 artean gertatutako % 18,7tik % 16,7ra arteko jaitziera nabarmentzen da, desabantaila duten zentroein dagokienez. Ondorioa da abantaila-posizioen eta desabantaila-posizioen arteko balantzea, 2008an neutroa izan (0,2) eta 2012an 4,4 puntura arte zertxobait handitu ondoren, alde negatiborantz aldatu zela 2016an (-1,2), % 5era iristeko azken aldian.

Espainiako merkatuan, lehia-desabantailaren pertzepzioak ez du gehikuntza-zantzurik erakusten, eta mailak, gainera, Estatutik kanpo ikusitakoak (enpleguaren % 5,8 baino ez, desabantaila duten zentroetan) baino askoz txikiagoak dira. Aitzitik, abantaila-posizioen hobekuntza antzematen da, abantaila-posizioa

duten zentroetako enpleguaren % 38,2rekin, 2016ko % 34,7ren gainetik, nahiz eta oraindik ere 2012ko % 42a baino nabarmen baxuagoa izan. Bestalde, EAEk eutsi egiten dio Espainian lehia-abantaila duten zentroetako enplegu-alde positiboari, desabantailan dauden horiekin alderatuta (+32,4 puntu 2020an).

Bost enplegu baino gehiago eta abantaila teknologikoa dituzten produkzio-zentroetako enplegu-proportzioari buruzko dinamikan sakontzen du 39. taulak, alderdi horretan jarduera-adarraren arabera gertatutako igoeraren zenbaterainokoa aztertzeko.

39. taula

Lehiakideekiko abantaila teknologikoa duten bost enplegutik gorako establezimenduak jarduera-adarraren arabera. 2012-2020

(Establezimenduetako enpleguaren ehunekotan)

	Estatuaren gainerakoa			EB			Munduaren gainerakoa		
	2012	2016	2020	2012	2016	2020	2012	2016	2020
Jarduera-adarra									
Guztira	42,0	34,7	38,2	23,7	17,4	21,7	34,2	21,1	22,4
Energiaren industria eta antzekoak	48,4	34,1	38,8	26,1	16,9	24,8	30,6	27,5	31,7
Industria metalikoa	51,0	50,3	54,6	24,5	19,9	35,7	41,6	25,7	30,2
Manufaktura-industria	51,1	34,9	45,8	34,8	24,0	30,3	44,5	29,0	33,6
Eraikuntza	19,5	20,5	24,9	11,1	15,2	10,7	16,4	20,1	12,0
Merkat., ostal. eta konponk.	28,5	18,2	18,8	18,2	11,3	14,1	15,8	7,7	15,4
Garraioak eta komunikazioak	46,4	27,3	24,7	18,2	17,7	9,4	21,6	22,4	13,6
Merkataritza-zerbitzuak	35,2	34,3	32,6	24,9	19,5	17,9	31,5	21,7	19,8
Hezkuntza, osasuna, gizarte-zerbitzuak	51,8	42,4	48,3	16,5	17,0	16,6	32,3	24,9	21,1
Beste zerbitzu batzuk	27,2	23,9	22,2	52,8	7,4	8,4	35,3	7,8	7,6

Iturria: LMZ-Eskaria. 2012 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

Posizio abantailatsua/desabantailatsua adierazten duten establezimenduen artean kalkulatzeko dira ehunekoak, ED/EDE alde batera utzita.

Europako Erkidegotik kanpoko merkatuei dagokienez, merkatu horietan abantaila teknologikoa duten zentroei lotutako enpleguak 2016ko % 21,1etik 2020ko % 22,4ra igoztea lau jarduera-adarretan eragina duen bilakaera konplexu baten emaitza da. 2016arekin alderatuta, lehia-abantailaren ehunekoetan izandako igoera handienak honako hauei dagozkizkie: metalaren industria (4,5 puntu); merkataritza, ostalaritza eta konponketak (7,7 puntu); eta manufaktura-industriak (4,6 puntu) eta industria energetikoa (4,2 puntu). Aipatutako adarretan, aurreko aldiko jaitziera eten egin da abantaila-posizioan dauden zentroei lotutako enplegu-proportzioan, eta errealitate horrek energiaren industria ere ezaugarritzen du, nahiz eta azken kasu horretan askoz gutxiago murriztu den enplegua lehia-abantailako posizioan (-4 puntu).

Aipatu adarretan ez bezala, eraikuntzaren erorketa oso deigarria da, ia zortzi puntukoa, % 12ra arte. Oso nabarmena da, era berean, garraioan eta komunikazioetan, ia bederatzi puntu galduz azken aldian. Gainerako adarretan ere erorketak egon dira, baina ez hain handiak.

Nabarmentzekoa da kanpo-merkatuetan presentzia duten gizarte-zerbitzuetan, osasunean eta hezkuntzan egondako bilakaera (% 32,3tik % 21,1era 2012 eta 2020 artean, azken urte horretako proportzioa txikiagoa izanik 2008ko % 23,3a baino). Beste zerbitzu batzuetan ere ezaugarriak antzekoak dira (2020an % 7,6, 2012ko proportziotik –% 35,4– urrunduta, baina ez, ordea, 2008kotik –% 9,9–).

Europako merkatuan, lehia-abantaila zuten establezimenduetan enplegu-proportzioa % 18tik % 23,7ra aldatu zen 2008 eta 2012 artean, % 17,4ra jaitsi 2016an eta % 21,7ra arte berreskuratu zen 2020an. 2012-2020ko aldiaren ikuspegitik, bilakaera txarrena beste zerbitzu batzuei dagokie, -44,4 puntu galdu baitzituen abantaila-posizioetan, eta galera hori guztia 2012-2016an % 52,8tik % 7,4ra arte gertatutako jaitsierari dagokio.

Industriaren adarretan eta merkataritzari, ostalaritzari eta konponketei lotutakoetan, 2020arekin alderatuta 2016an izandako igoerak ertainak izan ziren (6 eta 15 puntu artean). Hala ere, bateragarriak dira lehiakortasunak gora egitearekin industria metalikoan 2012aren aldean (enpleguen % 24,5etik % 35,7ra abantaila-posizioa duten zentroetan, 2012 eta 2020 artean), baina bai eta abantaila-posizioaren jaitsiera handiekin ere 2012 eta 2020 artean manufaktura-industrian eta merkataritza, ostalaritza eta konponketetan. Lehen kasuan, abantaila-posizioak % 25,2tik % 34,8ra handitu ondoren 2008 eta 2012 artean, 2016koa % 24ra murriztu zen eta % 30,3ra igo zen 2020an; aipatutako zerbitzu-adarretan, 2008-2012an % 12,9tik % 18,2ra izandako igoera 2016ko % 11,3ak eten zuen, eta azken aldian % 14,1era igo da.

Abantaila-posizioei lotutako enpleguaren proportzioak, ordea, behera egin zuen 2020an 2012arekin alderatuta merkataritza-zerbitzuetan (-7 puntu) eta beste zerbitzu batzuetan (-44,4 puntu). Hezkuntzaren, osasunaren eta gizarte-zerbitzuen adarretan, ia ez dago aldaketarik (+0,1 puntu). Azken adar horietan finkatzeko joera antzematen da 2008tik egondako etengabeko igoeratik: % 4,7 urte horretan; 2012an % 16,5, 2016an % 17 eta 2020an % 16,6.

Espainiako merkatuaren kasuan, abantaila teknologikoko posizioen pisuak behera egin zuen % 42tik % 34,7ra 2012 eta 2016 artean, baina nabarmen igo zen 2020an, % 38,2ra arte. Kasu honetan, bilakaera negatiboa garraio eta komunikazioen adarrean egon da (% 46,4tik % 24,7ra 2012 eta 2020 artean, oraindik 2008ko % 18,4ren gainetik), baita beste zerbitzu batzuetan (% 27,2tik % 22,2ra) eta merkataritza-zerbitzuetan ere (% 35,2tik % 32,6ra).

Hezkuntzaren, osasunaren eta gizarte-zerbitzuen adarretan, posizioen eta mailen etengabeko galera ezaugarri izanik (galera hori -10 puntu ingurukoa da abantaila-posiziotan), susperraldi bat egon da azken aldian, % 48,3ra arte.

Azken aldian energiaren industrian eta manufaktura-industrian gertatzen ziren abantaila-posizioen erorketak eten egin dira, eta ia lau puntuko igoera egon da lehen kasuan eta ia hamaikakoa bigarren kasuan.

Industria metalikoa da bakarra 2016an enpleguaren % 50etik gorako abantaila-mailak mantentzen dituen. 2020an, ia lau puntu gehiago igo da, % 54,6ra, hots, 2012tik baliorik altuena.

Eraikuntzaren eta merkataritza, ostalaritza eta konponketen adarretan, gorakada bat egon da, nabarmenagoa lehen kasuan. Bertan, lehia hobetu da 2012 eta 2020 artean, bost puntutik gora (% 24,9ra arte). Bigarren kasuan, 2012-2016 aldiko lehia-dinamika (alderatuz gero oso negatiboa dena) eten egin da, hamar puntutik gora galdu ostean.

Industria-sektoreko abantaila-/desabantaila-posizio bateratuetan izandako aldaketen azterketa zehatzak, establezimenduetako enpleguaren arabera datuetan oinarrituta, aukera ematen du 40. taulan aztertzeko zer-nolako lehia teknologikoa izan den merkatuetan adar industrialen talde bakoitzean.

40. taula

Lehiakideekiko abantaila teknologikoa duten bost enplegutik gorako establezimendu industrialak merkatu-motaren eta jarduera-adarraren arabera. 2008-2016
(Establezimenduetako enpleguaren ehunekotan)

	Energia			Metala			Manufaktura-industria			INDUSTRIA		
Merkatua	2012	2016	2020	2012	2016	2020	2012	2016	2020	2012	2016	2020
Estatuaren gainerakoa	42,8	26,8	34,3	43,4	45,8	48,7	43,3	21,2	39,9	43,4	38,2	45,4
EB	13,7	3,2	14,4	4,2	-3,7	17,0	18,0	2,7	13,9	7,8	-1,7	16,1
Gainerako herrialdeak	18,2	13,2	20,9	23,7	-1,3	7,5	32,7	6,5	20,3	25,0	1,8	11,4

Iturria: LMZ-Eskaria. 2008 - 2016. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

Aldea abantaila duten establezimenduen eta desabantaila dutela dioten artean (ED/EDE kenduta)

Europako Erkidegotik kanpoko merkatuen testuinguruan, nabarmentzekoa da hobetzeko dinamika orokorra, eta horren ondorioa da balantze positiboa izatea abantaila teknologikoa duten zentroak eta desabantaila teknologikoa dutenak erkatzean. Alde horretatik, 2012 eta 2016 artean izandako atzeraldiaren ondoren, 2020ko igoerak 10 puntutik gorako mailetan kokatzen du lehia-balantze hori. Hobekuntza apalena metalaren industrian ikusten da. 2008an eta 2012an lehia-abantaila zuten zentroetako enpleguaren aldeko 23-24 puntuko balantze positiboaren eta 2016ko -1,3 puntu negatiboko emaitzaren aldean, 2020an % 7,5era igo da.

Europar Batasunetik kanpoko merkatuetan abantaila teknologikoa duten zentroetako enpleguaren aldeko ildoak begi-bistakoa da manufaktura-industrian ere (2016ko 6,5 puntutik 2020ko 20,3 puntura). Hala ere, oraindik urrun dago 2012ko erregistrotik (32,7 puntu positibo). Bilakaera positiboa egon da, era berean, energiaren industrian ere: 20,9 puntu positibo 2020an, 2012 eta 2016an 18,2 eta 13,2 izan ondoren.

Joera are positiboagoa da Europar Batasunaren testuinguruan, begi-bistako hobekuntzak baitaude lehiatzeko balantze teknologikoan kontuan hartutako adar industrial guztietan. Metalaren industriari dagokio egoera onena, 17 puntuko emaitza positiboa izan baitzuen 2020an. Errealitate hau urrun dago aurretik egondako mailetatik, 2008, 2012 eta 2016an neutraltasunetik hurbil egon baitzen, 3,6, 4,2 eta -3,7 punturekin. Dinamika oso positiboa da beste adar industrialetan, maila positiboak egonik industria energetikoan, 13,7 puntutan 2012an, 3,2 puntu positibora murrizteko eta 14,4ra iristeko 2020an (2008ko 13,4aren eta 2016ko 13,7aren gainetik). Manufaktura-industrian, aurrerapena hamar puntutik gorakoa da (18 puntu positibo inguru 2012an eta 6,8 puntu 2008an).

Ildo positiboa Estatuko gainerakoarekiko balantze erlatiboan ere ikusten da, 2020an gehieneko mailak izan baitziren industria metalikoan (48,7 puntu positibo abantaila eta desabantaila duten enpleguen arteko diferentzian). Lurraldeen arabera testuinguru horretan, hala ere, 2020an energia- eta manufaktura-adarretako lehia-abantailako ildoan egondako balioak ez dira iristen 2012an EAEko zentroen alde zegoen diferentzial positiboaren maila gorenera.

4.4.3. Muga batzuk daude esportazio-jarduerak enpleguan duen inpaktu diferentzian

LMZ-Eskariaren datuek agerian uzten zuten 2016an funtsezkoa dela esportazio-jarduna enpleguari eusteko. Horrenbestez, 2012 eta 2016 artean enplegua -% 5,8 erori ostean establezimendu ez-esportatzaileetan (Europako merkatuan edo Europatik kanpoko merkatuetan presentziarik eduki gabe), % 3,3ko igoera egon zen merkatu horietara esportatzen zuten establezimenduetan. Ondorioa izan zen Estatutik kanpoko merkatuetara esportatzen zuten zentroek EAEn enplegu osoan zuten pisua 2012an % 22,2 izatetik 2016an % 23,8 izatera aldatu zela.

Berebiziko garrantzia zuen Europako Erkidegotik kanpoko merkatuetara irteteak. Espainian presentzia duten establezimenduen 2012 eta 2016 artean beren enpleguaren % 2,7 irabazten zuten bitartean – irabazi hori % 1,7koa zen merkatu europarrera bideratutakoetan –, lanpostuen bolumenean egondako igoera % 23,9 eta % 15,5ekoa zen Ipar Amerikan eta munduko gainerako lekuetan, % 2,3koa soilik Erdialdeko eta Hegoaldeko Amerikarako sarbidean, % 29,6koa merkatu txinatarrean parte hartzen zuten establezimenduen artean, eta hamarren bateko jaitziera txikia zuen Asiaren hego-ekialdeko merkatuetara bideratutakoetan.

41. taula

Esportatzaile diren establezimenduen enplegu-adierazleak. 2012-2020

(Enplegu absolutuak, 2012-2016 eta 2016-2020ko aldaketa ehunekotan, eta urte bakoitzeko enplegu osoaren gainerako ehunekoa)

	2012	2016	2020	Aldakuntza 2012/2016 aldian	Aldakuntza 2016/2020 aldian	Enpleguaren %a 2012an	Enpleguaren %a 2016an	Enpleguaren %a 2020an
ESPAINIA	306.360	314.614	337.243	2,7	% 7,2	37,6	% 40,1	% 42,6
EUROPAR BATASUNA	170.520	173.357	202.076	1,7	% 16,6	20,9	% 22,1	% 25,5
BESTE EREMU BATZUK	114.960	124.675	142.353	8,5	% 14,2	14,1	% 15,9	% 18,0
<i>Asiaren hego-ekialdea</i>	42.515	42.480	41.838	-0,1	-% 1,5	5,2	% 5,4	% 5,3
<i>Txina</i>	36.148	46.838	37.402	29,6	-% 20,1	4,4	% 6,0	% 4,7
<i>Ipar Amerika</i>	66.013	81.822	79.098	23,9	-% 3,3	8,1	% 10,4	% 10,0
<i>Erdialdeko eta Hegoaldeko Amerika</i>	69.699	71.305	60.713	2,3	-% 14,9	8,6	% 9,1	% 7,7
<i>Munduko gainerakoak</i>	78.620	90.770	103.669	15,5	% 14,2	9,7	% 11,6	% 13,1
ESPORTATZAILEAK	180.506	186.392	218.101	3,3	% 17,0	22,2	% 23,8	% 27,6
EZ- ESPORTATZAILEAK	633.948	597.308	568.904	-5,8	-% 4,8	77,8	% 76,2	% 71,9
GUZTIRA	814.455	783.700	791.598	-3,8	% 1,0	100	100	100

Iturria: LMZ-Eskaria. 2012 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

Esportatzaileak: Presentzia Estatutik kanpo.

2016 eta 2020 arteko enpleguaren susperraldiak adierazten du oraindik begi-bistako garrantzia zuela esportazioak, baina Europako Erkidegotik kanpoko merkatu batzuetara zegoen mugatuta. Hartara, aldi horretan, enpleguaren hazkundea % 15etik gorakoa izan zen munduko gainerako herrialdeetara egindako esportaziora lotutako establezimenduetan, baina negatiboa Erdialdeko eta Hegoaldeko Amerikan (-% 14,9) eta Txinan (-% 20,1).

Hala ere, aurrerapena argia da estatu-mailan jarduten duten establezimenduetan, % 7,2an kokatuta. Bestalde, negatiboa da ekintza esportatzailea Ipar Amerikarekin (-% 3,3) eta Asiaren hego-ekialdearekin (-% 1,5) lotzen denean.

Merkatu batzuetan zailtasunak ageri ziren testuinguru hartan, oso esanguratsua da Europar Batasunarekiko harremana. Bertan, aurrerapena oso indartsua izan zen 2016 eta 2020 artean, % 16,6ko balioekin.

Sektore esportatzaile nagusiari buruzko datuek, industriari buruzkoek, zeinak 42.a taulan jasota baitaude, adierazten dute oraindik dinamika hobea duela enpleguak zentro esportatzaileetan. Hala, enplegua 2016 eta 2020 artean % 2,2 jaisten den bitartean zentro ez-esportatzaileetan, % 3,7 igotzen da esportatzaileetan. Hartara, hautsi egin zen zentro horietan egondako enplegu-erorketa, 2012 eta 2016 artean enpleguaren -% 2 jaitsi ostean.

Nahiz eta 2016-2020 aldian enpleguaren igoerak Asiaren hego-ekialdera esportatzen zuten zentroei ere eragin (% 5,2), ildo negatiboak batez ere Txinan eta Erdialdeko eta Hegoaldeko Amerikan jarduten zuten zentroetako enpleguari eragin zion (% 12,3 eta -% 11,4, hurrenez hurren). Esparru europarrean datu horiek nolabait hobetu egin ziren 2012-2016ko -% 2ko erorketaren aldean, baina Txinarako esportazioak aldaketa bortitza ekarri zuen enpleguaren igoera-ildoaren aldean, % 9 inguruko balioak lortuz gun e horietara esportatzen zuten zentroetan 2012 eta 2016 artean.

Alderdi onari dagokionez, enpleguaren aldeko balantzea % 1,8koa baino ez da munduko gainerako herrialdeetara esportatzen duten zentroetan. Baina Ipar Amerikaren kasuan -% 5,1era iristen da. Kasu horretan, jaitsiera nabarmena ikusi zen 2012-2016ko % 14,6aren aldean.

Zerbitzuei dagokienez, 42.b taulako datuak erabilita, esportazio-jardunaren ildo ona mantentzen da. Hartara, zentro esportatzaileetako enplegua 2012 eta 2016 artean % 14,7 handitu ondoren, % 41,6 gehitu zen 2016 eta 2020 artean.

Hazkunde-ildoa Europako esparruari lotzen zaio, enpleguaren gehikuntzak gora egin baitzuen zerbitzuetako zentro esportatzaileetan 2012-2020ko % 10etik 2016-2020ko % 44ra arte. Era berean, gehikuntza-ildoa % 35,8an jarraitu zuen Europako Erkidegotik kanpoko merkatuetara irteera zuten zentroetan. Bestalde, jaitsiera-ildoa % 22,5ekoa da Erdialdeko eta Hegoaldeko Amerikan; % 21,7koa Asiaren hego-ekialdean; % 39koa Txinan. EBtik kanpo, munduko gainerako herrialdeetan soilik egon da igoera handia, % 47,2koa, esportazioa duten zentroetako enpleguan. Ipar Amerikaren kasuan, igoera azken aldian % 1,7koa da soilik.

Datuek, nolanahi ere, berresten dute ezen, enpleguaren ikuspegitik, kanpoko merkatuetarantz irteteko joerarik onena orain arte esportatzeko jarrera itxiena zuten sektoreei zegokiela oraindik ere 2016 eta 2020 artean, batez ere zerbitzuen testuinguruan.

42.a taula

Esportatzaile diren industria-establezimenduen adierazleak. 2012-2020

(Enplegu absolutuak, 2012-2016 eta 2016-2020ko aldaketa ehunekotan, eta urte bakoitzeko enplegu osoaren gainerako ehunekoa)

	2012	2016	2020	Aldakuntza 2012/2016 aldian	Aldakuntza 2016/2020 aldian	Enpleguaren %a 2012an	Enpleguaren %a 2016an	Enpleguaren %a 2020an
ESPAINIA	132.015	135.604	136.300	2,7	0,5	71,0	% 75,0	% 73,9
EUROPAR BATASUNA	118.577	116.225	119.822	-2,0	3,1	63,8	% 64,3	% 64,9
BESTE EREMU BATZUK	86.314	87.553	91.936	1,4	5,0	46,4	% 48,4	% 49,8
<i>Asiaren hego-ekialdea</i>	32.109	31.848	33.518	-0,8	5,2	17,3	% 17,6	% 18,2
<i>Txina</i>	30.359	33.105	29.018	9,0	-12,3	16,3	% 18,3	% 15,7
<i>Ipar Amerika</i>	53.139	60.887	57.803	14,6	-5,1	28,6	% 33,7	% 31,3
<i>Erdialdeko eta Hegoaldeko Amerika</i>	54.409	48.887	43.332	-10,1	-11,4	29,3	% 27,0	% 23,5
<i>Munduko gainerakoak</i>	65.562	65.910	67.072	0,5	1,8	35,3	% 36,5	% 36,3
ESPORTATZAILEAK	123.429	120.930	125.397	-2,0	3,7	66,4	% 66,9	% 68,0
EZ- ESPORTATZAILEAK	62.433	59.879	58.565	-4,1	-2,2	33,6	% 33,1	% 31,7
GUZTIRA	185.863	180.808	184.539	-2,7	2,1	100	100	100

Iturria: LMZ-Eskaria. 2012 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

42.b taula

Esportatzaile diren zerbitzu-establezimenduen adierazleak. 2012-2020

(Enplegu absolutuak, 2012-2016 eta 2016-2020ko aldaketa ehunekotan, eta urte bakoitzeko enplegu osoaren gainerako ehunekoa)

	2012	2016	2020	Aldakuntza 2012/2016 aldian	Aldakuntza 2016/2020 aldian	Enpleguaren %a 2012an	Enpleguaren %a 2016an	Enpleguaren %a 2020an
ESPAINIA	174.345	179.011	200.943	% 2,7	% 12,3	27,7	% 29,7	% 33,1
EUROPAR BATASUNA	51.943	57.132	82.254	% 10,0	% 44,0	8,3	% 9,5	% 13,5
BESTE EREMU BATZUK	28.645	37.123	50.417	% 29,6	% 35,8	4,6	% 6,2	% 8,3
<i>Asiaren hego-ekialdea</i>	10.406	10.632	8.321	% 2,2	-% 21,7	1,7	% 1,8	% 1,4
<i>Txina</i>	5.789	13.734	8.384	% 137,2	-% 39,0	0,9	% 2,3	% 1,4
<i>Ipar Amerika</i>	12.874	20.935	21.295	% 62,6	% 1,7	2,0	% 3,5	% 3,5
<i>Erdialdeko eta Hegoaldeko Amerika</i>	15.291	22.418	17.381	% 46,6	-% 22,5	2,4	% 3,7	% 2,9
<i>Munduko gainerakoak</i>	13.058	24.859	36.597	% 90,4	% 47,2	2,1	% 4,1	% 6,0
ESPORTATZAILEAK	57.077	65.463	92.703	% 14,7	% 41,6	9,1	% 10,9	% 15,3
EZ- ESPORTATZAILEAK	571.515	537.429	510.339	-% 6,0	-% 5,0	90,9	% 89,1	% 84,1
GUZTIRA	628.592	602.892	607.059	-% 4,1	% 0,7	100	100	100

Iturria: LMZ-Eskaria. 2012 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

4.4.4. Esportaziorako aukerek atzera egin dute sektore guztietan, batez ere industrian

Sektore ez-industrialetako bost enpleguko edo enplegu gehiagoko zentroei dagokienez kanpora ateratzeko geldialdia aurreikusten da. Hartara, aztertutako testuinguruan, eta inplikaturako enpleguari dagokionez, jardun esportatzaileari buruzko aurreikuspenak 2016 eta 2020 artean argi eta garbi jaitsi ziren eraikuntzan (% 3,9tik % 3,0ra) eta zerbitzuetan (% 4,8tik % 2,9ra). Hori bai, eraikuntzako adierazleak argi eta garbi daude 2012ko proportzioen gainetik, urte horretan zerbitzuetan egondako datuetatik urrun dauden arren.

Jardun esportatzailea nabarmen jaisteko joera industrian ere mantentzen da. Sektore horretan, 2008ko % 9,4tik 2012ko % 22,6ra eta 2016ko % 29,5era handitu zen enplegua esportazioak handitzea aurreikusten zuten establezimenduetan, eta datu horrek sektoreko esportazio-jarduerak epe ertainean handitzeko joeraren berri ematen du. Hala ere, ildo hori eten egin zen azken aldian, ia zazpi puntu jaitsiz, % 22,6raino.

43. taula

Bost enplegu baino gehiagoko establezimenduak, jarduera-sektorearen eta esportazioaren bilakaerarako aurreikuspenen arabera. 2012-2020

(horizontalen ehunekoa establezimenduetako enpleguaren arabera)

(Horizontal enaharria ezarri ondoren datuak errepagarriak dira)					
Urtea eta sektorea		Hazi egingo da	Bere horretan jarraituko du	Txikiagotu egingo da	Ez du egingo
2020	Guztira	7,6	30,2	4,3	57,9
	Industria	22,6	43,3	11,6	22,5
	Eraikuntza	3,0	24,1	2,2	70,7
	Zerbitzuak	2,9	26,4	2,0	68,7
2016	Guztira	10,5	14,0	0,7	74,8
	Industria	29,5	35,4	2,1	32,9
	Eraikuntza	3,9	7,6	0,8	87,7
	Zerbitzuak	4,8	7,6	0,2	87,4
2012	Guztira	10,1	27,1	4,7	58,1
	Industria	22,6	47,8	9,9	19,8
	Eraikuntza	3,5	14,9	4,3	77,3
	Zerbitzuak	4,9	18,6	2,2	74,2

Iturria: LMZ-Eskaria. 2012 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

5. BESTE ALDERDI BATZUK

5.1. Prestakuntza jasotzeko aukerak murriztu dira

Bai 2016an, bai 2020an, 44. taulan atzerakada ikus daiteke establezimenduetako prestakuntza-ekintzan, nahiz eta historikoki goranzko bilakaera egon izan den prestakuntza eskuratzeko adierazleetan 2012ra arte EAEko produkzio-zentroetan. Kasu honetan, inplikaturako zentroen adierazlea 2000 eta 2004an % 22 inguruan egotetik 2008an % 26,7ra eta 2012an % 32,8ra pasatu zen, 2016an % 19,1era murriztu zen eta 2020an % 16,1era; hots, alderatuz gero, asko jaitsi zen.

Errealitate hori ez da antzematen prestakuntzara bertaraten direnen eta enpleguaren bolumenaren arteko harremanean. Prestakuntzara bertaraten direnen eta enpleguaren arteko harremanari erreparatuz gero, adierazlea 2000an % 36 izatetik 2004an % 53,4ra, 2008an % 60ra eta 2012an % 64,9ra pasatu zen. 2016ko % 49,3ak eta 2020ko % 48,8k adierazten duten etena ez da hain handia, baina argi eta garbi dago 2004ko balioetatik behera, eta, batez ere, 2008an eta 2012an izandakoetatik behera. Azken aldi honetan, gainera, bertaratutakoen zenbatekoak gora egin du balioa absolutuetan.

Bestalde, hautsi egin da prestakuntzaren intentsitatean 2012 eta 2016 artean izandako beherakada. Aldi horretan, prestakuntza-ekintzetan parte hartzen zuen pertsona bakoitzeko ordu-kopurua nabarmen jaitsi da, alde horretatik, 14 izatetik 13,3 izatera aldatu baitzen, eta 9,5 baino ez baitzen izan 2016an. 2020an, zertxobait berreskuratu da, % 10era arte.

2008 eta 2012 artean, enpleguko prestakuntza-orduen kopuruak, bestalde, egonkortzera jo zuen (2012. urtean 8,6; 2008an, berriz, 8,4). 2016an, adierazlea nabarmen murriztu zen eta 4,7 prestakuntza-ordutara iritsi zen enplegu bakoitzeko. Ratio hori apur bat berreskuratu da, aurreko kasuan bezala, % 4,9ra iritsi arte.

Adierazitako joerak sektore guztietara hedatzen dira oro har, baina zenbait desberdintasun ikus daitezke. Deigarriena enpleguarekiko parte-hartzaile ehunekoari dagokio. Hartara, alde batetik, 2012 eta 2016 artean industria-sektorean ikusten zen goranzko dinamika hausten da (% 131,3ra igota 2016an). Bestetik, eraikuntzan eta zerbitzuetan 2012 eta 2016 artean izandako erorketa-ildoak eten egin da. Enpleguko parte-hartzaileen ehunekoa 2008ko % 45,4tik 2012ko % 42,2ra eta 2016ko % 16,2ra jaitsi zen eraikuntzan, 2020an % 26,9ra igoz. Bestalde, zerbitzuetan, 2008 eta 2012 artean % 64tik hurbil egonkortu ondoren, adierazlea % 27,2ra jaitsi zen 2016an eta % 50,8ra igo 2020an.

Eraikuntzak eta zerbitzuek, ordea, azpimarragarri dute behera egitea parte-hartzaileko prestakuntza-orduen kopuruak, industriak ez bezala, goranzko joera baitu. Hala ere, orduak/parte-hartzaile adierazlea erreferentziazat hartuta, ikusten da adierazle hori 2012 eta 2020 artean 17,4tik 17,9ra handitu zela eraikuntzan. Aitzitik, 13,4tik 10,4ra jaitsi da industrian eta 12,9tik 9,6ra zerbitzuetan. Baina orduak/enplegu adierazlean, 2020ko ehunekoa argi eta garbi da 2012koa baino txikiagoa sektore guztietan.

44. taula

Prestakuntzarako irispideari buruzko adierazleak, jarduera-sektoreka. 2012-2020

	GUZTIRA			Industria			Eraikuntza			Zerbitzuak		
	2012	2016	2020	2012	2016	2020	2012	2016	2020	2012	2016	2020
Adierazleak												
Establezimenduak												
Zifra absolutua	57.789	31.524	25.560	5.089	2.069	2.743	6.416	2.496	1.930	46.284	26.959	20.886
Establezimenduen %a	32,8	19,1	16,1	34,9	16,0	24,2	27,8	14,1	10,6	33,3	20,0	16,1
Bertaratuak												
Zifra absolutua	528.342	414.968	419.075	140.021	241.444	90.340	28.441	8.053	13.769	359.879	165.471	314.966
Bertaratuen %a enpleguko	64,9	49,3	48,8	75,3	131,3	48,3	42,2	16,2	26,9	64,1	27,2	50,8
Prestakuntza-orduak												
Zifra absolutua	7.029.604	3.955.285	4.209.192	1.881.998	1.525.098	937.346	494.360	151.097	246.596	4.653.247	2.279.090	3.025.250
Orduak/bertaratuak	13,3	9,5	10,0	13,4	6,3	10,4	17,4	18,8	17,9	12,9	13,8	9,6
Orduak/Enpleguak	8,6	4,7	4,9	10,1	8,3	5,0	7,3	3,0	4,8	8,3	3,7	4,9

Iturria: LMZ-Eskaria. 2012 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

5.2. Modernizazio-, berrikuntza- eta nazioartekotze-adierazle erlatiboek hedatzeko edo aurreratzeko joera orokorra erakusten dute prozesuan

EAEko ekonomiaren modernizazio-, berrikuntza- eta nazioartekotze-adierazleen baterako ebaluazioa kontuan hartzean, oro har esan daiteke 2008-2012an begi-bistako intentsitatea zuen prozesuak aurrera egin duela. Erreferentziazat hartuta bost enplegutik gorako produkzio-zentroetan kasu bakoitzean inplikaturako enplegu-proportzioa, produkzio-egiturak oro har hedatzeko errealitate hori zenbait alderditan adierazita geratzen da.

Alde batetik, eta informatizazio-prozesuak kontuan hartutako EAEko ia zentro guztiei eragiten dielako testuinguruan, erreuperatu egiten da produkzio-prozesuak guztiz informatizatuta dauzkaten establezimenduei lotutako enpleguen ehunekoa. 2008 eta 2012 artean % 67,8tik % 75,3ra handitu ondoren, proportzioa % 56,6ra jaitsi zen 2016an⁴, % 59,1era igotzeko azken aldian. Goranzko ildo beretik, baina intentsitate biziagoz, web-atarien erabilgarritasuna igo da zentroetan (2016 eta 2020 artean % 88tik % 73,2ra jaitsi ondoren, proportzioa % 88,7ra igo da 2020an). Bestalde, 2012 eta 2016 artean % 39,8tik % 35,4ra jaitsi ondoren, I+G arloan jarduera jarraituren bat izan duten zentroei lotutako enpleguen ehunekoa berriz ere igo da 2020an % 38,3ra arte. Horrek, zalantzarik gabe, jarraitutasun handiagoko ildoak erakusten du, beste adierazle batzuen aldean. Bilakaera hori bateragarria da produkzio-jarduera modernizatzeko prozesu espezifikoetan parte-hartzea nabarmen igotzearekin, bereziki produkzio-prozesuak egokitzeari eta produktuak berritzeari dagokienez. Hartara, produkzio-prozesuetan aldaketak egiten dituzten zentroetako enpleguen proportzioa 2016ko % 10,9tik 2020ko % 32,7ra igo da. Ildoa antzekoa da produktuak berritzeari dagokionez: ehunekoak % 12,7 ziren 2016an, eta % 25,5era igo dira 2020an.

Halaber, alderdi berritzaileari eusten dio ingurumen-berrikuntzetan. Kasu horretan, 2008-2012an gertatutako % 35,8tik % 36,4ra arteko igoera 2016ko % 37arekin eta 2020ko % 40,9arekin luzatu zen, erdibideko mailatan.

Bestalde, enplegu-kopuruak apur bat behera egiten du kalitate-ziurtagiria duten zentroetan (2020an, % 42,3, 2016ko % 44,1en aldean).

⁴ Jaitsiera hori enpleguaren aldaketei lotzen zaie, muga-establezimenduak kontuan hartutako bost enpleguen atalasearen alde batetik bestera aldatuta; azken hori, halaber, garrantzitsua da atal honetan jasotzen diren beste jaitsiera-prozesu batzuetan. Bereziki informatizazioari dagokionez, ordea, 2016ko jaitsierak zerikusia izan dezake, halaber, prozesuen erabateko informatizazioari une bakoitzean ematen zaion esanahian gertatzen diren aldaketekin.

45. taula

Modernizazio-, berrikuntza- eta nazioartekotze-adierazleak. 2012-2020
5 langiletik gorako establezimenduak

(Kopuru absolutuak eta inplikatuaren ehunekoa establezimenduen eta enpleguen arabera)

Adierazleak	Establezimenduak						Enpleguak					
	Absolutuak			Inplikatuaren ehunekoa			Absolutuak			Inplikatuaren ehunekoa		
	2012	2016	2020	2012	2016	2020	2012	2016	2020	2012	2016	2020
Partzialki edo guztiz informatizatuta	21.872	22.012	26.019	96,1	94,3	94,9	542.266	591.035	626.163	97,6	97,6	97,0
Guztiz informatizatuta	14.728	10.751	14.354	64,7	46,1	52,3	418.631	342.757	381.545	75,3	56,6	59,1
Web-orria	15.531	13.715	20.793	68,3	58,8	75,8	488.878	443.509	572.256	88,0	73,2	88,7
Aldaketak produkzio-prozesuetan (1)	2.477	2.005	6.612	4,0	8,6	24,1	35.839	66.179	210.982	6,4	10,9	32,7
I+G	4.671	4.830	4.837	20,5	20,7	17,6	221.111	214.378	247.356	39,8	35,4	38,3
Produktuen berrikuntza (1)	2.701	1.867	4.165	3,2	8,0	15,2	21.972	77.208	164.667	26,2	12,7	25,5
Ingurumen-berrikuntzak (1)	4.481	5.507	6.080	19,7	23,6	22,2	202.139	223.938	263.826	36,4	37,0	40,9
Kalitate-ziurtagiria	8.997	15.762	18.563	48,3	67,5	67,7	138.033	267.079	273.066	24,8	44,1	42,3
EBko presentzia	3.572	3.905	5.010	19,7	23,6	22,2	160.333	164.719	194.611	28,9	27,2	30,2
Presentzia EBtik kanpo	1.902	2.226	2.568	8,4	9,5	9,4	111.593	120.233	139.580	20,1	19,9	21,6
Produkzio-gaitasunaren igoera (1)	5.175	6.135	10.160	22,7	26,3	37,1	155.038	186.127	277.314	27,9	30,7	43,0

Iturria: LMZ-Eskaria. 2012 - 2020. Ekonomia osoa, Administrazioa, lehen sektorea eta etxe-zerbitzua izan ezik.

(1) Azken lau urteetan gertatutako aldaketa

Adierazitako dinamika bat dator nazioartekotze-prozesuen goranzko ildo leunarekin. Hala bada, 2012 eta 2016 artean % 28,9tik % 27,2ra jaitsi ondoren, 2020an % 30,2ra igo zen Europar Batasunean presentzia zuten zentroetako enpleguen ehunekoa. EBtik kanpo ere, 2012 eta 2016 artean % 20,1etik % 19,9ra jaistearekin batera, % 21,6ra arteko igoera izan zen 2020an. 2020ko adierazleek 2008koen gainetik jarraitzen dute bi kasuetan.

Garrantzitsua da egiaztatzea kanpoko merkatuetara irekitzeko ildoaren beherakadarekin batera hobekuntza bat izan dela globalizazioaren balorazioan. Bost enplegu edo gehiagoko establezimenduetan, eta establezimenduetako enpleguaren ikuspegitik, globalizazioaren balorazio positiboa 2016an % 9,8 izatetik 2020an % 10,2ra pasa da. Horrekin batera, balorazio negatiboa jaitsi egin da 2016ko % 17,6tik 2020ko % 12,5era. Globalizazioaren aldeko iritzien saldoa, 2016an negatiboa zena (-% 11,5), 2020an murriztu egin da (-% 4,6).

Merkatuen globalizazio hori eta enplegua azken laurtekoan handitu izana ezaugarri zituen testuinguruan, 45. taulako datuek batez ere adierazten dute testuingurura egokitze ildo nagusitu zela, eta, horren ondorioz, emaitza positiboak izan zirela produkzioaren ikuspegitik. Eta, produkzio-gaitasunaren igoera adierazten zuten establezimenduetako enpleguen ehunekoa 2016 eta 2020 artean % 30,7tik % 43ra pasa da. Ehunekoak, hala ere, 2008ko % 50,9tik urrun daude.



TXOSTENAREN AURKIBIDEA

AURKEZPENA	3
1. ENPLEGUAK EAE-N IZAN DUEN BILAKAERA.....	5
1.1. Establezimenduen kopurua nabarmen behera aritu bitartean, enplegua % 2,0 handitu da 2016 eta 2020 artean	5
1.2. Susperraldiak indartutako jarduera-esparru nagusiak	6
1.2.1. Komunitateari laguntzeko zerbitzu handiek biltzen dute hedapen-adarretako enplegu-hazkundearen % 72,2.....	6
Enpleguaren krisiak indarrean jarraitzen du jarduera-adar batzuetan; manufaktura-industrian eta beste zerbitzu batzuetan bereziki	8
1.2.2. Ekonomiaren sektore publikoa eta pribatua	8
1.2.3. Zentro txikienetako enplegua erori egin da, eta establezimenduen batez besteko tamainaren igoera sustatu da	9
1.2.4. Lan-eskalaren alde tekniko eta kualifikatua hobetu egin da, baina dinamika kezkarria da kualifikazio gabeko langileen artean.....	11
1.2.5. Kontratu mugagabea duen biztanleria igo egin da	13
1.3. Enpleguaren susperraldia, batez ere Debagoienan eta Durangaldean. Enplegu-galera duten eskualdeetatik, Ezkerraldean eta Bilbon metatzen da jaitsierarik handiena.....	13
2. ESTABLEZIMENDUEN ARABERAKO ENPLEGU-DINAMIKA NEGATIBOA 2020AN.....	16
2.1. Adar guztietan (osasunean, hezkuntzan eta gizarte-zerbitzuetan izan ezik) beheranzko enplegu-dinamika daukan produkzio-sistema	16
2.2. Bajen eragina argi eta garbi geroz eta baxuagoa izanik, nabarmen murriztu dira txandakatze-tasak.....	17
2.3. Aldi baterako kontratazioa nagusitzen da, eta apur igotzen da haren eragina, bereziki eta indar biziz zuzendaritzako langileen artean	21
3. EGITURAZKO JOERA GARRANTZITSU BATZUK	23
3.1. Handitu egin da 30 ordutik beherako enpleguaren pisu erlatiboa	23
3.2. Emakumeek enpleguan duten parte-hartzearen hazkundera eten egin da, baina ez modu orokortuan	25
3.3. Gazteek enpleguan duten presentziak jaisten jarraitzen du	28
4. ETORKIZUNEN AUKERAK	31

4.1. Nabarmen berreskuratzen ari da sistemak lanpostu garbi gehiago sortzeko duen gaitasuna	31
4.2. Enpresak finantzatzeko testuinguru ez hain positiboa	33
4.2.1. Euskal establezimenduen posizio finantzarioak okerrera egin du.....	33
Kreditua lortzeak kostua dauka eta ez da unibertsa, eta arazoek eragin handiagoa daukate industriaren sektorean.....	35
4.2.2. Errotik igo da enplegua galtzeko arriskua finantzaketa-arazoengatik, eta arazoek kontratazioa mugatzen jarraitzen dute.....	39
Arriskuan dauden enpleguen banaketa	41
4.3. Egungo testuingururen baldintzatzaile nagusi modura, lehiak handitzen jarraitzen du, eta enplegua salmentetara egokitzen da, zeinak okertu egin baitira establezimendu gehien-gehienetan.....	44
4.4. Kanpo-merkatuetan sartzea	48
4.4.1. EAEren presentzia oraindik mugatua da barne-merkatuetatik kanpo, atzerriratzeko prozesuak moteltze-prozesu bat bizi baitu	49
4.4.2. Hobekuntza kanpo-merkatuetako lehia-baldintzetan, teknologiaren esparruan	55
4.4.3. Muga batzuk daude esportazio-jarduerak enpleguan duen inpaktu diferentzian	60
4.4.4. Esportaziorako aukerak atzera egin dute sektore guztietan, batez ere industrian	63
5. BESTE ALDERDI BATZUK	64
5.1. Prestakuntza jasotzeko aukerak murriztu dira.....	64
5.2. Modernizazio-, berrikuntza- eta nazioartekotze-adierazle erlatiboek hedatzeko edo aurreratzeko joera orokorra erakusten dute prozesuan.....	66